

ALKASOROKO BENTA

MIKEL TABERNA



MIKEL TABERNA

Alkasoroko Benta



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2013 Mikel Taberna

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2013ko martxoan

Edizio hau: 2013ko martxoan

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

BORDATXO

Oraindik ez du argitu, baina buruz daki non finkatu behar duen hanka, eta kontent heldu da bidexkan barna, saltoka. Esku batekin zakoteari kontzen dio, barrenean ekarki duena ez galtzeko. Bakarrik da, gaueko lana egin ondotik lagun bakoitzak bere aldera jo duelako. Alemanak mugatik desagertu zirenetik aisaxeago dabilta. Bidean pixka bat entretenitu da. Hiru amuarrain ttiki ebatsi dizkio, bat-banaka, Larun aldetik heldu den erreka jostariari. Bi hosto zabaletan bildu ditu, zintzilik duen poltsan sartu baino lehen. Kili-ka egin diote bizkarrean, handik eskapatzeko eginalak egiten, aireak ito dituen arte. Martinbaitako neskatxa gazteari erregalua egin nahi dio, azkeneko al-dian bezala. Harri bat botako dio leihora, problemarik ez dutela izan adierazteko, eta askaren ondoan utziko dio oparia.

Herriko lehenbiziko etxeetara ailegatu da. Zutoin luzeen muturrean, argi pizar bat ematen duten bonbilla ahulak itzaltzeko desiotan daude, eguna lo emateko. Zazpiak kuarto gutti jo dute elizako ez-kilek, berak nahi duen bezala. Fabrikako langileak orain hasiko

dira agertzen. Kuartel paretik pasatzean ez dira harrituko jendea ikusita.

Iamoteneko atean xakur bat auriaka ari da negarez. Haren ondoan bulto ilun bat ikusi du bankuaren gainean. Gorputz bat da, harri gainean etzinda. Ez da mugitzen. Aurpegia ukitu dio eta ikaratu da, hormaturik baitago. Antzualdeko meategian aritzen den Juan Pedro da. Inarrosaldi bat eman, eta gizona marmarka hasi da. Berriz ere zirikatu du, eta noizbait ere begiak ireki ditu, kostata. «Zer ari haiz hemen? Erituko haiz! Hoaie etxera lo egitera!».

Gizona daldaraka dago eta motel egiten du solas. Andretako nahi lukeen neskarekin zita zuen bezperan, ilunabarrean, baina ez zitzaion agertu. Hark ez zuen usteko hau etorriko zela. Orain jakinen du Juan Pedrok ez ziola burla egin nahi. «Benga, hoaie etxera!» erran dio berriz, eta gizon engainatua goiti aldera abiatu da ttaka-ttaka sekula hutsik egiten ez dion lagun ilezua-reakin.

Joxemarik aitzinera segitu du. Lepo aldean hotza sumatu eta txaketaren lepoa goiti egin du. Langile batzuek bizikleta gainean aitzindu dute. «Aiooo, lesakarra!», erran dio batek. Inork ez dio galdetuko zertan dabilen tenore horretan.

Ez du beldurrik izateko motibo handirik, baina ezin ditu nerbioak arras uxatu bere baitatik. Berako herria nahitaez gurutzatu behar du, bururen buru, eta gero geltokiko zubia ere bai, Alkasoroko bide segurua hartzeko. Bertze obrero multzo koxkor bat joaten ikusi du orain. Bide zuzena dute han urrun ageri diren lantegi-ko tximinia luzeetaraino. Kamioa ez da txoil zelaia, malda pixka bat egiten baitu goiti. Hiru gazte euren arteko karrera egiten doaz, pedalei abaila emanaz. Beteranoek bertze patxada bat dute, xixtuka, solasean edo zigarroa erretzen.

Katu batzuk futaka eta zalapartaka sumatu ditu bazterreko ezpel batzuen artean, eta bat-batean hanken ondotik pasatu zaizkio lasterka. Lehenbiziko bat, eta haren ondotik bizpahiru gehiago, hura harrapatu nahian bezala. Ikareria joan zaiolarik, irri egin du. Otsaila!

Elizako erlojuan zazpiak. Ilun segitzen du, baina klarezia pixar bat ageri da mendien hegian eta herria ernatzen ari da. Bada mugimendua Gazteluenean. Etxearen aitzineko aldean sarrera zabala dute, eta bertan etxola bat eta iratze meta. Ez du gelditzeko gogorik, baina nagusia mahuka hutsik agertu zaio, lane-ko erreminta eskuan.

- Ze habila, Joxemari? Fabrikan hasi haiz edo ze? Gizonak ez daki solas egiten bere ttaka bota gabe.

- Bai, oraintxe, azienda guziak saldu, eta ofizinetan hartuko ote nauten!

Zaharrak baietz egin du buruarekin, baina «Bai, to!» erran nahi du.

Heia barreneko argia biztua dago, eta etxekoandrea ikusi du zerbaitetan ari dela. Nahitaez segitu behar du solasean.

- Gaur ere baduzue besta klaseren bat...

Zerria hil behar dutela erran diote. Isidororen esperoan daudela, hark sartuko baitio nabala animalari. Horrekin nahikoa iruditu zaio.

- Sarri etorriko naiz jeneroa probatzera.

- Etorri, etorri lasai! Zerbait ere hartuko duk!

Bi gizonak irri egin dute, eta gazteak adio keinua egin dio baserriko nagusiari.

Berrehun bat metro bertzerik ez du falta zubira ailegatzeko, eta Marikarmen etorri zaio kaskora. Maindiren epeletan lo imajinatu du. A ze ustekabea hartu behar duen aska ondoan zer utzi dion ikustean! Ez da ohartu ilunpetatik begi batzuek ikusi dutela. Ez dira katuarenak. Eta diz-diz hori ez da ipurtargiarena.

Jeronimo guardia zibilak gau osoak ematen ditu-
erne. Ezin jakin zerk galarazten dion loa. Gaur ere hor-
txe dago, manta bizkarraren gainean, etxeko eskaile-
retan jarrita, esku batean zigarroa eta bertzean izpiri-
tu botila. Pentsamendua bertze lur batzuetan edukia-
gatik, oinez pasatu den mutil segail hori Joxemari Bor-
datxo dela erran dio daukan arrazoi exkakak. Bi aldiz
pentsatu gabe, airean joan da eskailerak goiti, fusila
hartzera.

Gaztea ikaratu egin da gibeletik etorri zaion oihu
zakarra aditzean.

- ¡Alto o disparo!

Besoak altxatu, eta poliki-poliki bueltatu da. Hogei
bat metrora ikusi du eltzetzua. Arma besagainean du,
begia kanoiaren lerro berean, eta behatza katuan.

- ¡No te muevas que te pego un tiro! ¿Qué llevas
en esa bolsa?

Zerbait kontestatu nahi du, baina ezin. Tximista
batek jo du kopetan eta hutsaldi beltz bat zabaldu
zaio buru barrenean. Ez daki nork aginduta, baina jira
egin eta lasterka hasi da.

- ¡Para, que si no te mato! -aditu du Gazteluene-
ko nagusiak zerritegiko ataka irekitzen hasi denean.

Hiltzera kondenatu duten zerrama ederrak ere beharriak altxatu ditu.

Mutilari argitasuna etorri zaio berriz ere kaskora. Zubira ailegatzeko falta dituen segundoak kontatzen hasi da. Ondotik segika duen gizonaren lasterrak eta maldizioak aditzen ditu. Badaki ez duela inola ere harapatuko; ez, ordea, su egiteko kapaz izanen ote den.

Danba!!! Herri osoan aditu da tiro soinua. Baita Alkasoron ere. Martinbaitako leihoko kristala kexatu da, kraska!

Hankek ustekabeen zola falta dela sumatu dute, eta gaztearen gorputza lurrera erori da, mendebalak bota duen arbola balitz bezalaxe.

Berako guardia zibilen kuarteleko Jeronimo G. segituan ailegatu da azken hatsa ematen ari den mutilaren ondora. Kaguendioska hasi da, «Hijo de puta, te lo merecías, por hijo de puta...». Deabrua ageri da haren begietan. Horrelaxe iruditu zaio Gaztelueneko nagusiari, istanteko bertan baita bera ere. Azienda-hiltzaila haren ondotik etorri da, ezin sinetsiz ikusten ari dena. Hagitz ezaguna du lurrean dagoen gizona, «Bordatxo! Bordatxo da! ¿Qué le has hecho? ¿Cómo has hecho tiro contra un hombre sin armas?». Oihuka hasi zaio eltzetzuari, eta bere besotzarrak erakutsi dizkio,

lepotik hartu nahi baitu. Fabrikako jendea agertu da orduan lasterka, zer gertatu den jakin nahirik, eta Isidoro azkarraren eta guardia zibilaren artean sartu dira, odol gehiago ez isurtzeko. Aranibarren etxean leiho bat zabaldu da, eta emakume batek eskuarekin ahoa tapatu du, garrasia itzaltzeko.

Beran eta Alkasoron agudo zabalduko da berria, baita Lesakan ere, baina Seierrietatik aparteko inor gutxik jakinen du goizaldean mutil gazte bati kulparik gabe kendu diotela bizia. Biharamunean, 1950eko otsailaren 11n, egunkarietan ez da haren gaineko lerro bakar bat ere idatziko.

Martinbaitan ez dute Marikarmen alaba gaztea kontsolatzen ahalko.

Gaztelueneko zerrama ederrak egun bat gehiago disfrutatu du bizien artean, eta inguruan barna ibilki ziren katu gosetu batzuek euren artean borroka egin dute latz, indartsuenek Larungo erreka hiru amuarraintziki jan dituzten arte.

MUTUAREKIN SOLASEAN

Ni jaio nintzen egunean ama arrunt lasai zegoen. Baitere kezkarik gabe, Urrabiaren bazterrean barna pasean, patxada ederrean, bertze hainbertzetan bezala. Urak tiratzen zuen. Urte haietan, uda partean jeneralean, bazkalondoan, jendea siestan zegoen tenorean, denda-ostatuan jenderik ez eta sukaldeko lanak eginik, noiznahi sartzen zen putzura, gona eskuarekin goiti bildu eta hankak izterretaraino bustitzera, eta ez zen harritzekoa beti norbait begira izatea pendoitzaren gainetik, gizon begixorrotxen bat. Aita nerbiostu egiten zen amaren gogorazio horrekin, kolerak hartzen zuen, «Ze zabilta hor, dena agerian! Ez duzu ikusten jende guzia marmarika ari dela!».

Bada, egun hartan ere halatsu ibilki zen. Sartua ez, baina ibaiaren inguruan, tripa handia garraio. Eskuak gerriaren atzeko partean lotuak, hortz artean xiri bat, eta lurrera begira, etxeko oilo eroak han barna utziriko arroltzetik ikusiko ote zuen. Txopo baten kontra jarri zen, erdi etzinda, hanka puntekin iatsu ura ukitzen zuela, eta postura hartan lokartu zen. Eta orduantxe ate joka hasi ni! Preziso kanpora behar nuela

segituan! Sokatiran hasi ginen, nor baino nor. Ni indarka eta bera ere bai. Emakume gaixoa ezin mugituz, aiaika, eskuekin tripari kontzen, eta ni bulka eta bulka!

Gure aitak nire bi anaiei kontatu zien izokin batek ekarri ninduela bizkar gainean itsasotik. Nahiago hala izan balitz! Egia bertzelakoa zen. Alfredo arrantzazainak lagundu zion amari erditzera. Hura beti gure etxe inguruan ibiltzen baitzen. «Sugegorri hori hor izaki!», gure aitaren amorrazioa. Baina hari eskerrak omen nago ni mundu honetan. Lehenagokoak aski ez, handik aitzinera makina bat txikito hartu zituen etxearen kontura.

Ordea, jendeak ez zion maitasun handirik guarda jaunari. Nerabe izan edo adineko, inor ez zen gizon hartaz sobera fidatzen. Ezdeuskeria batengatik edozeini multa paratu edo lizentzia kentzeko kapaz zen. Baina ez zen hori bakarrik. «Horrek espia izateko balio dik!», erraten zuen Isidorok, guttien espero zen tokian hantxe izaten zelako. «Espia! Ez-fia horrekin!» aditua nion behin Kasinoko Eugeniori, hortzak estuturik. Iza-nez ere, haienera ez zen sartzen, hango etxeakoandre Inesek salatu zuenetik.

Arrats batean, lo egiteko bere kuartoan, emakumea ohatzera sartzeko arropa erantzten ari zela, begi batzuk ikusi zituen gelako kristaletatik begira. Haren ikareria! Hala ere, ez zuen beldurrak lotu eta oihuka hasi zen. Nor zen ikustera joan eta, atea ireki zuelarik, gizon bat ikusi zuen airean lehenbiziko solairu apal hartako balkoitik lurrera salto egiten. Iluntasunean ezagutu ezin izan bazuen ere, ibilera hura ez zitzaion arrotza iruditu. Itzala lasterka desagertu zen, eta ez zuten harrapatu, nahiz eta inguruko etxeetako gizon batzuk bilatzen aritu ziren, emakumearen garrasiak aditu eta gero. Hurrengo egunean, Alfredok nonbait min hartu zuela jakin zuen jendeak. Presa gaineko paretatik erori zela kontatu zuen. Inesek Berako kuartelean denuntzia paratu zuen, baina ez zioten gizonari kargurik hartu, ezin izan zutelako deus demostratu.

Harrezkeroztik gure amak ere ez zuen hurbil ikusi nahi, eta ostatura etortzen zenean, gurasoek nahi baino maizago, «Berriz ere hemen dugu lepaundi hori!» barren-barrenetik ateratzen zitzaion amari. Niri grazia egiten zidan, ikusten ninduen aldiro zerbait erraten zidalako, «Hi, Martintxo, oroitu niregatik hai-zela mundu honetan, e!». Gero, basoa betetzeko eskatzen zion aitari edo Ixabeli, kexu beti, guttixko ema-

ten ziotela eta, «Bota gehixeago, motel!». Mateletan sare gorri batzuk zituen, ardoak bere pintzelik finenarekin pintatuak.

Gure etxea Urrabiaren arrimuan dago, itsas hegiko talaian farola nola, halaxe gurea, Zubiko Benta. Edozeini arriskutsua ere irudituko zaio hain hurbil izatea, baina guretzat konfiantzazko bizilaguna izan da beti ur-suge eder hori. Hartan eta harekin aritu gara makina bat aldiz jostetan. Solasean ere zenbat ordu! Eta lanean, etxeetan urik ez zegoen garaian? Amatxi zenak, orduko nagusientzat neskato ari zela, zenbat arropa garbitu eskuz ugaldoko ur hotzean! Ur bazterreko txopoari lotua genuen xalanta ere ez genuen apaingarritako. Gaueko lanean non hartan baino hobeki paketeak garraiatu? Haur ginen denboran, urari begira egiten genuen pixa gozo-gozo pitilina genuenok, bai etxekook, bai gure bezeroek. Emakumezkoek gehixeago gorde behar izaten zuten.

Horregatik, gu ere aski ttikitatik hasi ginen hartan arrantzan, konparazio batera. Sasoia hurbiltzen zenean, prestatze lanak izaten genituen. Espedizioan jotzen ginen Etxeberriko kanaberadira. Hantxe, oihan

magiko hartan, «Ikusi hau, ze ederra! Joakinentzat espeziala, izokitarako!», bakoitzak berea bereizten zuen. Gero esparatrapuarekin eraztunak paratuko genizkion makilari, bat-banaka. Ondotik pita erosi, berunak, amuak... Txirrikak Agararen dendako eskaparatuan ikusten genituen, baina sosa balio zuten, eta tomate poto huts batekin moldatu behar izaten genuen kategoria ttikikook. Baratzean zizare batzuk bildu, eta ekipo guziarekin martxa putzu aldera!

Anaia Joxantonio eta biok elkarrekin joaten ginen gehienetan. Halaxe pasatzen genituen libre genituen orduak. Urrabiari aingira edo amuarrainen bat kentzeko esperantzarekin. Bertzerik ez bazen, xarbo inoxenteren bat bederen. Tristeia izaten zen deus gabe bueltatzea etxera. Eta gogorragoa bidean Ferminen ikusten bagintuen. Gorroto genion harro hari. Tokirik hoberenak beretzat hartzen zituen beti, eta gustatzen zitzaien gainerakoak umiliatzea, «Zer ibili zarete, arrantzan edo zizareak errekan freskatzen?» erraten zigun, berak txiste txarra egin eta berak bakarrik irri ergela eginez.

Baina arrantzalerik hoberena, dudarik gabe, Mutua zen. Bere Vespino zurian ibiltzen zen batetik bertzera, eta hark bai, seguru zen hark beti zerbait bil-

tzea saskira. Neska-mutiko gehienek beldurra genion, hagitz jenio txarra zuela iruditzen zitzaigulako. Ezin solasik normal egin, entenditzen ez ziren oihuak egiten zituen, lepoko zainak ageri. Norbaitek kontra fuer-te eginez gero, ukabila itxi egiten zuen joka hasteko bezala. Horregatik, zer gerta ere, harengandik aparte nahiago guk.

Igande goiz batean, anaia ezongixko izaki eta, arrantzako erreminta guziak hartu eta bakarrik joan nintzen, etxean deus erran gabe. Urrabia karga-karga heldu zen aitzineko aste osoan euria gogotik bota zuelako. Trenbide zaharretik abiatu nintzen presa aldera. Bagenuen gustuko xoko bat meategi abandonatuaren parean, eta haraxe joatea pentsatua nuen. Gure etxera mandatutara heldu ziren baserritar batzuekin gurtzatu nintzen. Aio eta aio! «Alajokoa, Martintxo! Nora hoie kanabera elegante horrekin? Kasu emazak, irris-tatu eta putzura erori gabe; gaur ur handia ekarki dik!». Amari erranen zioten ikusi nindutela, eta hase-rretuko zen, «Haur zoldazu hori!», eta igual nire bila aita bidali ere bai, baina ni, batere preokupaziorik gabe, nire buruarentzat erdi kantari joaki nintzen, txu-kutxukutxukutxukutxu... piiiiiiiiiii!, aspaldiko ferroka-

rrila banintz bezala, itsasora bidean harro-harro zihoban ibaiari begira.

Mutuaren moto zuria kusi nuen bide bazterrean. Hain zuzen ere nik arrantza egin gogo nuen lekura joateko abiatzen zen xendaren ondoan. Aitzinera segitzea pentsatu nuen, ez bainuen harekin topo egin nahi. Baina orduantxe agertu zen bidexka hartatik goiti lasterka, beti bezala oihu-garrasika. Izutu nintzen. Ondora etorri eta eskutik tira egin zidan zakar. Joateko harekin beheiti, joateko harekin beheiti! Hargitz nerbioso zegoen. Zerbait erran nahi zidan, eta nik ez konprenitzen zer ote zuen. Begiak eta ahoa ixten zituen, zerbait esplikatu nahizik. Baina ez entenditzen nik. Erdi arrastaka eraman ninduen ur izkinaraino. Kaka egina nengoen, baina ez nuen deus egiten ahal.

Presaren gaineko parajea zen. Han bazen xoko polit bat arrantzan aritzeko, Xarboxulo erraten geniona. Beti izaten zen norbait. Hantxe zituen Mutuak bere tresna guziak. Baina ez zen hura erakutsi nahi zidana. Behatzarekin presako pareta seinalatu zidan. Hura us-tekabea! Hatsa kolpean gelditu zitzaidan. Kalanbre zarta bat kasko gainetik hanken zolaraino. Ibaia orroka heldu zen, indarrez betea, eta presako paretaren kontra, arbola adar batzuekin trabatua, gorputz hil bat

erdi ageri zen. Ezkerreko besoaren muturrean esku zuria, txaketa marroikara, eta aurpegialde ubeldu bat. Gainerakoa ur azpian. Mutuak bi eskuekin keinu egin zidan: lepo handia. Ez zen beharrezkoa, ni ere ohartua nintzen gorputz hura ezaguna nuela.

Joan beharko genuen agudo parte ematera. Orduantxe hasi zen Mutuaren kanabera dantzan. Biak begira gelditu ginen istant batez. Haria ezin tiranteago, ematen zuen txirrikak ez ziola kontuko. Zerbait hagitz indartsua artean harrapatua zegoen, eta tira egiten zuen amutik kanabera izugarri makurraraziz. Behin eta berriz tiraka, heriosuhar. Heriosuhar! Gu ere halaxe abiatu ginen ziztu bizian, arrantzari kasurik egin gabe, laguntza eske, Mutua gidari eta ni motoaren gibelesko tokian jarrita.

Gure etxera joan ginen zuzenean, eta nik neronek argitu behar izan nion amari ikusi genuena. Aita lasterka joan zen Pedro Lizaso alkate zaharraren zerrategira, parte ematera, eta ama telefonoz deika hasi zen batera eta bertzera. Segituan agertu ziren ondoko herriko guardia zibilak, eta don Paco medikua. Berako komisariako bi polizia eta osaba Anjel ere bai, hura herriko jueza baitzen orduan. Denak joan ziren guk erran genien tokira, baina niri ez zidaten joatera utzi. Mutua

joan zen haiekin, eta erotu zen erran ziotelako ez joateko ur bazterrera, gelditzeko trenbidean. Hantxe zegoen bere kanabera, ordea, eta bazekien zerbait handia harrapatua izanen zuela, izokin bat igual. Ez zuen aunitz falta izan eltzetzu bati matelezurreko bat jotzeko. Beharrik osaba Anjel han zegoen. Hari eskerrak, arrantzako gauzak hartu eta lasaitu zen. Izokinik ez zuen, ordea. Amua zerbaitekin trabatua izaki.

Arrantzazaina bakarrik bizi zen eliza ondoko etxetik batean. Kanpotik etorria zen gurera, hagitz aspaldi, Gipuzkoako herriren batetik. Ez zuen jendakirik Alkasoron, baina amak bazekien arreba bat Erreterian bizi zela eta saiatuko zen harekin solas egiteko manera bilatzera. «Ez genuen maite, baina nola utzi behar duzu horrela hila dagoen gizona! Norbaitek kasu egin beharko dio!» erran zion don Paco medikuari.

Gure etxeko dendara mandatuak egitera etorri ziren guziek ez zuten bertze konbertsaziorik, nola hil ote zen Alfredo. Maripaz seguru zen mozkortuta erori eta ito zela. Haren ondoko etxean bizi zen eta gauaz sumatu zuten leihotik oihuka, maldizioka, mundu guziaren kontra. Hala aritzen omen zen neurritz goiti edaten zuen egunetan.

Nolanahi ere, medikuak agindua eman zuen autopsia egin beharko zitzaioela, heriotzaren kausa argitzeko. Gorputzak bazituen kolpeen arrastoak, eta ezin zen jakin erori ondotik eginak ziren edo aitzinetik norbaitek zafratu eta putzura ez ote zuen bota. Behobiatik ambulanzia bat etorri zen, soldaduska egiten ari ziren bi mutiko gaxterekin, eta hantxe eraman zuten arrantzazaina Donostiako ospitalera. Gure etxe paretik pasatu zen, baina ezin izan nuen gorputza ikusi.

Hurrengo egunean Joxan anaiak aditu zuen Kasinon xanpaina edan zutela, berri ona zelebratzeko. Ez ziren, ordea, hor akabatu komeria guziak. Aste hartan berean guardia zibilak etxez etxe galdeka ibili ziren. Gurera ere bisita egin ziguten. Aitari eta amari galde-tu zieten deus ote zekiten, norbaitek gorroto berezia ote zion, edo jendearekin zer tratu klase zuen. Inork ez zien kontu argirik eman, eta etorri bezalatsu joan ziren bueltan. Hori uste genuen, behinik behin. Ordea, handik egun pare batera berriz ere agertu ziren euren automobiletan, eta bi gizon eraman zituzten kuartelera: Eugenio eta Fernando. Kasinoko nagusia gau osoa kontu zuten haiekin, baina biharamunean libre bueltatu zen herrira. Fernando berriz, kamioiarekin baserrietako esnea biltzen zuena, Iruñeko kartzelara eraman

zuten preso. Txoko hura ezaguna zuen, aitzineko urtean hiru hilabete pasatu zituelako hantxe berean, portugesak mugaren bertze aldera pasatzeagatik kondenaturik. Joxanek erran zidan arrantzazainak salaututa harrapatu bide zutela, eta, horregatik, orain uste zutela heriotza hau bengantzan egina izaten ahal zela. Dena dela, jendeak bazekien esneketaria Pedro Lizasorentzat aritzen zela gaueko lanean. Gure ostatuan neronek aditu nion Patziku autobuseko txoferrari: «Kokotsarentzat aritzen duk Fernando», izengoiti hori baitzuen Lizasok. Nork kargu hartu alkate frankistari, ordea? Horregatik edo, hilabetearen buruan Fernando ere Alkasoron zen, «por falta de pruebas». Amari aditu nion segur aski Maripazek arrazoia izanen zuela. Feliziano eroak ederki disfrutatu zuen espektakuluarekin, «Alkasoro, herri peligrosoa!», eta ajarika hasten zen. Horrelaxe gelditu zen istorioa, misterioa argitu gabe.

Handik aitzinera arrantzara elkarrekin joaten hasi ginen Agus eta biok, Agustin izena baitzuen mutuak. Bila etortzen zitzaidan, eta ni deseatzan, hura noiz agertuko esperoan. Ama, ordea, saiatu zen ni etxean

lotzera. Haur bat nintzela eta mutil harekin ez zela fi-
datzen, mutuak izanen baitzituen orduan hamasei-ha-
mazazpi bat urte, nik baino bospasei gehiago. Agustin
ohartu zen amak duda egiten zuela, eta serio-serio
erran zion hagitz maite ninduela, eskua bihotzaren pa-
rean, eta zainduko ninduela, behatz zuzena begira.
Amarentzat ez aski hori, aitak sartu behar izan zuen,
«Utziozu joatera, emakumea! Ezin du solas egin,
baina mutil ona da! Kasu eginen dio mutikoari!». Ha-
laxe etorri zen baimena.

Egun zoragarriak pasatu genituen. Motoan batera
eta bertzera eraman ninduen, ni sekula egon gabeko
tokietara, bere txoko sekretuetara. Erakutsi zidan
luma dantzatzen ur gainean, eta kutxarilla zuzen-
zuzen ekartzen ur azpitik. Amari agudo uxatu zitzaiz-
kion zalantzak, aldiro-aldiro zer jenero ona ekartzen
genion ikusirik. Ez zen inoiz gure etxean halako amua-
rrain goxorik jan. Joxanek ere gurekin etorri nahi zuen,
baina ezin hirurak motoan! Gainera, ni ere pixka bat
harrotu nintzen, ez nuen nire pribilegio hura galdu
nahi, eta aitzakiak paratzen nituen anaia aparte uzte-
ko.

Igande batean, goizean goiz, Sunbillako zubiraino
joan ginen trenbide zaharrear barna. Hantxe, zubia

baino pixka bat beheitixeago, haltz batzuen azpian jarri ginen, eta, arrantzako gauzak prestatzen ari ginearik, emakume xahar bat ikusi genuen zubi gainean. Berak usteko zuen inor ez zela ingurumen hartan, gutaz ez baitzen ohartu, eta, bolantza harturik, zaku bat harrika bota zuen putzura. Ibai erdira bota beharrean, bazter batera erori zen, gure ondo-ondoan. Biok elkarri begira gelditu ginen, harriturik. Zakuak bazuen karga zerbait barrenean, baina ur ttikiak bere bizkarrean eramaten zuen, ezarian-ezarian, azpira irentsi gabe. Hori nahikoa iruditu eta atsoak alde egin zuen. Nire laguna uretara sartu zen, oinetakoak erantzi eta galtzak belaunetaraino bildurik, eta pakete bustia idorrera ekarri zuen. Lau xakurkume ziren, jaio berriak, eta bel-beltxa zen batek ez gainerako guzietan begiak itxiak zituzten eta ez ziren batere mugitzen. Agus huntitua zegoen, eta solasean hasi zitzaidan, ahal zuen bezala, oihuka, erdi saingaka, bera ere txakurra balitz bezala. Bat bizirik zegoela erran nahi zidan! Nik ere ikusten nuen, begiak doi-doi irekiak zituen, eta daldaraka zegoen hotzagatik.

Bere jertsea di-da kendu eta nolabait ere paratu zuen oraindik hutsik genuen arrantzako saskian, kamaina goxo bat egiteko. Hantxe utzi zuen bizirik zego-

en xakurttoa. Bertze hirurak, euren zaku hartan be-
rean, indarrez bueltatu zituen uretara, orain bai putzu
erdiraino. Arratoientzat bazka!

Mutua espantuka hasi zitzaidan ero moduan. Kasu
egitea nahi zuen. Bazekiela nora eraman xakur ttikia.
Bazekiela! Hori entenditu nion behinik behin. Ekarri
genituen gauza guziak presaka bildu eta aitaren ordu-
ko moto gainean ginen berriz ere. Nik besotan hartu
nuen saskia, kontu handiarekin, beldurka, ziztu hartan
ez ote zitzaidan lurrera eroriko.

Geltoki zaharra alde batera utzi eta goiti abiatu
zen pista batean barna, Harrintzo aldera, Tturkoenera
ailegatu arte. Ezagutzen nituen baserri hartakoak, eta
haiek ni ere bai. Dozena erdi bat zakurrek ongiatorria
eman ziguten, harrotuak, motoaren inguruan sainga
eta salto. Kanpoan harrapatu genuen etxekoandrea,
Xole, oiloz inguratua. «Bisita dugu!», erran zigun bere
aurpegi gozoarekin. «Horra nor dugun hemen! Onbre,
Agustin, zer duk oraingoan? Zer heldu zarete, holako
aurpegiarekin? Hau ez da arrantzan aritzeko tokia!».
Mutuak saskia ireki eta barrenean ekarki genuena era-
kutsi zion. «Non harrapatu duzue? Honek ama non
du?», galdetu zigun serio. Neronek eman nion kontes-
ta, ez genekiela, baina putzuan itotzetik libratu ge-

nuela justu-justuan. «Eta nik zer nahi duzue egitea?», emakumeak besoak gurutzatu zituen bularraren kontra, niri begira. Nik, neure baitan, emakume hau kapaz ote da guri ez laguntzeko? Gero, mutuari begi batekin keinu egin zion, «Tturkoenean pobreak gaituk, biño duguna beti emateko prest, e!». Xakurra ezin amultsuago hartu zuen bere atzapar latzekin, eta etxeko heilara sartu zen. Ondotik segitu genion bihotza kolpeka.

Goitiko bizitzara eramaten zuten eskaileren azpian gelditu zen. «Lixta, begira ze ekarri dizuten! Zuk lehendik battuzu lau, biño hau ez dugu honela uzten ahal! Honentzat ere izanen duzu esne pixko bat, ez?». Hantxe etzinda zegoen zakurrak burua altxatu zuen, bere tokitik mugitu gabe. Umatu berria zen, eta guk ekarri genuenaren tamainako lau ume lotuak zituen titietara. Emakumea makurtu eta muturrean paratu zion guk ekarria. Lixtak usain egin eta mingainaz gorputz osoa garbitu zion, ttikiak daldaraka negar-marraxka bat egiten zuen bitartean. Gero bere postura doi bat aldatu zuen, etorri berriari tokia egiteko bezala, eta Xolek gure xakur beltza titi baten ondoan utzi zuen. Etxekoandreak pixka bat zirikatu zuen, eta noiz-bait ere burua mugitzen hasi zen bilaka! Titiburu bat

paratu zion muturraren parean eta, behin eta berriz saiaturik, hondarreko, ahoa ireki eta handik tiraka hasi zen! Hura poza guk! Hirurak dantzan hasi ginen!

«Ez dago kuidadorik! Hemen salbu da. Etorri ikustera, nahi duzuelarik!», erran zigun Xolek despeditzean.

Berriz ere Urrabia aldera abiatu ginen, arrantzan aritzeko lehen baino gogo handiagoarekin. Bat-batean ohartu nintzen saltsa harengatik eta karrobideko zuloengatik zizareen potoa galdua genuela, eta Agustini gelditzeko erran nion. Esplikatu nion zer problema genuen. Arrainak tentatzeko bazkarik gabe ezin deus egin. Haren etxera joan beharko genuen, gehiago eske.

Fermin ikusi genuen bidean, eta gelditzeko keinua egin zigun. Agustinek ez zion kasu egin gogo, baina bide erdira sartu zitzaigun motoa geldiarazteko. Kolpean frenatu behar izan genuen, eta iatsu lurrera erori nintzen. Astapittoa, alaen astapittoa! Mutua oihuka hasi zitzaion, ea erotu ote zen, behatza kopetaren ondoan. Bertzea irri gaiztoz hasi zen, beti bezala, «Lasai, motel! Erakutsi nahi diat ze harrapatu dudan!». Saski

barreanean, aingira izugarri bat zuen. «Ikusi, ikusi! Eta ikasi!». Agusek kontesta polita eman zion bere mane-
ra berezian, «Kaka zaharra!». Ederki entenditu ge-
nion. Gero, baietz guk horrelako lau atera, desafioa
egin zion, esku bateko lau behatzak erakutsita eta niri
begira. Harrotxoa isildu zen. Bazekien mutua arran-
tzale gogorra zela.

Zizare bila joaki ginela erran genionean, berak ez
zuela aitzurra ibili beharrik izaten aipatu zigun. «Ba-
diat bertze sistema bat, hori biño hagitzez hobea!».
Bere potoa erakutsi zigun, goitiraino mukuru betea.
«Minutu batean!», segitu zuen harrokerian. Esplikatu
zigun nola: argiaren kable bat lurrean sartu eta inda-
rra eman. «Ikusiko duk nola ateratzen diren saltoka!».
Harritzekoa, baina behin bederen borondate ona era-
kusten ari zen hain gutti maite genuen mutila, lagun-
tzeko gogoia.

Herriko Etxeko plazan bizi zen Mutua. Ez nintzen
egundaino haren etxe barrenera sartu, baina beldurrik
gabe pasatzeko keinua egin zidan. Etxea hutsik zego-
en. Ama mandatuak egitera joana izanen zen. Etxea-
ren gibeleda aldeko baratzean bazuten etxola koxkor
bat, eta han denetik zuten, baina gehienbat traste za-
harrak eta lan egiteko tresnak. Argia ere bai, eta en-

txufe erdi hautsi bat. Bilaka ibili ondotik, azkenean kable horitu bat harrapatu genuen. Hiruzpalau metro izanen zituen aisa. Behar genuenerako nahikoa.

Niri poto huts bat eman eta baztertzeko agindu zidan, gelditzeko etxola barrenean. Kablearen mutur bateko bi hariak entxufean sartu ondotik baratzer atera zen. Egokia iruditu zitzaion tokira ailegatzean, kablearen bertze muturreko biekin lurra ukitu zuen. Garrasi ikaragarri bat atera zitzaion zintzurretik eta lurrera erori zen kablea eskuan, gorputz osoa daldara batek joa. Bi aldiz pentsatu gabe, kabletik tira eginda bi hariak entxufetik atera nituen. Agustin hagitz gaizki ikusi nuen, lurrian, mugitu ezinik. Ez zuen hatsa normal hartzen. Plazara atera eta lehenbiziko ikusi nuen mutil batengana lasterka joan nintzen auxilioka. Xiburu deitzen zioten gazte bat zen, Kasinoan apopilo bizi zena. Berehala, mutua bizkarrean harturik medikuaren etxera eraman zuen. Haren ondotik ni, ikaratu.

Ez zen sekula hainbertze okertu Fermin zitalaren kanabera. Plastikozko haria ere puskatu hurran jarri zitzaion. Markako pieza harrapatua zuen aldi hartan. Guk ausiki egin haren amuari!

VERONIQUE

Toki arriskutsua da Alkasoro. Herriko etxe guziak al-dapa batean daude, Maldarrune mendiaren magalean. Goitieneko puntan, eliza, dena menean hartzen duela. Eliz atariko arkupetik harrizko berrogeita hamabi eskailera-maila jautsita, Plaza Nagusia, Herriko Etxearen, Rusoaren ostatuaren eta hiru haritz zaharren artean. Handik beheiti dena malda, eta hor, ezker-eskuin, etxeak, bakarka edo multzoka, ibaiaren arrimuan luzatzen den trenbide zaharreraino. Bedera-tzehun eta hogeit metro, eta tarte horretan hamabi errebueta. Erdialdean, Eskola Ttikia, neska-mutiko guziok batxilerra estudiantzera edo lanera joateko adinera bitarte egunero bisititzen genuen tokia, eta herriko frontoia, eskolaren beraren pareta!

Inoiz lurrikararik izanez gero edo erraldoiren bat mendia dardaratzen hasten balitz, dena amilka erriko litzateke, Urrabiaraino, gure putzu koxkorreraino. Ibaian hasten baita herria, edo akabatzen, nondik begiratzen den. Eta haren gainean harrizko zubi zaharra, igeri ez dakitenek ihes egiteko modua izateko.

Nolanahi den, huraxe zen gure mundua. Nahikoa terreno zernahitarako! Bizikleta gainean goiti eta beheiti ibiltzeko, konparazio batera. Gazte sasoikoak nahiz haur zoldazuak, bakoitza bere burdina puska hankartean, eginahalak egiten. Karrerako bizikleta bakarra zegoen, eta Juanito zuen jabea. Haren kontra ez zen deus egiten ahal, baina saiatzen ginen gogotik. Adineko jendeak izuturik begiratzen zigun, ezbeharraren noiz gertatuko gure *tour* partikular haietan. Arrazoirik ez zuten falta. Makina bat merkromina poto gastatu zuten gure gurasoek afizio haren kontura.

Gainerakoan, ez zen zirkulazio handirik izaten. Esne biltzen edo jenero partitzen ibiltzen ziren kamioiak (horien artean gure aitak zuen muturluze hura), baserritarren karroak eta, guri gehien inportatutako zitzaizkigunak, moto azkarrak. Baziren dozena bat bederen herrian. Haien eztula aditze hutsarekin jakiten genuen guk zein heldu zen: Ossa, Montesa, Bultaco edo Guzzi xaharra.

Oroitzen naiz udako arratsalde batean, siesta orduan, nola ginen lagunak erdi aspertuak eskolako sarrerako eskaileretan jarrita. Halako batean, soinu bat sumatu genuen plaza aldetik hurbiltzen, ttor-ttor-ttor.

- Jabier Oilartegiren Bultacoa! -nik inork deus erran baino lehenago.

- Ez! Hori Ossa duk! Joxe Perrexilena! -Arraitzek segituan.

Hark beti kontra egin behar niri! Gainera, hori aski ez eta, beti bezala, apustu egin zidan.

- Zer nahi duk jokatu?

- 100.000 pezeta! -handi samarra bota behar nik, ea hala isilarazten nuen; amorrazioa ematen zidan kaskagor hark beti arrazoa izatea.

- Eduki! -hark, musean bezala.

Akabo ni!

Hitzik gabe gelditu ginen bideari begira, nor agertuko zain. Perrexil agertu zelarik, zutitu eta lasterka abiatu nintzen ziztu bizian etxe aldera. Arraitz aluxka hark jakinki Jabier ezin zela izan, fabrikan hasia zela! Nik ez! Urrundik ere aski garbi aditzen nituen kontrarioaren oihuak, pagatzen ez banion bi beharri ondoko eman eta xehatuko ninduela. Ni baino indartsuagoa baitzen, badaezpada ere ospa egin nuen.

Etxera sartu nintzen, ikaraturik, non gorde ez nekiela. Kaka egina eta, gainera, gertatua ezin inori kontatu, han ere kobratu nahi ez banuen. «Ederra egin duk, demonio ergela!» erraten nion nire buruari. Xari

gure xakurra nirekin hartu eta kanpoko almazenera joan nintzen, inori deus erran gabe. Hantxe xoko batean sartu ginen biak. Gari-zahiz, azukrez, artoz, ilarrez edo bakailao gazitu idorrez beteriko zakuen ondoran.

Gurea Zubiko Benta baitzen. Lehengo nagusia modu ez sobera garbian hil ondotik (gizon zitela zela eta andreak berak hil ote zuen zabaldu zen) gure familiak hartu zuen. Denetik saldu eta denetarako balio zuen. Sartu eta eskuin aldera mostradore bat zuen, eta hor jendea behar zuen guziez hornitzen zen: ogia, kafea, iltzeak, botoiak, olioia, botikak, azukrea, penttua, kateak, janari-potoak, abarkak, espartinak, sardina zaharrak... Ezkerraldean, berriz, zurruterako lekua. Hantxe zerbitzatzen ziren goizean goizeko patar kopak, arratsalde-ilunabarreko ardo txikitoak eta igande eguerdiko bermutak, ttanttarekin, jakina. Eta hantxe berean jokutzen ziren mus partida beroak, hantxe egiten herritarren bilerak, *pajina* erraten zitzaien auzolana edo beheitiko auzoko bestak antolatzeko-eta, hantxe prestatzen afari bereziak etxe bazuetako arto-zuritze lanean juntatzen zirenentzat...

Lorentxo bere bizikletan agertu zen ilunabarrean. Baserrian lan handixkoenak egin ondotik, eguneroko bueltaxka behar izaten zuen, lurra ura bezala. Kontent ematen zuen. Rusoarenean txikito bat, Kasinoan bigarrena, Estazioan bertze bat eta, orain, gurea ez zuen huts egin gogo. Hantxe errematea, eta etxera, falta zituenak egitera, ohatzera baino lehen.

Ostatura sartzen ari zela, moto bat ailegatu zen. Bultaco berri bat zen, haren anaia Jabierrena. Beratik heldu zen, andregaiia kortejatzetik. Fabrikako lanaldia akabatzen zuenean, etxera joaten zen, arropa aldatzera, gero Maddalenengana, harekin gizongaiaren obligazioetan kunplitzera, eta berriz ere etxe aldera pare bat tokitan zintzurra bustita. Gure Bentan hartzen zuen azkena jeneralean.

Feliziano eroa lehenago etorria zen. Gure aita sukaldetik ateratzen ikusi, eta tentatzen hasi zitzaion, «Ramon! Ekarri ardoa eta ixilik egon!». Beti gitarra jotzen hura! Baina jendeak ezagutzen zuen, eta harritzekoa zen inor harekin haserretzea. Aitak bertze lan batzuk egin behar zituen, ordea. «Edan nahi duk? Badakik zer egin: horrerri galdetu!» erran, eta kanpora atera zen zigarroa ezpainean. Gero ondoko bulego tti-

kira sartuko zen, bonbilla kaxkar baten argitan egune-ko kontuak egitera.

Mostradorearen barreneko aldean neska eder bat basoak garbitzen ari zen harraskan. Burua altxatu eta nagusiari tiroa bota zion begiz, ateko kristala puska-tzeko arriskuarekin. Sorbaldatik sukaldeko trapua hartu zuen, eskuak igurzteko.

«Ai, Veronique!». Ezin izan zuen eskea akabatu. «Sosik ez bada, ardorik ere ez!», zakar itxuran zerbitzariak. Bertze umore klase bat zuen. Hala ere, ardoa botilatik basora gero. «Ai, Veronique! Bero nik!», Felizianok, eta besoa luzatuz atzaparrak neskarengana. «Bero? Hortxe duk Urrabia! Edo sartzak horma puska batean!». Halaxe egunero, zernahi erraten zion, eta alde egiten zuen sukaldera, hango gerizara, ostatuko jende guzia irri ajarika utzirik.

Ixabel zuen izena, baina Veronique nahi izaten zuen deitzea. Miarritzeko etxe batean neskato aritu baitzen urte pare batez. Bertze mundu batzuk zituen amets. Ezagun zuen. Gona motzagatik ere bai. Hala-korik ez inon Seierrietan. Izter ikaragarriak zituen.

Haragizko enbor haien neurria zenbat ote zen? Ordu pare bat eramaki zuen Urbanok kalkuluak egingen. Goizean bota zituen pinu ederrenekin konparatzen. Ehun eta hogeita minutu zurrutean Txapasekin. Kamioiaren kabinan kolpe ederra hartua zuen harritzar batekin mendian. Atea ezin zuen ongi itxi, eta txapistari bisita egin behar nahitaez. Pegasoa taileurrean utzirik, ostatura etorriak ziren biak tratu egitera.

Oilartegiko Lorentxok aulki luzea izaten zuen gordea beretzat. Hantxe, isil-isilik zuri-beltzeko telebisioari begira. Anaia aparte, zutik, ukondoa marmol gainean, begi bat leiho magikoari, bertzea Veroniqueri. Hura ere mutu.

«Ateri botila bat xanpain!», Txapasek orroa egin zuen. «Xanpaina edan behar diguk?», Urbanok. «Bai! Gosetu nauk!». Horrelako burubide xelebreak ibiltzen zituen txapa-konpontzaileak. Gainerako bezeroek zeharka begiratu zioten, ero ernea ondora hurbildu, gure amak sukaldeko atetik burua agertu.

Veroniquek Codorniu botila bat atera zuen hozkailu berritik. Txapasek laneko buzoaren sakelan eskua sartu, eta billete multzo bat utzi zuen marmolaren gainean, «Zenbat behar duzu?» galdetzen zuela. «Zuretzat bada, berrehun pezeta», toreatu zuen neskak.

«Fuerte habila!», Urbanok diru-paper zimurtuak ikusirik. «Mila pezeta ere pagatu izan diat nik botila xanpainarengatik!», harro, txapistak. Arbola botatzaile zaharrak goiti egin zituen begi txiolduen gaineko ile zerrendak, eta behatzekin beharriko gerezia ukitu zuen. Erran nahi zuena buruan antolatu beharko zuen, ahoa ireki baino lehen. Bi gizonak kostata egiten zuten solas. Zutik egoteko ere nahiko lan. «Serbizio osoa izanen zuan, ez? Konpletoa?» galdetu zuen noizbait ere. Txapa-konpontzaileak buruarekin baietz, «Irunen!». Urre koloreko edariari begiratu zioten biek, zaharrenaren buruko mekanikak kontuak egiten segitzen zuten bitartean, «Halere, ez zaik garestixko iruditzen?». Zerbitzaria gure amarengana joan zen, irriari kontu ezinik.

Orduan sartu zen gure aita. Pixa egin izanen zuen Urrabiari begira, hontz gazteren baten ulua aditu bide-nabar. Zeharka begiratu zien mostradorearen kontra zeudenei. Ez zuen konbertsaziorako gogo handirik. As-telegun gorria izanagatik, bistan zen batzuei kostako zitzauela kanpoko atea gurutzatzea.

Noizbait ere, «Erretira beharko diguk!» erran zion Urbanok adiskideari erlojuari begira baina ordurik ikusi gabe. Ez zen bertze inor gelditzen ostatu barre-

nean eta aitak erdi-bulkaka bidali zituen. Gainerakoak aspaldixko joanak ziren. Baita eguneroko bezero fideleak ere, Oilartegiko bi anaiak. Jabierrek Ducados pakete bat eskatu zion Veroniqueri adio erran baino lehen. Anaia Lorentxok ere agudo, hondarreko xurru-pa edan, eta pezeta batzuk utzi zituen marmol gainean, «Bakotxari berea!», eta etxera martxa. «Merci» ateratzen zitzaion neskari.

Alemanen Bentan jaioa zen Veronique, lehenago Xixariren Benta erraten omen zitzaion hartan, Larun mendiaren magalean. Toki famatua, mundu guziak ezagutzen baitzuen jabea, Urruñako Catherine! Gazterik gelditu zen senarrik gabe, eta hiru alaba hazi behar izan zituen, ez ama bezain ederrak, baina haren jenio bera zutenak. Veronique zen gazteena, gorputzez bertze biak ez bezalakoa, handiagoa eta zabalagoa. Ile horia eta begi urdinak zituen. Ama alargundu eta handik hiru urtera jaioa, *Alemana* jarri zioten izengoitia, baina hori aditu hutsarekin sutan jartzen zen bera. Zer kulpa zuen berak jaiotetxea soldadu nazien mozkortegia izan bazen Bigarren Mundu Gerran!

Udazken hartan, uso sasoia hasi eta agudo, ilunabar batean, Oilartegiko Jabierrek parrokiano guziei bertze erronda bat ateratzeko eskatu zuen harroharro, «Tragoa denentzat! Nere kontura!». Gero erran zuenarekin ez nintzen sobera harritu. Inori kontatu gabea ikusia nuen hamabortz egun lehenago. Ama Donostiara joana zen autobusean, itsasoa ere ikusi behar izaten baitzuen hilabetean behin bederen, eta aita herrian barna zebilen, etxeko kamioi zaharrarekin edari partitzen, anaia Joxantoniorekin. Nitaz ez ziren oroitzen eta usteko zuten inork ez zituela ikusiko. Deskuido koxkorra. Kanpoko almazenean nengoen ni orduan ere, gustukoa nuen gordelekuan *kuento* bat irakurtzen. Nire xokotik zelataka ikusi nituen, eurek niri begirik eman gabe. Oroitzen naiz gauza zakarra iruditu zitzaidala. Jabier gainean zen, bulkaka, galtzak beheiti eta ipurdia bistan, eta Verok bere izter ederrekin gizona gerritik lotzen zuen. Haiek izter puskak!

Noiztik hasiak ote ziren elkar ikusten? Noiz izan ote zuten estreinakoa? Nitaz aparte, bertze inork ote zekien deus?

Jabierrek berak eman zuen berria egun hartan. Gure ostatua jendez betea zegoen, dudarik gabe besta bezpera zelako edo.

- Tragoa denentzat! Nere kontura! Serbitzaile berria beharko duzu, Karmen! -gure amari.

Amak harriturik begiratu zion, eta neskatoari gero. Veronique lasterka joan zen sukaldera.

- Hilabete baten buruan, boda! Akabo mutilzahararren bizimodua! Esposatu behar dugu!

Aita mostradorearen gibelesko aldera sartu zen.

- Hi gure neskarekin? Ez huken andregaia Beran? -galdetu zion, serio samar.

- Hura finitu zen! Haizea kanbiatu da, fiu-fiu! -eta irriz hasi zen.

Gure zaharra trapua pasatzen hasi zen, Jabierren solasak marmol gainean arrasto zikinen bat utzi balute bezala. Jendearen marmarra aditzen zen.

- Tragoa denentzat! Nere kontura! -erran zuen berri.

- Nahi duk nik toberak jotzea? -Feliziano ere ez zen falta arratsalde hartan.

- Toberak jo, hik! Neronek joko haut buruan isiltzen ez bahaiz! -eta orduan bezero gehiago irrika berarekin.

Aitak baso ilara luze bat paratu zuen mostradore gainean eta ardoa isurtzen hasi zen.

Gizon gehienek inbidiaz begiratzen zioten Oilar gazteari. Eta berak ere ezin poza disimulatu. Hainbertzek desio zutena hark harrapatu! Hamar kiloko izokina! Marka handia, inondik ere!

Inazio bertsotan hasi zitzaion: «Gure Jabier, hau duk gizona! Apuntatu eta tiro! Ta honen kontra saiatzea ere... ez du sobera balio!», eta hor gelditu zen, bertso osoa egiteko gauza ez izaki. Arropan ezagun zuen Wyomingetik etorri berria zela: bakero galtza bereziak, atorra koadroduna... Txoraturik zegoen, kontent, paraje haietan artzain halako bakardadea pasatu, eta orain berriz ere aspaldiko lagunen artean. Hark ere bi ttantta edanak zituen, eta jendeak kasu egitea nahi zuen. «Badakizue zer ikusi dutan han?» airean utzi zuen galdemodua, eta segituan, bi eskuekin hanka tartekoa hartuz bezala, «Gran Canyon!», eta denak irriz lehertu.

Haurren gisara harroturik zeuden denak, eta inor ez zen ohartu ere egin Lorentxo kanpora atera zelarik deus erran gabe. Niri arraroa iruditu, eta ondotik segitua nion. Ordukoz ilun zegoen. Gure Bentaren paretako bonbillak etxearen aitzinaldea argitzen zuen. Hantxe zegoen anaia zaharra, serio-serio, Jabierren motoaren gainean! Harritu nintzen, beti bere bizikletan ikusia

bainuen. Bultacoa arrankatzeko pedalaria eman zion indarrez eta ia-ia lurrera erori zen, motoa eta guzi, motorraren lehenbiziko trumoiarekin. Soinua aditzean, Jabier bera agertu zen lehenbizikoa ostatuko atletik. «Zer egin behar duk? Utz ezak moto hori segituan!», erran zion anaiari oihuka. Haren gibeletik gure aitak eta zurrutean ari ziren gainerakoek ere ikusi nahi zuten zer gertatzen ari zen. Veroniquek eta amak ere bai. «Mekauendiooos!!!», garrasi izugarria egin zuen Lorentxok azeleradoreari ahal zuen guzia emanda. Esker-eskuin ziraldoka abiatu zen, gure etxeko parreta justu-justuan libratuz. Gero, motoa zuzendu eta tximista bezala urrundu zen.

Hurrengo eguna argitzearekin harrapatu zuten gijazjoa, Sarako bidean, Lizuniagatik hurbil. Erdi hila, hagitz itxura itsusiarekin. Nonbait, bidetik atera eta erre-kazulo batera erori zen metalezko zaldiarekin, 10 metro beheiti, arbola batzuen kontra. Sekulako kolpea! Gau osoa eman zuen bertan inork ikusi gabe! Erortzean, kopetan kanka jo eta konturik gabe gelditu zen, baina hagitz postura txarrean, sudur-ezpainek makinaren ke zuloa ukitzen zutela. Motoaren aitzineko gurpila arrunt okertua zegoen eta eskutokia puskatu-rik, baina motorrak martxan segitzen zuen isildu

gabe, ttor-ttor-ttor ezulka, ke erregarria Oilartegiko
seme zaharrenaren aurpegira botatzen.

ALKASOROKO KONDEA

Amak ilea moztera bidali ninduen. Komunio solemnea egin behar nuen hurrengo igandean eta ilea soberra luzea omen nuen. Ez zidan inolako graziarik egiten zeremonia xelege hura pasatu beharrak. Maritxu jostunak galtza berriak egin behar zizkidan. Galtza moztzak! «Hau mutiko ederra! A, ze aztalak!», erraten zuen emakumeak, esku bateko behatzen artean orratza eta bertzeko batean titarea, sudurren puntaren gainean zituen luneten ginetik begiratu. «Nahi duzu pastela jan? Gaur bertan eginak ditut!». Nola erran ezetz? Bekatua zen Maritxuren pastelak ez jatea! Amarenak bezain onak, edo hortxe-hortxe. Berriz ere eder egonen nintzen ni! Irri eginen zidaten eskolan gimnasiako klasean, apezak ekarri zituen aparatu berri haien ginetik salto egiteko gauza ez nintzelako. Eta jaunartze handiaren teatro egunean ere bai!

Konderen pelukeriara joan nintzen. Bi hankako eta lau hankako astoei ilea mozten zien munduko pelukero bakarra. Bidasoalde osoan ibiltzen zen azienda horiei gorputzeko karga arintzen. «Ez duk diferentzia handirik, arima salbu!», erraten zidan ero begi haiekin

nireetara begira. Harenera bidaltzen ninduen beti amak, nahiz eta gizonak haize puska izan, tturkotarrekin harreman berezia genuelako.

Ez nintzen harritu oihuka ari zela ikusi nuelarik. Beti izaten baitzuen zerbait gizon hark! Noren kontra ari ere ez zion batere inporta, Franco edo Aita Santua izan hura ez zen isilduko. Eta parrokiakoaren tokian jarrita egotea arrunt beldurgarria izaten zen batzuetan. Aulki elektrikoan bezalaxe. Egun hartan, maldizioa ari zen bitartean, bizarnabala Xankailoren lepoan zuen. Gizonaren posturan, nork erran hari deus ere?

Baina ortzirale hartan koleratua egoteko egiazko arrazoia zuen. Sekulakoak erraten ari zen Etxandieneko amerikanoaren kontra. Ile-moztailearen familia maizter bizi zen etxea bota nahi zuen aberats berriak. Berako harrobiko nagusiarekin sozio jarria zen, eta Tturkoenea suntsitzeko plana egina zuten, paraje hartatik harria atera gogo zutelako. Canteras Etxandi S.A. Sartu dinamita ausarki eta dena xehatu eta porrokatu!

Etxearen jabeak azkeneko abisua zela erran zien, hilabete bat zuten handik alde egiteko. Nola zen posible! Bortzehun urte eginak zituzten tturkotarrek etxe hartan! Hori erraten zuen Kondek sutan. «Alkasoroko

etxerik nobleena suntsitu? Turkoen kuartela? Eta Aiuntamientoak hori ametitu! Ai redios!». Xankailoren aurpegia ikusi nuen ispilu handian. Bekainak goiti eginak zituen, erne. Zergatik gogoratu ote zitzaion bizarra moztera preziso egun hartan joatea?

«Erran amari piku-esnea emateko soil horretan!», oihu egin zidan gizonak kanpora ateratzen ari nintzelarik, ezkerreko beharriaren gainean bost durokoaren tamainako jaio-seinalea bainuen. Ilea motx-motx, etxera ailegatzean kanpoan gelditu nintzen, mendialdera begira. Erdi gaztelua iduri zuen etxetzarra ongi ikusten zen gurearen aitzineko aldetik, harro eta tente Harrintzo izeneko harmasa handi baten gainean. Harkaitz hark bazituen mila gordeleku, basa-konejuen bizitoki, ondoan bizi zen familiak sekula goserik ez patszeko. Gu ere ibiltzen ginen tarteka haiei segika. Haren beheitiko partean, berriz, errepide nagusira joateko gurdibidea hasten zen tokian, lamizulo bat bazen, eta, haren sarrera zaintzeko guardia bezala, in-txaurrondo eder bat ere bai, herri osoko joriena. Haiek ere probatuak nituela ezin ukatu, agudo salatuko nin-duen eskuetan iratsia gelditzen zen azal berdearen tortikak.

Igandeko meza nagusian jendez betea zegoen eliza. Komunio solemnea egin behar genuen dozena bat mutikok eta bertze horrenbertze neskatzak. Ez dakit justu zer erran nahi zuen komeria hark, baina apez jendeak itxura egin nahiko zuen, hamaika edo hamabi urterekin baginela gauza zer egiten ari ginen ohartzeko. Bortz urte lehenago lehenbiziko jaunartzea egin genuenean ez bezala.

Eta arrazoi zuten, zerbaitez konturatzeko adina genuen! Ohartu nintzen han bildu ginen gehienek elizako kontuekin interes handirik ez genuela egun hartan, hain zuzen ere. Han, gazte sail bat eskaparate batean geunden, gure herritarren ikusi-nahia asetzeko espres. Berriki haur zoldazu batzuk ginenak aldatzen ari ginen, eta ez ziguten begirik gaintetik kentzen. Ez nola geunden jauntziak eta orraztuak bakarrik! Nor zegoen gixonago, nor haurrago, nor gizendu zen, nor zen kankailu handia, zein hankaluzea, nori ateri zitzaion bixarra... Eta neskatan igualtsu, alde guzietatik neurtu zituzten. Planak ere egiten hasi izanen zen bat baino gehiago: «Horako hori etxekoz ez litzeke gaizki!».

Egia erran nire begientzat ere besta eguna izan zen hura. Ondoan genituen mari-pertxenta guziak kontenplazten poliki distraitu nintzen. Haietako bati eman nion begia bereziki. Bertzeak ez bezala zegoen jauntzia, abitu zuri luze bat eramaki zuen soinean, mojen gisara. Banekien Lourdes zuela izena, frantse-seko klase partikularrera elkarrekin joaten ginelako. Ordura arte ez nion erreparatu, baina ederra iruditu zitzaidan. Ni, berriz, beztimenda harekin inorentzat gus-tagarria ote nintzen? Galtza itsusi mortal haiek izter zuri gurietako odol-hari gorriak agerian uzten zituzten. Hotza egiten zuen!

Osaba Anjelek paga berezia eman zidan elizatik ateratzean. Huraxe nuen aitabitxi. Harekin hegaka joan nintzen pasteleriarra gainerako lagunekin, kontso-lamendu eske. Kremazko opil guziak saldu zituen egun hartan Paskualitak. Izeba Elenek emanen zidana elzteitsuan sartuko nuen, bestetarako altxatzeko.

Igandeetan ere egun osoan egoten zen irekia gure denda-ostatua, baina jendeak jeneralean bakean samar uzten gintuen bazkaltzeko tenorean. Ensaladi-lla rusa espeziala prestatu zigun egun hartan amak.

Ongi hornitua, behar zituen guziekin; maionesa mintz batek tapatzen zuen dena, eta haren gainetik piper gorri batzuk, apaingarri gisara. «Espainiako bandera!», erran zuen arrebak. Ez zigun sobera inporta Errusiakoa izanda ere. Zopa, nahi zuenarentzat, eta etxe-ko oilaskoa gero, labean errea. Ez zen sobrante handirik gelditu. Eta mahai azpiko gure lagunaren buztan luzearen dantza ere ikusgarria zen. Bati eta bertzeari eskean, polliki bildu zuen, koplarik kantatu beharrik izan gabe.

Ama eta aita Etxandieneko amerikanoaz aritu ziren. Nola etorria zen urrez kargaturiko ez dakit zenbat measaskirekin! Baina, hala ere, nolako diru-gosea zuen, nola paratu gogo zuen benta bat Ibardinen, nola hasia zen harrobiko nagusiarekin partzuer, nola erosiak zituzten lurrak harria ateratzeko, eta ea zer egin behar zuten tturkotarrek orain!

Kafea hartzeko orduan norbait sumatu genuen ate joka. Xole zen, Konderen emaztea. Sukalderaino sartu zen. «Pasa hadi, pasa hadi, kafea hartzen ari gaitun! Hik ere hartuko dun?», gure amak. «Bai, eta ateri ezan ttantta ere bai!», erran zion emakumeak aurpegia irriz betea. Orduan, amak kopa ttiki bat armairutik hartu eta anisetaz bete zuen, marra gorriraino. Pastel luxe

bat paratu zion gainean. «Zer besta duzue?», galdetu zuen. «To, komunio nagusia! Hobe duk etxeko ogi puska on bat, elizan ematen duten hori biño, alafede!», erran zuen niri begira, eta berriz ere irriz leher-tu emakumea. Aitak kopeta pixka bat belztu zuen. «Karmen, kasu ematen ahal dun, mutiko hau segituan hasiko zain alhatzen!», eta irria borbor, solas egiten zuen aldiro bezala.

Telefonoz deitzera etorria zen. Alaba zaharrenari deitu nahi zion, Pasaiara, harat esposatua baitzen. Amak eskatu zion konferentzia, eta telefonoa beharrian paratu ere bai, noizbait ere buruan paratu zuela jakinik, herriko telefono-zentraleko langileari hala ikusita. «Eskerrik asko, Karmen, eskerrik asko aunitz!». Eskua hartu zion amari, begietara begira eta amultsuki beti. Anaiak eta arreba kanpora joan ziren, eta aita siesta egitera, baina ni ostatuan gelditu nintzen, pilota txar batekin jostetan. Xolek oihuka egiten zuen telefonoz, alabak ez ziola ongi adituko uste zuelako. Erdi irriz erdi negarrez, amerikanoaren ultimatumaren berri eman zion. «Etxandieneko suge zital hori, alafede! Xinaurria izatera... hankapean kasatuko nuke!». Sakelatik painelua atera eta zintz egin zuen bizpahiru aldiz.

- Zer egin behar duzue? -galdetu zion amak.

- Joan! Aparte! Adios! -erantzun zion andreak, lehenbiziko aldiz irri murrizik ere gabe.

- Nora?

- Harrapatuko dinagu borda txarren bat nonbait ere!

Amak erran zion Beran etxe berri batzuk egin zituztela, *casas baratas*, eta ezagutzen zuela nork zuen hutsik, eta nahi bazuen berak galdetuko ziola. Zimurrez beteriko aurpegi beltzaraneko begi ttikiak istant batez biztu egin ziren.

- Uste dun utziko digutela? -ezin sinetsiz-. Ateri ezan berriz ere ttantta, eta hik ere edan ezan nerekin!

Iduri zuen ez zirela nitaz ohartu ere egiten, baina hantxe nintzen ni, dena ikusi eta aditzen, lurrean jarrita, bizkarra espartinen apalen kontra. Txin-txin eta xurrupegin zuten biek irrika gustura.

- Gizon filda hori ez gelditu Ameriketara, bere diuarekin eta harrokeria horrekin! -erran zion amak, hitzei indar berezia emanda.

- Badakin gauza bat, Karmen? -boza bajatu zuen-. Ez erran inori... biño horrek, bere urre guziarekin, bere urguilu ustel horrekin, ez din aurten Larun gaina zuri ikusiko! Ez, alafede! -eta orduan bere irri parrasta jo-

riena, gelditzen zitzaizkion hortzak agerian erakutsita. Anisetak diz-diz egiten zuen ezpainetan eta begietan.

Frantseseko klasean nerbioso geunden denak, Alkasoroko jende gehiena bezala. Ministro batek etorri behar zuen harrobia inauguratzera! Handik atera eta ziztu bizian joan nahi genuen hurbiletik ikustera. Baina irakaslea arrunt zorrotza zen eta ez zigun ordua baino lehen ateratzera aisa utziko. «Restez tranquilles, personne ne viendra avant six heures!». Eta gu bortzetan ateratzeko ginen. «Baduzue denbora azkar-ki oraindik!».

Neska-mutikoak elkarrekin joaten ginen, eta ni sekula baino xintxoago hasia nintzen urte hartan. Madame Sophie harriturik zegoen nirekin, etxean liburuxka marroiko *exercices* guziak egiten nituelako. «Très bien Martintxo! Je suis vraiment contente avec toi!». Ez nuen irrigarri gelditu nahi nesken aitzinean. Horra arrazoia. Nire ametsetako Lourdesek, ordea, denbora gehiena txorakerietan pasatzen zuen, ondoko lagunarekin kontu kontari. Eta ez zituen etxeko lanen erdiak egiten. Nola koleratzen zuen madame! «Si tu continues comme ça, je vais parler avec tes parents!».

Klasetik ateratzean, neskak eta mutikoak bereizi egin ginen, bakoitza bere aldetik. Gabika eta biok lasterka abiatu ginen, gure liburuak eta koadernoak besapean. Jende franko joaki zen gu bezalaxe espektakulua ikustera. Izeba ikusi nuen etxeko baratzean. Bazuten autobus zahar bat oilategi gisara ibiltzen zutena, eta maindire zuriekin tapatzen ari ziren. Alkatearen agindua, kanpotik heldu zen jendeak ez ikusteko. Itsuski egiten omen zuen! Espainiako bandera zintzilik ikusi nuen hiru etxetako balkoietan.

Kamio zabaletik Tturkoene ondora bitarteko gurdibidean lurra zabaltzen ibili ziren aitzineko egunetan, zola berdintzeko. Baina bezperan euria barra-barra egin zuen eta inoiz baino lohi gehiago iruditu zitzaidan. Konde kontent egonen zen, eta lurra behi kakaz betea izatera nahiago! Iltze punta zorrotzak bota nahi zituela erran zion gure amari, automobilen gurpilak zulatzeko. Hura kapaz!

Bortz eta erdietarako jende puska zegoen Harrintzo azpian. Etxekoandreak eta gure adineko neska-mutikoak gehienbat. Gizasemeren bat ere bai. Guardia zibilak ere hantxe zeuden, bi land-roverretan, zer gerta ere. Konejuak euren zuloetatik begira egonen ziren harriturik. Arraitz, Mateo eta Andres ere hantxe

ziren. Txorakeriatan ari ziren bertze batzuekin. Haiengana joan ginen.

Irrika ari ziren, ondoan Feliziano zegoelako. Gizon xelebrea zen hura, jendearekin toreogan aritzea gustatzen zitzaiona, baina maleziarik gabe, umore onez beti. Gure etxera sartu orduko niri oihuka hasten zen, «Martin, Martin, Martin zikin, hiru erregeren sorgin!». Aski zuen haren truke nik basoa ardoz betetzeko. Huraxe zen legea.

Normalean baino harrotuxeagoa zegoen egun hartan, ez jakin zergatik, ordea, ez baitzebilen haize hegorik, eta ilargi betea ere ez zen tokatzen. Zerbait sumatu izanen zuen airean, bertzeok bereizi ezin genuena. Guardia zibiletako pareja bat probatzen hasi zen, «¿Si digo *Gora Euzkadi* me llevarán a la cárcel? ¿A vivir a cuenta del Gobierno?». Eltzetzuek ez zioten begiratu ere egin eta kieto segitu zuten lerro bat zaintzen, handik aitzinera inor ez pasatzeko. Bertzelako guardak ere baziren, ordea, eta eguzkitako antiojoak zituen arrotz batek besotik lotu eta kanpora atera zuen. Gure Felizianori batere inporta ez, ordea, eta poliziak bulkaka ari zitzaizkiola jende guzia saludatzen segitzen zuen. Gu ere mugitu ginen, toki seguruagoa bilatzeko.

Andres arbola goiti igan zen, altueratik panorama osoa hobeki kontrolatzeko: «Hor dituk Lourdes, Begoña eta Mentxu! Eta begira non diren tturkotarrak!». Tturkoenean gurasoekin bizi ziren bi semeak eta alaba elkarrekin zeuden bazter batean. Konde eta Xole ez ziren ageri, ordea. Non ote ziren? Seguru ginen pelukeroak ustekabeko zerbait egingen zuela.

Harrobiko langile batzuk lanean ari ziren abaila, euren kaskoa buruan. Dinamita prestatzen ari zirela erran zigun Joxantoniok, ministroa etortzen zenean tiro batekin harrobia inauguratzeko. Martinjoxe txistularia ere hantxe zegoen, esperoan, Pedro Kokotsa alkatearen ondoan.

Halako batean automobil pare bat hurbiltzen ikusi genuen. Jendea baztertu zen, bidea uzteko, eta amerikanoaren automobil espantuzkoak lamizuloaren sarreraren ondoan bere lekua hartu zuen, iratze batzuk zanpatuta. Haren gibelean ministroaren Peugeot beltza gelditu zen. Etxandienekoarekin batera harrobiko sozia ere heldu zen, eta ministroarekin, berriz, militar bat eta bertze bi gizaseme, trajez jauntziak, Diputaziokoak izan behar zutenak.

Txistularia soinua jotzen hasi zen, eta aldi berean jende gehiena esku-joka ministroari ongi etorri errate-

ko. Ez zitzaidan iruditu batere kara onik zuenik. Zerbaitek inkomodatzen zuela iduri zuen. Ondoko emakume batek erran zuen pixagaleak egonen zela, eta denak lehertu ginen. Arestiko polizia berak zeharka begiratu zigun eta isildu egin ginen badaezpada ere.

Alkateak eta diputaziokoek paper batzuk atera eta denek zerbait eskribitu zuten haietako batean, automobilen kapoten gainean. Gero eskua eman zioten elkarri. Orduan harrobiko nagusiak keinu egin zion langile bati, eta gizona pistan barna abiatu zen, Tturkoe-ne aldera.

Istanteko ke-laino bat ikusi genuen erreka zokoan, eta iatsu aldi berean tiro handi bat aditu zen. Ehun eskopetak batera egin balute bezala. Jendea pixka bat izutu zen, eta ministroa bera ere bai. Amerikano astazakila eztulka hasi zen, aurpegia gorri, Madrildik eta Iruñetik etorri ziren jauntxoek hartu zuten ikareria ikusirik. Han barna suelto zebilen zakur batek ziztu bizian alde egin zuen, auriaka.

Aldi berean, harkaitz hartako zoko batetik bi koneju atera ziren lasterka. Eskapo joan nahi zuten, dudarik gabe, baina bat-batean jende guzia ikusi eta ezkerredera jo zuten eroturik, automobilak ziren aldera. Etxandieneko aberats berriak besoak zabaldu eta

handiena beharrietatik hartu zuen bere atzapartzarrekin. Egin zuen azainarengatik harroago, jende guziari erakuska hasi zen. Hor deskuidatu zen, animaliak gibelego bi hankak goiti egin eta besoan sekulako marrakoa egin baitzion. Gizonak oihu egin zuen, «Urde alua!», eta bertze eskuarekin zapia bilatu zuen galtzetako sakelan, zauritik ateratzen hasi zitzaion odola garbitzeko. Bitartean, animaliak ihes egiteko aprobe-txatu zuen. Lamizulora sartu ziren biak. Guardia zibil batek tiro egiteko keinua egin zuen, baina lagunak segituan geldiarazi zuen. Beharrik! Jende guzia marmarka hasi zen.

Orduan ikusi genituen Konde eta Xole senar-emazteak. Jendearengandik aparte zeuden, ehun bat metrora, arrago zaharraren paretaren kontra. Handik dena espezial ikusiko zuten. Emakumea ez dakit negarrez edo irrika ari ote zen, baina eskua begietatik pasatzen ari zen, malkoak xukatze bezala. Eta pelukeroak bat-batean jesukristoren oihua egin zuen, denek aditzeko maneran.

- Etxandi!!! Izorra hadi!!! Merezki duk eta! Izorra hadi!!!

Amerikanoak, eskumuturra odoletan, bere amorrazio guziarekin eman zion kontesta.

- Hago isilik, demonio ijito zikina!!!

Igandean, bazkaldu eta gero, aitak eskopeta hartu zuen bueltaxka bat ematera joateko. Berarekin joan nahi ote nuen galdetu zidan. Uso denbora zen, eta egun osoa zerura begira egoten ginen, pasako hegaztiak ikusteko ilusioarekin. Horrekin egiten genuen amets. Transistore ttiki bat sartu zuen ehizako zakotean kartutxoekin batera.

Malda goiti abiatu ginen oinez, poliki-poliki. Eskolako frontoian Arraitzen anaia eta Fermin pilotan ari ziren. Pixka bat aitzintxeago, Joxe Perrexil igeltseroa eta pare bat peoi lanean ari ziren Etxandienean, nahiz eta besta eguna izan. Etxe zaharraren parean berria egiten ari zen amerikanoa. «Begirazaiek, begirazaiek hoiekeri!», erran zidan aitak erdi isilka lurrean ziren harri zahar batzuk erakutsita. Harea, adreiluak, porlan zakuak eta material gehiago ere bazen haien ondoan. Ez nien deus berezirik ikusi. «Tturkoeneko harriak dituk!». Orduan ohartu nintzen. Hantxe zegoen Kuartel zaharraren sarrerako atearen gainekoa. Bazituen iduri batzuk, lantza bat eta bi buru. Aita solasean hasi zen Joxerekin. Automobil bat ailegatu zen atera,

Dauphine polit bat. Don Paco medikua zen. «Arratsalde on!» erran zigun etxera sartu baino lehen. «Zer modu segitzen du?», galdetu zion aitak igeltseroari. «Hemengo nagusiak? Asunto txarra!». Ministroa etorri zen egunean konejuak egin zion zauria gaiztotu, eta harrezkeroztik eri zen.

Langileak han utzirik, guk geure martxa segitu genuen. Plazan, Rusoaren ostatuaren atean Txapas ikusi genuen, ezagutzen ez nuen kanpotar batekin. «Etorri Ramon eta konpainia! Zerbait hartuko duzue!». Aitak ezetz egin zion buruarekin, eta poliki-poliki elizaraino ailegatu ginen. Hantxe hasten zen mendiko bidexka.

Basahuntzulo izeneko hariztegi batera sartu ginen lehenbiziko. Maite nuen toki hura aitzineko urtean gorringo batzuk bildu genituelako anaiak eta biok izen bereko erreka-ondoan. Baina behe-itiko partean Harrintzo zegoen, eta harrobikoek terreno hura ere eresia zuten zerbaitetarako. Hariztegiaren erdi-erdi-tik pista bat zabaltzen hasiak ziren. Mendiari lurra kentzen ari zitzaizkion nolana, malda berdintzeko. Dozena erdi bat kamioi baziren hantxe berean, geldirik. Biharamunean hasiko ziren atakean, batzuk dena urratzen eta bertzeak lur garraio. Handik ateratzen zutena lamizuloaren ondoan botatzen zuten gero,

Urrabia bazterrean, hura ere zelaitzeko. Arbola zahar haietako batzuk etzinda ikusi genituen, modu zaka- rrean botata. Aitari begietan irakurri nion pentsamen- dua, baina ez zidan deus erran. Desolagarria zegoen dena! Goiti tiratu genuen. Maldarruneko kaskoraino joan nahi genuen. Usorik heldu bazen, handik ikusiko genituen inondik baino hobekiago.

Eguna ederra zegoen, baina espero genituenak ez ziren zeruan agertu. Tirorik egin gabe ezkerraldera hartu genuen, Oihantxo aldera, meategi zaharren az- piko arboldegi koxkorrera. «Nere baratzea» erraten zion gure aitak. Onddo aunitzik ez, baina finenak han- txe bilduak zituen behin baino gehiagotan.

Erlojuari begiratu, eta segituan transistorea biztu zuen. Gizon baten garrasia atera zen aparatutik, «iGol, gol, gol en la Condomina!!!». Aita lurrean jarri zen. Irratian emakume bat kantari orduan, «iCas- tella-na... es... superior!». Zigarro bat erre behar zuela erran zidan. «Hoaie eta begitu nik erakutsi bezala, aber zer harrapatzen duken!». Real Sociadadek Madri- len jokatzeko zuten, Real Madriden kontra! Hantxe gel- ditu zen, kea botatzen eta beharriak erne, harrobia egin gogo zuten tokira begira.

Goiti eta beheiti ibili nintzen bakarrik, ezker eta eskuin, makila batekin bilaka, aitari ikusia nion moduan. Kosta zitzaidan poliki, baina hondarreko hartu nuen ordaina, mendiaren erregalua. Ainarraren azpian, bi onddo beltz, zein baino zein finagoak. Bare bat hantxe utzi nuen goseak. Esplikatu izanen nion nire txanda zela, entendituko zidala uste izatera! Aitarengana joan nintzen segituan. Partidua akabatzeko gutti falta zen. Arzakek gol bat sartu zuen, baina segur aski ez zen aski izanen, bi eta bat galtzen ari zirelako. Esperantza bai, baina...

Amak pelukeriara bidali ninduen, ilea sobera luzea nuela iruditzen zitzaiolako. Hotz handia egiten zuen eta komunio guziak eginak nituen, baina, hala ere nik ilea motx izatea nahi! Galtza luzeak paratzeko bai, konforme, baina bertze moda berri hori ez zuen bate-re gustuko. Irunen eta, Donostian eta, mutilak neskak bezala hasiak ziren. Hendaian eta Donibanen puska lehenago. Alkasoron, ordea, oraindik denbora pixka bat beharko zen gure zaharrek ametitzeko.

Pelukeroa Eugeniori ari zitzaion ilea mozten, eta egun hartan ere garrasi eta purrusta mundu guziaren

kontra. «Kasu eman horiekin!», erraten zion Kasinoko nagusiak aitzurrei begira, baina pelukero zaharrak berearekin segitzen zuen, bere betiko arkanbele kantarekin.

Tturkoenetik bota zituztenetik ez zuen sosegurik izan. Kontu harekin tema zuen. Ez zuen dudarik egiten, afera osoa arrunt zikina izan zen! Eta orain ere seguru zen legearen kontra ari zirela. Hori delitua zela, eta ea non zegoen justizia, ea nola ez zieten galarazten harrobikoei lurra Urrabia bazterrera botatzea!

- Hori dena herri-lurra duk! Hala dituk ugalde guzien bi aldeak! Eta lurrarekin tapatu eta eurenganatu behar ditek! To, herriak erregalu! Izorra hadi, Piarres! Eta gu begira, deus egin gabe! Non dira alkatea eta sekretarioa? Horiek bazekitek, bai! Horiek dituk, horiek, ustel zikinak, alaen ustelak! Ez dituk etortzen hunat, ez, ilea moztera! Hobe ditek!

Ezagunak nituen istorio haiek guziak, eta periodiko bat hartu nuen, futbolisten azkeneko goiti-beheitiak ikasteko. Ilea mozten akabatu eta, alde egin behar zuenean, Eugeniok amerikanoaz deus ote zekien galdetu zion. Erran zuten hagitx gaizkitu zela eta Donostiara eramana zutela. Konde lurreko ileak bil-

tzen ari zen erratz batekin, eta kontesta estrainio bat eman zion:

- Ez zakiat batere! Baina eguraldiak kanbioa dik! Eta horrek, badakik, gaizki dagoenari ez zio onik egi-ten. Gure etxeko andreak erran dik, elurra ez ote duen botako...

Nire txanda ailegatzean aulkian jarri nintzen. Erran nion amak piku esnea ematen zidala soilean, hark erakutsi bezala, eta ile pixka bat atera zitzaidala. Alegatu zen. Bromatan hasi zen gero. «Hori neska gazteek titietan ere ematen ditek, handiak izan nahi dituztelakoz...». Harritu nintzen gizona halako umorearekin ikusirik.

Etxera bidean, hegoaldera joaki bide zen ahate tropa bat ikusi nuen zeru goibelean. Gero eta hotzago zegoen. Baziren bi automobil Etxandieneko atean. Ez nituen matrikulak ezagutzen. Zubiko Bentara ailegatzten ari nintzela elizako ezkilen dandariak aditu nituen bat-banaka, mantso eta beldurgarri. Banekien amak zer erranen zidan: «agonia».

Igandea baitzen, berandu jaiki nintzen hurrengo egunean. Salako leihora joan nintzen segituan. Larun gaina zuri zegoen.

AXUNEKIN MUGAZ BERTZALDERA

Txoferrak gibelera begiratu zuen, koleraturik, guri errieta egiteko. Motorra gelditzeko mehatxua eta begiradarik zorrotzenarekin tiro, gehienbat azkeneko leerroan jarriak geundenoi. Besoa haraino luze izatera, lepotik bat-banaka hartu eta kanpora aterako gintuen. Ezbeharrak izateko ere arriskua bazen, baina autobusak bere martxan segitu zuen, jira ezkerrera, buelta eskuinera, gidari automatikoa balu bezala. Egunero bide bera lau aldiz egiten zuen Bidasotarra bereziak sei herrietako jendea Irungo institutura garraiatzen zuen bidaian, Pio Barojara.

Neska-mutiko tropa harentzat abentura paregabea zen eguneroko espedizio hura. Ez zen basamortu mugarik gabeen edo piztia beldurgarriz beteriko oiha-nean galtzea, baina Endarlatsako zintzurak errespetua jartzen zuen, alde batean ur-putzua eta bertzean harrizko pareta. Gure autobusa Lesakako fabrikako kamioitzarren batekin gurutzatzen zelarik, elkarri hau-

tsa kentzen zioten, eta guk ui-ui-ui egiten genuen txo-
rakeriatan, hura josteta balitz bezala.

Horretaz aparte, bideko txoko bakoitzak bazuen historia berezi bat, guk aldiro geure buruan berritzen genuena. «Hor ito zen Gabriel bere Renault 8 berriarekin! Hementxe hil ziren Etxegarairen eta Altzuriren aitak ni jaio nintzen urtean! Lerrakura izan eta, bada-kizu, mendi erdia gainera erori zitzaien!». Kontrabandistek eta portugesek muga-ibaia nondik pasatzen zuten... Eta gu, mukiak leihoko kristalean, gozotegiko eskaparatean, dena irensteko prest.

Egun hartan, Endarlatsako *amurrainen* etxearen paretik pasatu eta haren leihoak itxirik ikustean, aitzineko larunbat gauean izaniko mugimendua imajinatu nuen. Bertan izana zen Tomas Tturko. Hala kontatu zigun igandean, markako bestondoari buelta eman ezinik. Etxeari teilatua eman eta bizkar besta egin omen zuten. Bera izaki igeltsero kuadrillako gazteena, hamasei urte bete berriak, eta, oraindik estreinatu gabea baitzen, beteranoek tentatu, nonbait, ezetz bi aldiz jo. Berak baietz hirutan. Eta apustua irabazi! Lau lagunendako afaria Rusoarenean.

Herrian poliki famatu zen gerora! «Kanaberak tente Endarlatsa partean, eta klase aunitzetako arran-

tzaleak!», erraten zigun zalapartaka Tturkoeneko xenak, kartel puskatu hartan *Las Truchas* paratzen zuen negozioa aipatzean.

Alkasoroarrak goizean goiz ohartuak ginen nola heldu zen Urrabia. Gutti falta kanposantua ere azpian hartzeko. Izanez ere, euria jautsi ahala bota zuen aitzineko egunetan, gure herriko betiko maneran. Haren ura hartzen zuen Bidasoa ere karga-karga heldu zen. Gipuzkoara sartzeko zubia gurutzatu eta errepide bazterreko landa batzuk ur azpian ikusi genituen.

Behobiatik hurbil, errebuelta arriskutsuenaren ondoko etxean, neska ilehoriaren begiak zintzilik zeuden leihoan, gure esperoan, eta denak harekin espantuka. Nik denbora hartan, ordea, bertze nonbait nuen kaskoa, «A años luz», erranen zuen Sugeak, Fisikako irakasle zorrotzak, eta begirada soraioago galtzen zitzaidan Biriatuko mendi mazeletan barna, geroxeago Irungo karriketan harat-honat ibilki zen jende guziaren aurpegiak harrapatzeko ehizan hasi baino lehen.

Institutuan hamalau-hamabortz urtetik goitiko neskak eta mutilak gela berean elkartu gintuzten lehenbiziko aldiz. Espainiak modernizatzen ari zela era-

kutsi nahi zuen, nonbait. Ez nolana, ordea; elkarrekin paratu gintuzten, baina nahasi gabe: bi lerrotan arrak eta bakarrean emeak. Horregatik, segur aski, harrotuxeagoak ibili ginen urte hartan denak. Nire notak ez ziren aitzineko urteetakoak bezain onak, eta etxean gurasoak ez nituen sobera kontent.

Astelehen hartan, hamaiketako atsedenaletan ondokik gelara sartzen ari ginela, ondora etorri eta paper zimurtu bat eman zidan eskura Axunek. Ez zen lehenbiziko aldia, gisa berean bertze dozena erdi bat hartuak nituen kurtsoa hasi zenetik. «Klaseko ezpainik ederrenak, hireak, dudik gabe!»; «amets egin diat hirekin!»; «negozioren bat paratu behar diguk elkarrekin»; «zergatik ez didak erantzuten?». Nola nahi duzue nik eskolan fundamentuzko deus egitea? Erdi gordeka irakurri behar izan nuen hura ere, nerbio eta beldurka, irakaslea ez ote zen ohartuko. «Heldu haiz nirekin Hendaiara gaur arratsaldean? Lauretan Las Vegasen». Begiekin bilatu nuen, eta serio ikusi nuen bere tokian, lanean ari zelako itxura egiten. Ni, berriz, ezinegonean, neska erorka hark noraino joan nahi ote zuen pentsatzen.

Taldeko neska gehienak baino ttikiagoa zen ta-mainaz, baina ez zuen ematen inporta zionik sobera.

Burua tente ibiltzen zen, lotsagabekeria aire batekin. Eta mutilekin gogorraren papera egitea gustatzen zitzaien. Ni ustekabean harrapatu ninduen, ez bainuen uste gisa hartako neskak nahiko lukeen tipoa nintzela. Baina, aizu, hura interesatua baldin bazegoen, ni harro! Aparte, egia erran behar badut, gustatzen zitzaidan sorgin beltxaran hura, eta niki-atorren kontra estutzen ziren titi polit haiek, mutil itxura ematen zion ile motx harekin.

Nolanahi dela, goizak aitzinera segitu zuen eta hondarreko klasea Hizkuntza eta Literaturakoa genuen. Gaztea zen irakaslea, karrera akabatu berri, eta hura bide zuen lehenbiziko urtea eskola ematen. Berrezia, ordura arte izan genituenak ez bezalakoa. Ikasleontzat handikeriarik eta gorrotorik gabea. Hala iduri zuen behinik behin. Berarekin solas egiteko erraten zigun, geure opinioea emateko, eta ados jarriko girela. Estilo bereko hiruzpalau irakasle etorriak ziren batera urte hartan Pio Barojara. Kanbio handia guretzat! Bertzela usatuak ginen. Jo gabe ere, zigorraren dotrina ibiltzen zuten lehengo zaharrek. Bakarren bat salbatzen zen, baina gehienak halaxe.

Kostatu egin zitzaigun bide berrietatik ibiltzen ikastea. Bigun jokatzeko zuela ikusirik, bat baino gehia-

go zakartu zen. Irakaslea larri, ez baitzuen kastiguaz baliatu nahi. Eta nola burutu onean obeditu nahi ez zutenekin? Niri pena pixka bat ematen zidan Maite Sunsundegi hark -halaxe zuen izena-, iruditzen baitzitzaidan ez zuela horrelakorik merezi. Kasu egiten nion eta zintzo samar portatzen nintzen, nire modura.

Akaso horregatik eskatu zidan egun hartan ere arbel ondora joateko eta hantxe zutik denei leitzeko nobelako pasarte bat. «Irazoki, aterako zara irakurtzera, faborez?». Ez nuen batere gogorik, baina nola erran ezetz, hain xarmanki eskatuz gero!

Dostoievskiren *Krimena eta zigorra* eskura eman eta lapitzarekin markatu zidan nondik noraino nahi zuen. Ikaskideei isiltzeko agindu eta hasteko keinu egin zidan.

Nerbioso samar nengoen, jende guzia begira nuela pentsaturik. Oroitu nintzen ttikitan behin nesken gelan belauniko egotera zigortu nindutela, denek nitaz irri egin zezaten. Ni umiliatzeko! Ez zen gauza bera, baina ez nengoen batere lasai. Halere, hasi egin behar!

«Ezin segundo bakar bat ere galdu. Aizkora bero-kiaren azpitik atera, bi eskuekin gora altxa, eta, amorratorik gabe, mugimendu mekaniko arrunt bat egi-

nez, atsoaren buruaren gainean erortzen utzi zuen... Aizkorak buruaren aurreko partean jo zuen. Biktimak oihu ahul bat egin zuen...». Zer zen astakeria hura? Gaizki sentitzen hasi nintzen, zulo moduko bat estomaka partean. Istant bat gelditu, hatsa sosegatzeko, eta segi. «*Raskolnikofek bere indar guztiakin beste bi aizkorakada eman zizkion toki berean, eta odola bor-borka atera zen, iraulitako ontzi batetik bezala...*». «*Eta odola bor-bor-ka a-te-ra zen, i-rau-li-ta-ko on-tzi ba-te-tik be-za-la...*», hitzak nire kolkorako errepikatu nituen, kanpora bakar bat ere isuri gabe. Zorabiatzen nintzela sentitu nuen. Begietan lainoa, eta eskuak daldaraka. Izerdi hotza sumatu nuen lepo aldean.

«Martin! Martin!», nire izena aditu nuenean ernatu nintzen. Maite irakaslearen begiak ikusi nituen, eta haren ondoan ikasketa-burua, Otsua erraten geniona. Ez nuen entenditzen zergatik nengoen lurrean. Klaseko gainerako guziak joanak ziren etxera. Lotsatu egin nintzen. «Ongi zaude?». Baietz erran nien. Banuen buruko min isil bat, ordea. Etxera deitu nahi zuten telefonoz, baina ezetz nik, kezkatuko zirela eta ez zegoe-la horretarako arrazoirik. Ez izateko kuidadorik, izebarenera joan behar nuela bazkaltzera eta hark eginen zidala kasu.

Irungo izeba Marisarenera joaten nintzen eguerdian, arratsaldean klaserik baldin banuen. Besoak zabalik hartzen ninduten izebak eta lehengusu-lehengusinek, «Begira nor etorri den! Alkasoroko mutikorik guapoena!». Amoña xaharrak marmar batzuk egiten zituen, «Etorri, etorri! Fonda merkea izaki hau!», baina inork ez zion aditu ere egiten. Etxe hark ere bazuen misterio zerbait niretzat. Osaba arrantzalea itsasoan hila zen. «Etxe hau adinako olatu batek jo du barkua eta osaba itsasora erori!», kontatua zidan orduan amak. Eta nire imajinazioan itsaso izugarri gaizto bat ikusten nuen. Salan bazuten nik egundaino ikusi gabeko mapa bat, marra eta numero aunitz zituena. Ernesto lehengusuak behatzarekin bi irla seinatzen zizkidan, «Ikusten hemen? Saint Pierre eta Miquelon! Hortxe ito zen...».

Mahaitik altxatzean papera ukitu nuen sakelari, eta bertzeetan baino goizago abiatu nintzen Institutu aldera. «Bazkaldu eta martxa! Konkorreriko salbo! Nora hoie mutiko? Ez egin piper, e! Ea gero!». Bistan zen amonak eskarmentu handia zuela gazte jendea kontrolatzen. Baina deus nabaritu ote zidan? Ez zen posible! Karrikak jendez beteak zeuden. Zenbat zelatari ote nituen segika? Galtzetako sakelatik paper zimur-

tua atera eta berriz irakurri nuen, «Heldu haiz nirekin Hendaia gaur arratsaldean? Lauretan Las Vegasen».

Ez nintzen sekula ibilia Topoa erraten zioten tren koxkorrean. Aulkian jarri ordukoz zigarroa biztu zuen. Camel pakete bat zuen, filtrorik gabeak. «Nahi?», eskaini zidan. Ez nuela erretzen. Probatua nuela aspaldi, *xorta* erraten genionetik lehenbiziko, baina berak ez zuela jakinen zer zen, arboletatik zintzilika izaten ziren soka moduko makila idor batzuk. Eta tabakoa ere bai (Ernestok behin misterio handiz erakutsi zidanaz oroitzen nintzen), ahoko berezia zuen marka bat, True.

Bertze hitzik egin gabe joan ginen bidaia osoan. Joanketua nintzen lehenago ere Hendaia. Galtza bakoak erostera eta, amarekin behin baino gehiagotan. Eta futboleko galtzerdi luzeak ere erosi zizkidan aldi batean. Hagitz politak, inork ez zuen halakorik ekipoan, zuri, berde eta gorriak.

«Goazen!», buruarekin hari segitzeko keinu egin zidan geltokian jautsi ginenean. Ez nekien zertara joanak ginen. «Zuk ez erran deus ere!», agindu zidan. «Ikusi eta ixo!». Liburu-denda batera sartu ginen. Bueltaxka bat eman genuen liburu eta aldizkarien

azalei begira, barrean zeuden klienteek euren erosketak egin bitartean. Saltzailea libre ikusi zuelarik, Axun bizi-bizi hurbildu zen mostradorera. Ni haren ondotik beti. Galtzen gibelesko sakelatik 20 liberako billetea atera eta «*Deux Penthouse!*» eskatu zion kolpean. Gizonak begietara begiratu zion Axun ttikiari, serio, galdeka bezala, «Zertako nahi ditun hik horiek, muki-zu horrek!». Gero, hatsa luze isuri zuen, jende nekatu edo aspertuaren gisara, gorputza jiratu bidenabar. Apal batean zeuden azal distiratsuko bi aldizkari mostradore gainean utzi zituen. Bioi begiratu zigun orduan. Non sartu ez nekien. Axunek aldizkariak eta sobrante ziren sos pixarrak bildu eta ospa atera ginen handik ziztu bizian.

Tren estaziora ailegatzean, *toilettes* paratzen zuen tokiren bat bilatzeko erran zidan. Nesken komun batera sarrarazi ninduen erdi bulkaka. «Mugako gardiek hau ikusten badigute, gutxiena kentzea izanen duk!», hasi zitzaidan erraten. Bi errebista haietako bat hartu eta orriak pasatzen hasi zen, «A, ze neska pus-kak, e? Gustatzen zaizkik?». Ez nion kontestarik eman. «Sartzak hau jertse azpian, eta gerrikoarekin kontu; hik bat eta nik bertzea, bale?». Orduan ere ez nuen aukerarik. «Badakik... anaiarentzat dituk», aitor-

tu zidan. «Hogeita bost pezeta ematen zizkidak propina, mandatua egite alde. Bera aspertzen denean, pasako dizkiat!». Ez nion ezetz erran.

Bagoira sartu eta bakoitza bere aulkian jarri ginen, elkarren ondoan. Zakilaren gainean nabaritzen nuen aldizkariaren ertz zorrotza, baina disimulatu behar. Jende gutti trenean. Kaskasoil batek zulatu zigun txartela. Urrundik ikusi genituen mugazaintzan ari bide ziren guardia zibilak hurbiltzen. Lasai ederrean pasatu ziren gure paretik, kontu-kontari, «Y la tía va y me dice que no tengo cojones...». Etorri bezala joan ziren. Inporta zitzaien haiei gure kontrabandoa! Baina orduan konturatu nintzen paperik gabe pasatu nuela muga! Nik ez bainuen artean pasaportetik. Eskapada ederra egin nuen!

Etixeraino lagundu nion Axuni. Ezin zen karga harekin hor barna nolana ibili. Anaka auzoan bizi zen, laugarren pisu batean. Elkarrekin sartu ginen atarira. «Mila esker laguntzeagatik...», hasi zen erraten, baina eskailerak goiti abiatu gabe. Hantxe geldirik, niri begira. «Ira, musurik eman diok inoiz inori?». Nire apurua! Nik ezetz buruarekin. «Nahi huke?». Zer erran behar nion! «Bueno...». Ondo-ondoraino hurbildu zitzaidan. Haren titi puntak nire petxuaren kontra sentitu nituen.

Erran zidan ttikiak zituela, eta ni orduan Konde pelukeroak kontatuaz oroitu nintzen, piku-esnearekin igurzteko eta horrela edertuko zitzaizkiola. Eskuarekin zapla eman zidan matelan, minik egin gabe, horrelako txorakeriarik ez errateko. Ahoa hurbildu zuen nirera. Isilik, bion hatsak bertzerik ez. Goizean Literatura klasean bezala, berriz ere zorabiatzeko gutti falta nuen. Ohartu orduko, kosk, hortzekin ausiki ttiki bat egin zidan azpiko ezpainean! Aldizkaria lurrera lerratu zitzaidan jertse azpitik, justu emakume bat eskaileretan agertu zenean. Eskua segituan luzatu nion, baina emakumeak azala garbi ikusi zuen. «Buenas tardes», erran zigun, erdi burlaka bezala. Axun eskailerak goiti joaki zen saltoka, ni airean utzirik, zurrumbilo epel baten erdian.

Berriz ere neure onera bueltatu nintzelarik, Bidaso-tarraren barrenean harrapatu nuen neure burua. Zailaindik hurbil, Montoiako malda igaten ari ginela, zentral elektrikoko langile bat ikusarazi zidaten begiek hantxe, zubi zintzilikatuaren erdian, Bidasoari begira, zigarroa erretzen patxada ederrean. Buila eta kasaila handi samarra nuen inguruan, baina ez zen txoferra-

ren marmarrik aditzen, Patziku baitzen, arratsaldeeta-ko txandan ibiltzen zen bihotz oneko zurruteroa. Iru-
nen dozena erdi bat basoerdi hartu izanen zituen eta
gustura heldu zen bueltan herrira, iluntzeko mus par-
tida amets. Beharri atzean min ezagun bat sumatu
nuen. Norbait ari zen gomazko tirabikearekin paper
bildu gogortua botatzen. Gibelera jiratu nuen burua
eta bertze bat makurtzen ikusi nuen. «Gabika! Ka-
broia! Ikusiko duk gero!». Egurrezko xardangoarekin
txoriei bezala, bi behatzekin ere ez zuen hutsik egiten
nire lagunik hoberenak. Harekin aritzen nintzen
gehien borrokan, eta jostetan ere bai.

Oinez egin behar izaten genuen alkasoroarrek
geure herrira joateko hondarreko bide puska, autobu-
sak Berako bidegurutzean uzten baikintuen. Herriaren
sarreran bazen baserri auzo bat. Hartan, Oilartegi pa-
retik pasatzean, Lorentxo bere aurpegi errearekin
ikusitako genuen etxe aitzineko haritzaren gerizan, lu-
rrean jarrita, begiak urrunera apuntatzen baina bere
baitara begira.

Etiketetik hurbil, Urrabia gaineko zubian Xari gure
txakurra saingaka agertu zitzaidan, buztan luze hura
dantzatzen. Ustekabea eman zidan, Lizuniagara era-
mana baikenuen, osaba-izeben bentara, ohara zegoe-

lako, hango arraza bereko arrarekin gurutzatzen. Zuri-zuriak ziren biak, eta halaxekoak nahi gure etxean!

Gaixoa Xari! Bazuen Alkasoron berean Beltx izene-ko pretendiente bat, Felizianorena, tturkotarren etxean jaioa. Eta nola gizon hura gure Bentan erdi apopilo bizi zen, etxeko bezala genituen hura eta haren lagun ilezua.

Bi txakurrek arrunt ongi hartzen zuten elkar; beti jostetan! Haiek bai, elkarri zenbat musu eta balaku! Baina nire gurasoek gauza gustagarriena galarazi! Batak bertzea gehien behar zutenean, emea bereizi eta urrun eraman! Kontu horretarako, txakurren bizi-modua ere ez zen batere inbidiagarria.

Etxera sartzean, amak erran zidan Xariren altadendora pasatua zela, Lizuniagako arrari ez ziolako gainean paratzera uzten. Horregatik ekarri zutela berri ere etxera, baina, halere, bera ez zela oraindik sobera fidatzen. Kasu emateko Beltxekin. Oraindik ere zerbait sumatzen ziola gure txakurrari. «Zu ere ez zaitut ongi ikusten!», bota zidan orduan. «Aber begi horiek! Eri zaude?». Ezetz, nik, eta salara joan nintzen, ogia eta txokolatea hartuta. Oraindik daldara bat nuen gorputz osoan.

Salako armairu-apalategian Larousse entziklopedia genuen, amak etxez etxe ibiltzen diren saltzaile horietako bati erosia. Zazpigarren liburua potoloa hartu nuen, Martí-Ozu. Estudiatzera edo joaten nintzen aldiror gauza bera egiten nuen. Entziklopedia osoko gorputz biluzi bakarria bilatzen nuen. Modiglianiren emakume atsegin hura hantxe egoten zen nire esperoan, niri begira, bere gorputz ederra erakusten, eskuak buruaren gibelean, etzinda lasai, deusen kezkarik ez zuela. Axun imajinatu nuen postura berean, zigarroa ezpainean, bere lotsagabekeria natural harekin.

Biharamun goizean eskolara joateko deitu zigun amak, egunero bezala. Baina, oihu egiteko maneragatik, ezagun zuen zerbait txarra pasatu zela. Koleratua zegoen. Zer ote zuen? Jaiki eta sukaldera joan nintzen. Ama dendan ari zen, mostradorean zerbitzatzen. Txokolata hautsa ausarki bota nuen katiluko esnearen gainean, eta zopa batzuk gero, eguneko ogi berriarekin. Bero-bero hartzea gustatzen zitzaidan, nahiz eta jakin gero hertzeak protestan hasiko zitzaizkidala eta disimuluan ibili beharko nuela usain txarrarekin ingurukoak ez uxatzeko. Ama niregana etorri zen sutan.

Xari falta zen. Gaua kanpoan emana zuen, «Parrandan!», eta Tturkoene aldean ikusi zuten Beltxekin goxo-goxo, jo eta kea, Lizuniagako arrarekin egin ez zuena egiten!

Handik bizpahiru hilabetera lau ume xuri-beltxekarri zituen mundura gure txakur zuriak. Haien aitak berak zabaldu zien berria alkasoroar guziei: Beltxek gure bentako atean sainga batean pasatu zuen egun osoa.

AITA GERRARA JOAN ZEN

Artista nintzen ardo garrafoiak betetzen, ariz eta ariz ongi ikasia. Barrikatik dekalitrora, eta neurria ematen zuen ontzitik kristalezko zahagira. Badakizue eskola zaharrea nola egiten den lan hori: ezpainak mangerari josi eta airea kolpean tiratu aho barrenera, mahatsaren muztioari bidea libre uzteko. Lantegi horretan aldiro xurrua bat sartzen nuen zintzurretik beheiti. Ofizioak hala behartuta. Ez nion, halere, inolako higuinik hartu mama goxoari horregatik.

Mutiko zoldazu bat nintzenetik hasia nintzen aitari laguntzen bodegako lanetan. Beti hotz egoten zen ardo-almazen hura erresuma berezia zen. Hiru errel-dutan zeuden barrikak, militarrek formazioan bezala, baina gainerako guzia nolana ere paraturik zegoen: garrafoiak, neurtzeko ontziak, onilak, botilak, sufre pastillak, klarion puskak... Eta bertako erregea gure aita zen. Goiz partean han aritzen zen egin beharreko lanetan, eta arratsaldeetan, ostatuko mostradoretik ihes egiten zuenean, harat joaten zen, baso bat ardo edan bidenabar zigarroa amak ikusi gabe erretzera; handik itzultzen zen ez tul ttikia egiten eta matelak

normal baino gorrixego. Gauaz arratoiak etortzen ziren Urrabiatik, eta han ibiltzen ziren zer harrapatuko. Haiek ere hala aisago libratzen ziren heriotzatik, batzuetan han bertan gau osoa pasatu eta goizaldera ibai bazterreko sasietara itzultzean aitak ikusi eta eskopetarekin tiro egiten baitzien, ziraldoka joaten zirelako.

Tafallatik etortzen zitzaigun jeneroa, mutur luzeko kamioi handi batean. Txoferrak paraje urrun haietako kontuak ekartzen zituen edariarekin batera. Baita bidean izan zituen komeriak ere. Belaten elurra, Ostizten trafikoko guardia zibilak edo Sunbillan automobil frantses bat Bidasora eroria. Gizon zakar hark amari grazia egiten zion, «guapa» erraten ziolako behin eta berriz. «¡Qué mujer más guapa tienes, Ramon!». Eta aitak «etzakela txorakeriarik erran» erantzuten zion keinu batekin, eta zerbait merendatzeko gonbita egiten zion segituan, baina hark ez zuen deus hartu nahi izaten lana akabatu arte. Hori bai, egin beharrak eginenez gero, orduan kontent gizona eta bestarako prest. Salto batean gainetik pasatzen zuen dendako mostradorea, bere sasoiak erakusteko, eta gero pare bat sardina zahar kentzen zizkion lurrean bazter batean egoten zen atabal bereziari. Ikusgarria zen nola kentzen

zien azala: paper latzean bildu, eta esku itxiarekin danba-danba kolpe pare bat eman behar zen tokian hain justu.

Erdi kantari herrira bueltan abiatzeko prestatzen hasten zelarik, aitak goraintziak ematen zizkion hone-lakoarentzat edo halakoarentzat, baita gerran lagun izan zituenentzat ere, «Igual conocerás a alguno que estuvo conmigo en el frente, gente de Lerín, de Artajona...». «Uy, uy, uy, ila guerra! ¡De eso no me preguntes, Ramón! Mal asunto es ese...», eta gero irri aire bat, hitz serioei karga kentzeko, eta han joaten zen, ongi ilundurik frankotan, baina begiak ere biztuak.

Aitari gerran nola ibili zen galdetzeko aprobetxatzen nuen halakoetan, baina aipatze hutsarekin kope-ta iluntzen zitzaion. Guk ez genekielara zer zen hura. Hiru hitz bertzerik ez zituen erraten. «Badakizu zer izan zen hura? Hotza, gosea eta miseria!». Halakoetan ere ez-tul nerbioso hura jartzen zitzaion, eta nik pentsatzen nuen ez ote zuen oroitze txarren bat ordutik trabaturik zintzurrean. «Hagitz gauza txarra! Triste-a!». Eta joan egiten zen ospa.

ETAk Felipe Huarte industrialara Irunen libre utzi zuen egunean ere gure etxera etorria zen tafallarra.

Berako eltzetzuak ostatuan zeuden, txikito bana edaten. Bi lagun etortzen ziren hilabetean behin ondoko herriko kuarteletik, euren zapelokerra buruan, Alkasoroko jendeak deusen beldurrik ez izateko, gurean klase horretako militarrik ez genuelako. Niri ez zidaten batere lasaitasunik ematen, baina ardo saltzaileari ez bide zitzaion sobera inporta haiek han izatea, zernahi errateko, isilka eta gordeka ibili gabe. Eguneko notizia hura zela eta gure aitari gitarra jotzen hasi zitzaion, «iYa sabríais vosotros dónde lo tenían guardau!». Guardia zibilek burua bueltatu zuten, halako atrebentziarekin mintzatzen zen gizona hobeki ikusteko, baina hark trankil ederrean segitu zuen, eta niri pentsarazi zidan Belatetik beheitiko jendeak konbertsaziorako bertze lege batzuk zituela.

Ez dakit Alkasoron inork ote zekien non eduki zuten gordea Iruñeko gizaseme hura, baina nik ez behinik behin. Periodikoetan letra handiz eta argazkiz ongi horniturik eman zuten berria. Gure herritik hurbil agertu zen; horrexegatik bakarrik egin genion bertze batzuei baino kasu gehixeago. Izanez ere, guk bertzelako interesak genituen. Igande hartan Athleticek Rea-lari bi eta bat irabazi zion San Mamesen. *Diario Vascon* leitu genuen partidaren kronika. Nahiz eta Boro-

natek lehenbizikoa sartu, Lasak eta Rojok salbatu zuten nire ekipoa. Aitak orduan ere ez zuen hamalaukorik egin kinielan. Arratseko Telediarion Nixon amerikarren presidentea agertu zen, Vietnamgo gerra akabo zela errateko. Hark ere huts bere pronostikoan.

Nolanahi ere, egia da politika saltsaren gaineko zerbait-zerbait hasiak ginela sumatzen Irungo institutuan. Egun haietan makinaz eskribituriko paper batzuk agertu ziren patioan. «Panfletoak» zirela erraten zuen Gabikak, baina ez nuen sobera entenditzen han paratzen zuena. Horretaz aparte, gure autobusetik egunero ikusten genuen Irungo sarreran urte batzuk lehenago atentatuan hil zuten polizia baten etxea. Ahantzi ezin zen izena zuen gizonak: Meliton Manzananas. Lehengusu Ernestok aspaldi kontatua zidan giza- seme horrek gauza ikaragarriak egiten zizkiola preso hartzen zuten jendeari.

Urte hartan berean, Aste Santuko bakazioak baino pixka bat lehentxeago, anaiaren lagun batek telefonoz deitu zuen etxera. Aitak hartu zuen eta, istanteko, aurpegiko kolorea mudatu zitzaion. Hariaren bertzal-detik erraten ziotena aditu eta gero, «Nor zara zu?» galdetu zuen haserre bezala, «Ramontxoren lagun bat?». Anaia zaharrena unibertsitatean estudiatzen

ari zen, Iruñean. Hagitz nota onak ateratzen zituen eta gurasoek esperantza handia zuten, haiek ezin izan zutena agian ere hark egiten ahalko zuela. Amarengana joan zen lasterka, «Karmen! Hatoz! Jarri zaite agudo! Ramontxoren lagun bat! Iruñetik!». Errateko manerarengatik ama ohartu zen zerbait grabea zela, eta lasterka joan zen sukaldetik ofizinaraino.

Neska bat omen zen deitu zuena. «Biño, zer egin dute?» galdetu zion amak. Iduri zuen ez zuela sinesen ahal aditzen ari zena. Telefonoa utzi eta aurpegia bi eskuekin tapatu zuen. Aita ez zen deus errateko ez egiteko gauza. Anaia preso hartua zuten poliziek. Bera eta berarekin bizi zen bertze lagun bat komisariara eraman zituzten gauaz. Amak begiak xukatu zituen painelu loredun batekin. Gero, zutitu, sudurrean zintz egin eta aginduak ematen hasi zen. Osaba Anjelen izena aipatu zuen, baita alkate zaharrarena ere, baina gero horrena urrikitu zitzaion, «Ez egin kasurik! Horrekin ez dut deus jakin nahi!». Aitak zira jauntzi zuen segituan. Norbaiten bila abiatu zen, gure txakur buztan-luzea ondotik saltoka zuela. Ama ofizinako atea itxi eta telefonoz deika hasi zen batera eta bertzera.

Nik txikitoak zerbitzatzen segitu nuen, gertatzen ari zenaz sobera ohartu gabe. Jende mordoxka zego-

en. Joakin txorakerietan ari zen Luziano Perrexilekin, harakinaren anaia eta Urbano musean ari ziren bertze bi beratarrekin, Oilartegiko Jabier serio-serio bazterretik begira, eta han ziren, baita ere, Xankailo, Juanito eta Lino bederen. Halako batean Matias xaharra agertu zen. Jendea marmarka hasi zen. «Gaur badiagu zer-bait ere!», erran zuen Joakinek, «Ilargi betea!» segituzion Luzianok. Etxalartar xelege hura ez zen aspaldi etorria alabaren Alkasoroko etxera bizitzera, baina agudo famatu zen herrian. «Matias, egizu zaldalearena!», erran zioten. Eta gizona lurrean etzin zen, hankak goiti, animaliak iraulka bezala, eta haien gisara bizkarra lurraren kontra mugitzen hasi zen ezker-eskuin, «Astoaren zaldalea, arre mando!» erranez. Haiek irriak jendeak! Gero baso bat ardo eman zioten sari. Astoari zaldalea, alegia. Eta hura, harrotuago!

Anaiaren detentzioa unibertitateko lagun batekin tratua izateagatik etorri omen zen, eta hura ETAKoa izaki Ramontxok eta jakin gabe. Egun batzuk komisarian eduki zituzten bi lagunak, eta handik kartzelara. Amak joan-etorri batzuk egin zituen Iruñera, osaba Anjelekin haren Citroenean, eta telefonoa ere ederki berotu zuen, «Lolita, me vas a poner conferencia» herriko telefono-zentralean aritzen zen emakumeari

agindua emanda. Iruñeko osaba batek laguna omen zuen kartzelako zuzendaria, harekin joaten baitzen ehizara Kintora, eta hortik esperantza, hark lagunduko ote zigun. Horrelakoak hartu nituen airean, euren artean ari zirelarik beti zerbait eskapatzen zitzaielako. Baina etxean guri zuzenean ez ziguten hitzik ere erra-ten kontu haren gainean. Misterioa eta sekretua.

Arratsalde batean Gabikaren amatxi sartu zen dendara, jenderik ez zegoela ikusirik. Amarekin erausian aritzeko gogoia zuen, gasna puska bat erosteko aitzakiarekin. «Zer erran dizuete? Nola dago mutila?» galdetu zion. Gero, hainbertze urtez inori erran gabe-koak kontatzen hasi zen. «Gaur balitz bezalaxe oroi-tzen naiz! Nola sartu ziren erreketek treintaiseisean, urguilu harekin, Dorreluzeko Pedro Lizaso buru!». Gerra denboran haien familia osoak muga pasatu behar izan zuen juxtu-juxtu, bizirik segitu nahi bazu-ten, senarra Berako fabrika handiko sindikalista zela-ko.

Bertze egun batean oinetakoak saltzen zituen bia-jante gazte batek koloretako hiru misto kaxa atera zi-tuen gure sukaldeko mahai gainera, kontu handiz, burua behin eta berriz gibelera eginda, inor begira ote zegoen. Propagandakoak ziren, eta erregalu eman

nahi zizkion amari. Bat zuria zen, bertzea berdea, eta hirugarrena gorria. Deskuiduan guardia zibilek inori hirurak batera harrapatuz gero, kastigu segurua zuen!

San Joan bezperan su ederra egin genuen etxe aitzineko zelaian, Urrabiara jausten zen pendoitzaren goitiko partean. Maizalasto idorretatik eta arbaztetatik gar ikusgarriak atera ziren zeru aldera. Urbano eta Klaudio aritu ziren gehienbat sua gobernatzen, itzaltzera utzi gabe. Haiek agintzen, bertzeak laguntzaile. Gaua izar zegoen eta ez zuen batere hotzik egiten. Beheitiko auzoko jende franko juntatu ginen, adin guzietakoak, haurrak bezala zaharrak ere bai, zergatik jakin gabe ongi sentiarazten gintuen zeremonia harekin gozatzera. Salto egin genuen gehienok. Gazteenek eta balienteenek erdi-erditik, eta gainerakoek bazterretatik edo ahal zuten tokitik. Batzuek irrintzi egiten zuten, eta bertze batzuek «laz ere San Joan Xaharra, biba San Joan Bautista!» erraten zuten. Tturkoeneko Xolek zerbait erran zion amari beharrira, eta sura hurbildu zen gero. Mihura puska bat eta sanjoan lore batzuk bota zituen, guk haur denboran jostetan aritzeko erabiltzen genuen letania hura isurtzen zuen bitartean, «Xirrixti-mirrixti, gerrena-plau, olio zopa, kikirri salda, urun-plerun-klik!».

Biharamun goizean aurpegia eguzki sartu zen etxeko dendara, erdi oihuka erdi kantari, «Ze, Karmen, ze berri dugu Iruñetik?». «Hik nola ikasi dun, Xole?» galdetu zion amak, harriturik. Izanez ere, argitu orduko deia hartua genuen; Ramontxok berak, ustekabean libre utzi zutela errateko. Irrintzika hasi zen Konderen andre sorgina. «Ateri ezan ttantta!» agindu zuen, ukondoa mostradore gainean.

Anaia arratsaldeko autobusean etorri zen, eta amari negar malko batzuk eskapatu zitzaizkion besarkada batean bildu zuenean. Aitak hitzik ez zuen erran, baina ezagun zuen emozionaturik zegoela. Ostatuan zegoen jende gehiena ere alegeratu zen. Inaziok xanpaina ateratzeko erran zidan. Lizaso gazteak adios erran gabetanik alde egin zuen, ordea.

Berehala etorri zen kurtsoaren hondarreko eguna, eta Irungo Institutuari eta Axuni eta hango lagunei ciao erran genien udazkena arte. Urte hartan ezin izan nintzen sobera maiz joan presa azpiko putzura bainatzerara, etxekoei laguntzen aritu behar izan bainuen, baina asteburuetan ongi aprobetxatu nuen kuadrilla-koekin bestaz besta ibiltzeko.

Ekainaren hogeita hamarrean bazkari berezia egin genuen, Elenen urtebetetzea zelako. Hamabi urte egin zituen etxeko ttikiak! Amaren haur denborako laguna, Margot, egun hartan ailegatua zen herrira eta hura ere gonbidatu zuen, senarrarekin batera. Emakume eroxka horietako bat zen, Parisera gaztetan joana neskato lanean aritzera. Hantxe gelditua zen aspaldi bizitzen, baina udaro etortzen zen herrira egun batzuk pasatzera. Ezagutzen genion hirugarren gizona zuen uda hartakoa. Harekin betikoz geldituko zela erranzion gure amari, baina bai zera! Gizon gozo bat zen, mustatxaduna, ez espainola ez euskara konprenitzeko gauza ez zena. Horregatik, norbaitekin solas egin behar eta bazkari guzia nirekin aritu zen, arrantza-kontuen gainean, horretarako afizio handia baitzuen. Madame Sophieren klaseak ongi aprobetxatuak nituen, bistan zen.

Hain polliki defenditzen nintzela ikusirik, lagunak amari erranzion ni haiekin Parisera eramanez nintzela, haien okindegian lanean arituko nintzela, eta frantsesa praktikatu nuela bidenabar, «Abuztu osoa gurekin pasatuko din, ikusiko dun! Ongi etorriko zaion hemendik ateratzea! Neska pollitak ezagutuko ditin! Gero, igual ez din bueltatu nahiko!». Ni isilik hura adi-

tzen, erdi beldurka, erdi txoratua. Amak, pentsatuko zuela. Alde egin zutenean, serio galdetu zidan joan nahi ote nuen, eta nik baietz. Egia erran, ez dakit zer zuen Parisek, baina zenbat aldiz amets egina harekin! Haraino ihesi joana nintzen makina bat gautan! Ustedut amak berak kutsatua zidala, haren tripan nintzenetik. Hain eder kontatzen zioten, hainbertze kolore han, eta bera sekula joan gabea!

«Ramon, aditu, joan beharko duzu Berako polizien etxera. Pasaportea galdetu beharko dugu mutiko honentzat!» erran zion aitari segituan. Biharamunean, hilabete hondarrerako ailegatuko zela agindu ziguten poliziek, abuztuan muga pasatzeko problemarik ez nuela izanen.

Ilusio hura kaskoan nuelako edo, Lesakako sanferminak inoiz baino hobeak iruditu zitzaizkidan. Neska batzuekin txorakerietan aritu ginen, sobera ongi jakin gabe zer egin, baina nahiko gustura. Gau batean Ramontxo ikusi nuen, Alkasoroko bertze batzuekin batera, lepotik lotuta, «Gu gera Euzkadiko gaztedi berria» kantatzen. Orduan ezagutu genituen neskatxa haiek dexente saiatu ziren gurekin bolada batean, telefonoz deika eta kartak eskribitzen ere bai. Gu harro, baina

ez genuen haiek nahi zuten ordaina emateko fundamenturik egin, eta aisa ahantzi ziren gutaz.

Eguraldiak ere lagundu zuen besta egiteko uda hasiera hartan. Ttarrantarik ez uztaile hasieratik. Hagitz bero zakarra egin zuen, eta, udaberrian ere arrunt euri gutti bota baitzuen, jendea kezkatzen hasi zen. Sobera egiten bazuen ez zion inori batere graziarik egiten, baina hura ere ez zela normala erraten zuten batzuek. «Sargori honekin iturri guziak agortuko dituk eta, urik ez bada, pestea etorriko duk!» bota zidan ostatuan Urbanok, serio-serio, idortearen hogeigarren egunean. Hala ere gure etxean kontent ziren, lanean abaila ari ginelako, zerbeza saldu eta saldu.

Egun pare bat bertzerik ez zen falta Santiago egunerako, Alkasoroko bestetarako, eta termometroak marka egin zuen, egunik beroena. Bero egosia, hala erraten zuen Arraitzek. Zeruak segitzen zuen zekenerian, eta jendea gorde egiten zen itzalean, eguzkiaren beldur. Dendetako eta ostatuetako jendea nerbio-so zegoen, egun nahasiak heldu zirelako, eta gure etxeko telefonoa ez zen isiltzen, batek deitu eta bertzeak deitu.

Aitaren ofizinako paper dantza beldurgarria zen. Han pilatzen ziren erosketak eta salmentak, zerbitzuak eta zerbitzatu beharrak, eginak eta falta zirenak. Dena apuntatu egin behar izaten zen koadernoetan, liburuetan, paper muturretan. Nola, erotu gabe? Aita hortxe-hortxe ibiltzen zen udaro, eta doi-doia ailegatzeko zen udazkeneko nolabaiteko lasaitasunera.

Arreba gazteak eta hiru anaiok ere zerbait ari behar izaten genuen nahitaez. Eta serio demonio besten aitzineko egun bero haietan! Beharko! Amaren oihuak goizean, gu ohatzean eta hark nahi bezain goiz jaikitzen ez baginen! Gero, bakoitzak bere egitekoa izaten zuen, eta ni Joxanekin ibiltzen nintzen jeneralean, gure kamioi koxkorrean. Hura txofer, karneta atera berria baitzuen, eta ni haren morroi. Leihoan ukondoa pausatutik, bozina jo eta begi-keinua egiten genien neskatxei eta gure lagunei. Ez zen lanean aritze hutsa izaten, eta gustura paseatzen ginen horrela.

Aitak eta Ramontxok lana antolatzen ziguten: honenbertze kaxa zerbeza honelako tokitara, ez dakit zenbat kaxa ardo ez dakit zein ostatutara, hamasei litroko ardo garrafoia harako alargun hari... Eta guk haien mandatuak egin. Sua itzaltzera joaten direnak bezalaxe ibiltzen ginen, jende egarritua kontsolatzen.

Goiz hartan ostatuetakoa almatzenak zantzeraino bete genituen: Rusoarena, Kasinokoa, estazio ondoko denda zaharrekoa...

Bazkalondoan amak turista batzuen etxera bidali ninduen mandatu bat egitera. Alkasorora udaro etortzen zen bikote bat zen, estranjeroak. Gizona pintorea zen, eta noiznahi ikusten genuen hor barna, pintzela eskuan pintatzen ari zen oihalari begira. Urrabia inguruko paisaiekin mozkortzen zela erraten zuen. Baina ez zen hura gizonaren gutizia bakarra. Andreari, berri, balkoian eguzkitan egotea gustatzen zitzaion, bainujauntzi gorri batekin. Batzuentzat hori eskandalagarria zen, baina niretzat gure herria izugarri eder-tzen zuen. Matiasek poliki esplikatzeko zuen gertatzen zena, «Ez dakit nola jasaten ahal duen halako karga gorputz horrek, begi guziak gainean hartzen baititu!».

Bada, haraxe joan behar izan nuen siesta egiteko tenorean. «Zoazi, Martintxo, zoazi! Belga horien etxera, badakizu...» erran zidan amak. Gero anaiarekin berri ere Igantzi eta Arantzara joatekoak ginen, egunari akabaila emateko. Poltsa batean bi botila vodka sartu, eta Pepsi-Cola kaxa bat bizkarrean harturik, ttaka-ttaka abiatu nintzen.

Kanpoko atea irekia zegoenez deitu gabe sartu nintzen barrenera. Hura freskura atariko iluntasunean! Eskailerak goiti eulirik ere ez zen aditzen. Kulluxka sakratua izaki! Lehenbiziko eskailburuan gelditu nintzen, eta atean jo nuen kax-kax. Denbora pixka bat esperoan egon behar izan nuen. Emakumea agertu zen eta bekainak goiti egin zituen, harriturik bezala. Gero irri xorta bat isuri zuen, zergatik jakin gabe. Duxa azpitik atera berria iduri zuen: bata more batean bildua gorputza, eta buruan eskuoihal batek ile osoa lotzen zion. Gerrikorik ez baitzuen, esku bakarra-ekin behartzen zuen jauntziaren parte bat bertzearen gainean egotera, zirriturik ageri ez zedin. Inoiz baino ikusgarriagoa iruditu zitzaidan. «A, c'est toi!», frantsesez hasi zitzaidan. Goitik behehiraino begiratu eta sukaldera joateko keinua egin zidan. Pasabidean ohartu nintzen komunean norbaitek hartua zuela haren lekua. Pintoreak, dudarik gabe. Uraren azpian txistuka ari zen, zoriontsu. Kaxa txoko batean utzi ondotik, mahai ondoan jartzeko erran zidan madamek. «Assieds-toi ici! Il fait chaud!».

Kristalezko ontzi marradun bat paratu zidan mahaian eta Orangina botila atera zuen hozkailutik. Nahitaez makurtu egin zen, edaria zerbitzatzeko. Ondo-on-

doan sumatzen nuen, isil-isilik. Hain hurbil, nerbiosten hasi nintzen! Lotsa sentitu nuen, baina sentsazio berezia zen. Larri egonagatik, handik alde egin nahi ez! Bat-batean ezkerreko besoa buru gibeletik pasatu eta lepoan paratu zidan eskua, bizkarretik beheiti lerratzekeo posturan. Kalanbre batek inarrosi ninduen. Gehixeago arrimatu zuen burua, eta bainuko bata bere gisara zabaldu zen eskurik ez zuelako gainean. Botila mahaian pausa eta bertze eskuarekin nirea bildu zuen. Ez nintzen lepoa mugitzera atrebitzen, baina begien ertzarekin bi titi eder ikusi nituen, puntak niri zuzendurik. Gorputza ezker-eskuin mugitzen hasi zen suabe-suabe, eta titiburu batekin beharriaren azpiko pottokoan balakuak egiten zizkidan, ukiera goxoak. Sua nintzen. Ez dakit nola, besoa disparatu egin zitzaidan soineko haren azpitik eta emakumearen ipurdi-mazela beroa harrapatu nuen. Fuerte besarkatu nion, gorputza niregana are gehiago ekarriz. Daldara batean jarri nintzen, eta bioi hatsa handitu zitzaigun, hitzik erran gabe. Sugeak txoria preso zuen, eta azken kolpea emateko denbora luzatuz disfrutatzen ari zen. Orduan, norbaitek oihu egin zuen urrundik, «Françoise! Qui est-là?». «Merde» aditu nuen lehenbizi, eta «Pepsi-Cola!» gero. Gizonak dutxa akabatua

zuen, nonbait, eta berriz ere oihu egin zuen, «Et les bouteilles de vodka?». Hain gustura instalatua nuen eskuineko besoa izutu zen, etxe arrotzean ebasten deskubritu duten lapurra balitz bezala, eta azpi epel hartatik ateratzeko mugimendua egin nuen. «Oui!!! Tout est ici!» erantzun zion berriz emakumeak, niregandik baztertu eta berriz ere gorputz osoa estali baino lehen. Presaka zutitzen hasi nintzelarik basoa lurrera bota nuen nahi gabe. Kristal puska ttikiak sukalde osoan barna barreiatu ziren, laranjazko zukua bezalaxe. Ametsezko aingeru hura maldizioka hasi zen, eta nik martxa alde egin nuen. Pasabidean gizona ikusi nuen, komuneko atea zabalik baitzuen, ispiuari begira ilea gibelera orrazten ari zela. Hark ere gerrian eskuoihala bertzerik ez zuen. «Au revoir!» erran zidan sinpatia osoz. Saltoka jautsi nituen kanpora bitarteko eskailerak.

Etxean, Joxan berantetsiak zegoen, segituan abiatu nahi baitzuen. Ikusi ninduenean, behatzarekin erlojua apuntatu zuen, «Non sartu haiz? Hainbertze denbora!». Marmarka sartu zen kamioian. Hankartea bustia nuen, eta odola kolpeka sumatzen nuen oraindik kopetaren paretetan. Arantzako errepidean zorabiatu egin nintzen eta goitika bota nuen bide bazterrean.

Anaiak erran zuen igual sukarra izanen nuela, bero sa-
parengatik segur aski.

Arratsean neka-neka egina sartu nintzen ohatze-
ra. Begiak itxi baino lehen, zintzilik nituen posterreta-
ra joan zitzaizkidan begiak. Janis Joplinek irri egiten
zidan bere begi txiolduekin, antiojo borobil handiak
sudurraren puntan. Ote zekien sorgin hark zer gertatu
zitzaidan arratsaldean? Argia itzali eta buelta eman
nuen bertze aldera.

Eskua maindire azpira irristatu zitzaidan, anaia tti-
kiaren bila. Anaia ttikia! Nik ez nekien zer zen Padre
Marcelo ero hark erakutsi zidan arte. Institutura joan
aitzineko urtean izan zen. Eskolatik ateratzean, bere
kuarto partikularrera eraman ninduen egun batean,
ez dakit zer aitzakiarekin, eta, behin barrenean gine-
la, atea itxi eta hasi zitzaidan, «Erran niri: aritzen haiz
jostetan anaia ttikiarekin? E, aritzen haiz jostetan
anaia ttikiarekin?». Eta nik, «Nik ez dut anaia ttikirik!
Arreba, bai, Elen du izena!». Orduan berak gogorrago,
«Ze ari haiz erraten? Eta zer da hau?». Eta pitilina eta
barrabilak esku batekin hartu eta estutu zizkidan.
Hura mina! «Orain erran: aritzen haiz jostetan anaia
ttikiarekin? Errazak baietz, bertzela fuerteago estutu-
ko ditiat!». Ongi ikasi nuen lezioa.

Bertze don Jonas berats hark ere lehenago kontu horiek jakiteko gogoia biztua zigun, konfesatzera joaten ginenean galdezka hasten baitzen, «Ukitzen zara? Zera ukitzen duzu?». Zer ukitu, ordea? Ez genion konprenitzen, baina esplikatzeke galdetu ere ez. Beharrik bagenituen lagunak. Arraitz zen jakintsuena. Eskuak behar zen lekuan paratu eta keinu garbia eginez, «Galdetzen dik aber kaskatzen duken! Ez dakik zer den hori? Bostekoa baten kontra aritzea, motel!».

Gauerdian izerditan txipatua ernatu nintzen. Kanpoan trumoia lehertua zen, nonbait. Galerna itsaso aldetik sartu. Euriaren tarrapata aditzen zen etxearen gainaldeko gaztainen hostoen kontra. Pentsatu nuen ez zela musika hoberik asmatzen ahal pertsona lasaitzeko. Soseguan, berriz ere lo gelditu nintzen, gozogo.

Aste bat bertzerik ez zen falta amaren laguna bere senarrarekin Parisera bueltatzeko, eta ama nerbiosten hasi zen nire pasaporteia ez zelako ailegatzeko. Ez zitzaien normala iruditzen, eta aitari galdetzera joateko erran zion: «Zoazte, aber non diren mutikoaren ditxozko paper horiek!».

Bera muga-herria baita, guardia zibilen kuartelaz gainera, bazituen orduan aduana eta polizia zerbitzu bereziak, non eta hain famatua den Alzateko karrikan, hain zuzen ere. Lerroz lerro jarriak diren estilo bertsuko etxe zaharren artean txertatua zuen Espainiako Gobernuak bere morroierna, multzo osoaren iduri ederra txoil izorratzen zuena. Arrotz, baina harro. Halako gauza bati erraten zaio adabaki gaizki ebakia izatea. Haraxe joan ginen aita eta biok eguerdian, goizeko partitze lanak egin ondotik.

Bi gizaseme zeuden ofizina barrenean. Begiratze-ko manerak urruntasuna adierazten zuen. Ezagun zuten ez zirela gutaz fidatzen, nahiz eta ederki jakin nor ginen. Beharbada horregatik ere bai. Gazteenak txaketa marroi argia zuen soinean. Hitzik ez zuen erran, baina zeharka bijilatzen gintuen denbora guzian, muturra okerturik.

Zaharra gure aitaren adina zen, eta ez zuen bertzeak bezain kokina ematen. Huraxe hasi zitzaigun ea zertara joan ginen, deus ez baleki bezala. Aitak berezkoa zuen goxotasunarekin eman zizkion argibide guziaz. Nola pasaportea aspaldi galdetua genuen, hurrengo astean Parisera joateko, eta harriturik ginela ez zelako oraindik ailegatu. Gizona paper artean bilatzen

hasi zen, itxura egiten. Halako batean karpeta moduko batetik paper bat atera zuen. «Martín Irazoqui Endara», erran zuen poliki-poliki, «Denegado!». Aitari amultsutasun guzia kolpean joan zitzaion. Kopeta zimurtu, eta ezpainak luzatu zituen, solasari bidea eman baino lehen. Ez zuen entenditzen nola ukatzen ahal zizkidaten paperak. «Pero... ¡bueno! ¿Cómo es posible?», ezin zuen sinetsi. «Mire usted...» hasi zen ilezuri hura, bagenekielan nola zegoen afera, informe batzuk agertu zirela, ikusi zutela izan genuela familia «un caso delicado»... Gazteak disimulurik gabe begiratzen zigun orduan, kasu emateko erranez bezala, deus egiten bagenuen han zegoela bera zernahitarako prest. Aita erotu zen eta oihuka hasi zen, «¡No hay derecho!», ez zegoela eskubiderik! Bi poliziak soraio. Handik alde egin baino lehen nik neronek behin ere aditu ez niona bota zuen: «¡Si yo estuve cuatro años sirviendo a la causa!».

Eskailerak beheiti, aurpegira begiratu zidan. Gorri-gorri zegoen, koleraturik eta, nik uste, lotsaturik ere bai, erranarazi ziotenagatik. Bere extul ttiki hura egin ondotik, «Dena gezurra da!» erran zidan, «Dena gezurra da!» segitu zuen behin eta berriz, etxera ailegatu ginen arte.

RINUS XIBURU

Alkasoron ez zen sekula gazteen ekiporik izan, ezta bertzelakorik ere. Ordea, zelai eder bat bage-nuen, trenbide zaharraren estazioaren ondoan. Eta geltokiko etxe abandonatuan aldagela moduko batzuk ere baziren, norbaitek noizbait eginak. Bada, zelai hartan aritzen ginen ostikoka, baloiari gehienbat. Eta hortik, hoberexkoenak zirenak beratarrek edo lesaka-rrek fitxatzen zituzten agudo, eurekin aritzeko.

Partida gogorak izaten ziren igande arratsaldeetan. Larruzko baloi gorri ttiki batzuk ibiltzen genituen, Zahor txokolatearen kromo bilduma eginda ematen zituztenak. Jo eta fuego, haiek urratu arte. Akabatzean ondoko dendara joaten ginen, limonada botila batzuk eroatera, etxetik eramano ogi eta txokolatea-ri laguntzeko. Guk izerdia parrastaka isurtzen genuen bitartean, ez zen harritzekoa Rinus Xiburu han barna ikustea, guri begira. Liburu edo errebigaren bat besapean harturik paseatzen ibiltzen zen, fabrikan lanik ez zuen egunetan.

Ikusten genuen aldiro Gabika txorakerietan has-ten zen, «sex, sex» erraten, eta denei irria eskapatzen

zitzaigun. Baina ni beldur egoten nintzen aditu eta ez ote zen gurekin haserretuko. Kontu zahar bat zen. Izañez ere, aspaldi, arratsalde triste batean, Mateo, Gabika eta hirurak Kasinoko futbolinean ari ginela, gurekin hasi zen hura ere, bi biren kontra aritzeko. Halako batean, galdetu zigun inork inoiz deus esplikatu ote zigun sexu kontuen gainean. Guk ezetz, eta hark ea nahi ote genuen ikasi umeak nola egiten ziren eta horrelako istorioak. Bere gelara eraman eta liburu potolo bat erakutsi zigun. Oroitzen naiz hango iduriez, nola ageri ziren gizonak eta emakumeak larrugorritan, pitittoa, pottotta, titiak... Hiru lagunok elkarri begiratzen genion, zer erran jakin gabe! Baina bera serio, horiek ere ikasi behar zirela.

Bertze behin bakarrik harrapatu ninduen. Izebak herriko bestetan erosi zidan kamiseta ikusirik, han ageri zena nor zen ote nekien galdetu zidan. Che Guevara zen, baina ideiarik ere ez nik. Gerraren batean ibilia zela bai, baina hortik aparte deus handirik ez. Superman edo Capitan Trueno gisako bat ote zen. «Ikasi nor den! Jakin behar dira gauzak!» erran zidan, erdi errieta eginda. Horrelaxekoa zen.

Aspaldi etorria zen gure herrira, mugaren bertze aldetik, Ziburutik. Ez jakin zergatik, baina batzuek

erraten zuten hango Poliziatik eskapo, ez zuelako gerrara joan nahi izan. Apopilo bizi zen Kasinoan, ostatu-ko nagusiekin eta haien alabarekin batera.

Kasinoko etxeoandrea, Ines, Mines zenaren alaba, hagitz emakume ederra eta sinpatikoa zen, irria eta broma bertzerik ez zuena, eta gure amak erraten zuen harekin ez ote zuen zerbait «mutil frantses» hark, baina ez zela batere harritzen, halako senarra izanda, «Eugenio hori baino gizon zerbelagorik!».

Arrazoia izaten ahal zuen, ez baitzuen ematen Eugenioren sobera inporta zitzaionik. Hura ere beti umore onez ikusten genuen. Guri pintxoak kobratu gabe ere igual ematen zizkigun! Eta bistan zen Rinusekin ere ongi moldatzen zela. Andrearekin baino maizago ikusten genuen harekin erausian; sekula ez jenio txarrez. Etxe hartan gustura egoten ginen. Burdinazko futbolin elegante hartan gustura aritzen ginen, eta etxeo alaba gure adintsua zen. Malixa zuen izena, *Malizia* erraten genion.

Uda hartan ikasi genuen Ziburuko mutil arraroa itsua zela futbol gauzetarako. Alemaniako mundiala izan zen, eta hantxe egoten zen arratsaldero partidak ikusten telebistatik begirik kendu gabe. Ezagutzen zi-

tuen munduan famatuak ziren taldeak eta jokalariek: Kempes, Beckenbauer, Rivelinho, Lato, Burgnich... Baina gehienbat Holanda aipatzen zuen. Erraten zuen ezin zela sinetsi jokalaria haiek egiten zutena. Ezin izan zutela irabazi, baina haiek zirela dudarik gabe hobere-
nak: Cruyff, Neeskens, Krol, Rensenbrink...

Horregatik, Alkasoron gurekin futbol ekipo bat egi-
tea gogoratu zitzaionean, segituan paratu genion
behar zuen izengoitia, holandarren entrenatzaileare-
na: Rinus. Gainera, harekek bezalako bekainak zituen,
goiti ube egiten zutenak.

Ustekabean egin zigun proposamena, «Nahi
duzue ekipo bat egin, bertze herrien kontra kanpeona-
to bat jokatzeko?». Txoratu egin ginen! Segituan hasi
ziren batzuk erraten non ariko zen bakoitza: Balentin
delantero, Beltxa defentsa zentral, Antonio erdian...
Baina berak isilik egoteko eta txorakeriak alde batera
uzteko. Fundamentuzko deus egin nahi bagenuen,
kasu egin beharko geniola, bera izanen zelako entre-
natzailea. Hurrengo egunean berean hasteko gelditu
ginen.

Arratsalde hartan, gu zelaira joan ordukoz hantxe
zegoen hura, txandala jauntzita eta lepotik zintzilik
txistu bat, aginduak emateko prest. Entrenamendu

gogorak egiten hasi ginen. Izerdia galanki bota genuen belategi zahar hartan! Gimnasia eginarazten zigun, eta gero lasterka, eta ondotik jokada bereziak erakutsi ere bai. Liburuxka bat bazuen, eta handik ateratzen zituen komeria haiek guziak.

Leher eginak uzten gintuen, baina asteko azken entrenamenduaren ondotik saria izaten genuen beti. Kasinora joaten ginen, eta han freskagarri batzuk edaten genituen entrenatzailearen kontura. Gero batzuek futbolinean partida bat jokatzen genuen, etxera abiatu baino lehen. Rinus mahai batean jartzen zen, eta Inesek segituan merendu-afaria ekartzen zion. Kafea hartzeko orduan emakumea ondoan jartzen zitzaion eta biak kontu-kontari aritzen ziren. Senarrak ezikusiarena egiten zuen eta txistuka segitzen zuen mostadorean, edo guregana etortzen zen, bromak egitera, «Zer ikasi behar duzue Xiburu kalamidade horrekin!? Ohatzea egiten ere ez daki-ta!». Guk lepoa luzatzen genuen, ea sukaldeko atletik Malixa ikusten genuen. Eta sorgin hura, gu sumatu bezain fite, nahi gabe bezala agertzen zen ostatura behin eta berriz, zernahi aitzakia. Zeharka begiratzen nion disimuluan, eta frankotan bera ere gauza bera egiten harrapatzen nuen.

Horrela ibili ginen zenbait astez, eta egun batean Rinusek espero genuen berria eman zigun. Txapelketa bat jokatu behar genuen sei herrietako gazteen artean. Harrobiko nagusi berriak arropak erosiko zizkigun, denak igual jauntziak egoteko, marra zuri-gorriekin, Bilboko Athletic bezalaxe. Denak ez ziren konforme, baina ni bai, huraxe bainuen gustukoa. Baloiarri ematen nion bakoitzean Fidel Uriarte nintzela egiten nuen amets. Harrobiaren izena paratu behar izan genion taldeari, nahiz eta Tomas Tturkori batere grazia-rik ez egin: Etxandi F.C.

Neskak ere arratsalde frankotan etortzen ziren nola entrenatzen genuen ikustera. Arrazoi bat gehiago gu zelaira batere kexatu gabe joateko. Igual zion euria edo kazkabarra egiten bazuen, gu denak hantxe zintzo-zintzo ongi tenorez, lohiz oratzeko beldurrik batere ez. Uste dut bolada hartan guk ere lepo gainean baloi bat izan genuela buruaren partez. Eta Rinus hasi zen pentsatzen nork non jokatuko genuen.

Tomas Tturko atezain paratu zuen, jokalaria bezala desastre samarra zelako, baloia Urrabiara ez dakit zenbat aldiz bota ondotik, eta harekin batera Gabika ere bai, nonbait paratzeagatik, kuadrillako kaxkarrena bera baitzen. Defentsan, Barrentxeko bi anaiak, eskui-

nean gazteena, Antonio, partidu osoa goiti eta beheiti lasterka pasatzen zuena, sekula nekatzen ez, eta erdian bertzea, Beltxa, bere lana beti ongi betetzen zuena, batere espanturik gabe; haren ondoan Andres Tanke, kontrario guziak ikaritzen zituen, erraten baitzuten ero zegoela; eta ezkerretik Arraitz, hura ere kasu ematekoa, ezkerreko hanka segaren modura manejatzen baitzuen. Zelai erdian, hiru lagun: eskuin aldetik ni, baloiarekin bi metro segidan egiteko gauza ez, baina jesukristoren borondatea lanerako eta jendea animatzeko; erdi aldetik Mateo, itxuraz kiloren bat sobrante eta motela, baina inor baino abilagoa gaiztakeria gordeka egin behar baldin bazen eta uste-kabea gola sartzeko; eta ezkerrean Balentin, ekipoko hoberena akaso, baina alfer samarra; «Hezur nagusiko mina dik horrek!», oihu egiten zuen Txapasek bazterretik. Eta aitzinean bertze hiru: eskuinean Xatur, ttikia eta arina, artista xelebrea, kapaz baitzen ia partidu osoa baloi bat ukitu gabe pasatzeko, baina gero, igual, hondarreko minutuan sekulako jokada egin eta gol sartu ere bai; erdian Astibia, mutil segaila, elegantea, alde guzietara ongi jokatzen zuena, ekipoko figura; eta ezkerretik bertze jokalaria ttiki bat, Luixito Tximista, bizia eta bizkorra. Gero, baziren bertze bi

gehiago, nonahi aritzen ahal zirenak, edo inon ez, ez gogo izugarririk ez trebezia berezirik ez zutenak: Juanjoxe eta Joxemartin, anaia bizkiak. Horra hamalau mutiko Holandako selekzioaren markak hausteko prest!

Jazinto ere sartu zen taldean, laguntzaile. Entrenatzen aritzen ginelarik beti guri begira egoten baitzen, «Hi, hator hunat!» erran zion egun batean gure xefak, «Sekretarioa behar diat! Nahi duk nerekin aritu?». Eta mutikoa eroturik kontent, baietz. Berak biltzen zituen zelaitik kanpora joaten ziren baloiak. Lehenago ez nuen sekula inor ikusia mainguka halako ziztuan ibiltzen batetik bertzera. Partida egunetan kirol poltsa horietako batean ura izaten zuen, jokalariei emateko, eta botikina ere bai: benda batzuk, esparatrapua, merkromina... eta Linimento Sloan, milagroak egiten zituen likido ilun bat, harekin izterrak eta aztalak igurtzi eta usain fuerte bat uzten zuena. Larrua diz-diz gelditzen zen, lustrea emanda bezala. Gabiak erraten zuen korredore profesional guziek hankak berotzeko erabiltzen zutela. Eta bertzetan ez, baina horretan Gabika *Coppik* bazekien, ziklismoa zuelako bere bihotzeko afizioa. Hark ere bazuen karrerretako bizikleta, Juanitok bezala, eta aski polita gainera!

Etxalar, Arantza, Igantzi eta Lesaka bisitatu genituen. Azkeneko partida beratarren kontra jokatu behar genuen, maiatzaren hamazazpian. Huraxe zen denok jokatu nahi genuena! Bera herri kozkorra zen gurearen ondoan, eta hangoek ez zuten alkasoroarrak mendratzeko batere kuidadorik izaten. Gurea herri kaxkar bat bertzerik ez zela erraten ziguten, «Alkasoro, Alkasoro, bi etxe txar ta lau txoro!». Gainera, Gure Txokoak jokalaria euren ustez onak zituen. Denek profesionalak izan nahi zuten, Donostiako Realak herriko mutil gazte bat fitxatu zuenetik. Kontu harekin burua berotua zuen batek baino gehiagok. Bagenuen uste-kabeko pollit bat emateko gogo berezia.

Jokatzeko eguna hurbildu ahala, etxeko ostatuan jendea apustuak egiten hasi zen gure kontura. Gehienbat Martin Tranpa aritu zen horretan. Hura bere saltsan! Baina bertze batzuk ere bai. Ez bakarrik nork irabazi edo galduko. Klase guzietakoak egin ziren, zein baino zein xelebreagoa!

Inoiz baino gogorrago entrenatu genuen aste hartan. Eta, halako batean, bi egun bertzerik falta ez zirela, ezbehar gogorra suertatu zen: atezaina lesionatu! Tomas Tturko sekulako partidak egiten ari zen. Mutil handia zen eta ez zuen tokirik uzten baloia inon-

dik sartzeko. Kontrarioek etsia ematen akabatzen zuten, golik ezin sartu. Tomaszewski erraten genion, Poloniako selekzioko porteroaren izena. Igeltsero lanean ari zela, eskuin eskuko erdiko behatza puskatu zuen, eta ez zen posible iganderako sendatzea. Zer egin? Rinusek aukera gutti zuen, Gabiak edo bizkitakoa batek ari beharko zuen.

Gehienok erdi marmarka hasi ginen, erokeria iruditzen zitzaigulako haietako inork jokatzeari. Partida beratarrei erregalu ematea zen. Baina Rinusek serio erran zigun ekipoa hamalauron artean egiten genuela. Gero Gabikari begiratu eta honela erran zion: «Igandean hi izanen haiz gure porteroa». Gabika! Gorpuzteaz ttikia eta futbolearen gurekin gogo txarrez aritzen zena! Bere atean gola sartzeko kapaz! Hala ere, hark inongo beldurrik ez. Uste duzu apuratu zela? Bai zera! Ez ikusi izatera ez nuen sinetsiko, baina saltokan hasi zen, kontent!

Egun seinalatuan Alkasoro erdia erromerian joan zen Bera aldera. Automobilak, bizikletak, motoak... Eta oinez ere ez gutti! Gure etxera goizean mandatuak egitera etorri ziren emakumeak animoak ematen niri, «Benga, Martin! Ez utzi beratarrei irabaztera, e! Horixe bertzerik ez dugu falta: oraindik gehiago harro-

tzea!»). Tturkoren ama, Xole, beti bezala, irri ajarika, ttantta kopa esku batean eta hartan bustitzeko pastela bertzean. Ostatura etorri ziren gizonak ere igualtsu. Inaziok erran zidan tragoxka bat edateko partida aitzinetik, «Whiskia, amerikanoen modura!», harekin biztuko nintzela. Denen artean ederki nerbiostu ninduten.

Gure Txokoaren Agerra futbol zelaiak bueltan-bueltan zuen hesian ez zen zirritu bakar bat ere gelditzen, jendeak toki guzia hartu baitzuen. Arratsaldeko bortzak zintzilik zirela, Bixentek erretratua egin zigun jokalaria guzioi, eta pixka bat geroago Joakin larrugorritan sartu zen zelaira bere belozipedoarekin, aitzineko gurpila handi-handia eta gibealekoa ttiki-ttikia zituen aspaldiko bizikleta harekin. Arbitroak handik alde egiteko agindu zion, txistuka bere indar guziarekin, eta ikusle batzuek ere txistu gehiago egin zioten, bai eta zakarkeriaren bat erran ere, baina jende gehiena irrika hasi zen, eta hark buelta osoa eman zuen, txakur beltz bat saingaka segika zuela. Gero ikasi genuen noren arteko kontua izan zen: Cointreau botila eman behar izan zion Klaudiok. Feliziano gure atearen gibelean paratu zen, gurutze bat bi eskuen artean. Jaun-

goikoaren laguntza ere bagenuen! Berriz ere ero fama alkasoroarrek.

Nolanahi ere, futbol kontuan, beratarrek uste zuten egurra emanen zigutela aisa, baina justu-justuan irabazi ziguten. Nik sekulako partida jokatu nuen, gehienbat eman zidaten baloikadaren ondotik. Partida hasi eta segituan, badakizue, harako haietan hartu nuen, «koskoiloetan» erranen luke Arraitzek. Bete-betean, eta hatsa ezin hartuz gelditu nintzen lurrean. Jokoak segitu zuen, baina nik ez. Rinusek kontseilu ona eman zidan bazterretik oihuka, «Martin, egizak pixa! Egin pixa!». Zer nahi zuen? Pitittoa ateratzea zelai erdian? A ze kolera! Nire buruari gogor egin behar izan nion, «Benga, altxa!», eta kolpean zutitu nintzen, minaz oroitu gabe. Egia errateko, dena ez zen kalterako izan. Badakizue zer den akuilua? Orduan ikasi nuen nik: handik aitzinera laster batean ibili nintzen alde batera eta bertzera. Bixigarria behar duenak botika bera probatzen ahal du.

Baina, nirekin batera, jokadarik hoberenak gure porteroak egin zituen, Gabika xelebren hark! Ongi famatu zen egun hartan. Inork ez genuen batere federik zer eginen zigun, baina txoil harritu gintuen. Inondik ere ezin golik sartu hari. Bere burua postura guzietan

bota zuen lurrera eta kontrarioen hanketara. Rinus bera izutu zen, «Kasu eman ezak burua hautsi gabe!» erran zion dozena bat aldiz. Ez zuen inorena puskatu, ez berea ez bertzerena. Eginahalak egin bai! Azkene-ko minutuan, suerte txarreko jokada batean, erdi txirripaz sartu ziguten gola. Bi eta bat beratarren alde! Partida galdu, eta gu izorratuak, baina, aldi berean, arrunt kontent!

Partida ondotik, gorputza urraturik, ur beroaren zorrotaren azpian sartzea gauza zoragarria izaten zen, eta egun hartan sentsazio hura are hobea izan zen. Gorputzak eskutrapuz igurzten ari ginela, denak oihuka eta zalapartaka, bisitari bat sartu zen, abisatu gabe, Rinus zerbait eske joana zela aprobetxatuz. Emakume ikusgarri bat zen, zapata takoi luze batzuen gainean, begiak beltz eta ezpainak more pintaturik, eta kolkoan guretzat haragi sobera bistan. Arraitz ziztuka hasi zen, eta gainerakoak lotsaturik, gorputza ahal genuen bezala tapatu nahian. «¡Qué chicos más guapos!» erran zuen, banaka-banaka galdeka hasi baino lehen, «Y tú, ¿hijo de quién eres?». Nire txanda ailegatzean, bertzeekin bezalaxe, ez zuen ama aipatu «¿Hijo de Ramon?». Gu harriturik, zer erran ez genekiela, «¡Qué ojos más grandes!... ¡Y qué labios!». Ni

gorri-gorri, eta berak, goitik beheitiraino begira, «iTodo grande!» bota zuen errematea. Ni ez gainera-ko guziak leher eginak. Madrilen bizi zen, harat esposatuta baitzen gerraondoan bera baino dezente zaharagoa zen koronel edo jeneral batekin. Egun batzuk pasatzera etorria zen jaioterrira, Berara, eta gazte denboran Seierrietan izan zituen konkista guzietz oroitzearekin disfrutatzen zuen, nonbait. Goraintziak eman zizkigun gure aita guzientzat, Rinusek uxatu baino lehen.

Partida haren ondotik entrenamenduak egitetik gelditu ginen. Rinusek bakazioak hartu gogo zituen fabrikari, eta familia bisitatzera joan behar zuela erran zigun. Uda pasatu eta gero hasiko ginela berriz. Baina jokalariori halako hondar ona utzi zigun futboleko egituko abentura hark, hurrengo astean gure aldetik merendu berezia egitea pentsatu genuen. Besta partikular bat, futbolaren kontura.

Gabikaren familiaren etxe gibeledu etxolan juntatu ginen. Arroltzeak, xolomo-xerrak eta gasna. Dene- tik nahi adina, ausarki. Ardoarekin behar baino gehi- go busti genuen zintzurra. Kafe beltza ere edan genuen, eta patxarana ere bai. Rossli batzuk atera zituen Luixitok, eta denak kea jarioan hasi ginen, tximi-

niak bezala, bakoitzaren baitako suaren ordaina. Arraitzek pixka bat txerbeldu ginela erran zuen.

Mahaitik altxatu ginenean, kanpoan ilun zegoen. Batzuek erretira egiteko tenorea zela pentsatu zuten. Tomasek ez nahi, ordea, etxera joan. Goizegi zela eta hondarreko xurrupa hartu behar genuela nonbait ere. Malixari bisita egin behar geniola. Nik ez nuen bertzerik aditu behar izan. Gabika eta Mateo ere seguru gunituen. Antonio eta Arraitz ere animatu ziren. Tturkok automobilaren giltzak atera zituen sakelatik, eta erdi ziraldoka segitu genion gainerako bortzok. Behatza oraindik ere igeltsuarekin zuen, baina gidatzeko mol-datzen zen, «Hau ez duk behatza, radioaren antena duk!».

Sei lagun land-rover zahar batean. Aziendak bezala, erran zuen Arraitzek. Egun hartan behinik behin, ez zen diferentzia handirik, arima ere kontuan harturik. Makina martxan jarri eta hantxe abiatu ginen irrintzi-ajarika denak.

Tturkok ustekabeen «Goazen lehenbiziko Bera aldera, espantu batzuk egitera» bota zuen, ezpainetik zintzilik zuen Rossli muturra ikararaziz. Gure Txokoaren kontrako partida galdu genuen, baina irabazi bagenu bezala gurutzatu nahi zuen ondoko herria, tarte-

ka klaxona jotzen, alkasoroarrak haiek adina edo gehiago ginela erakusteko.

Jenderik ageri ez, kamioaren bi aldeetako arbolen adarrekin arkuia eginez eman ziguten ongietorria. Alzate aldera jo genuen. Tturko bolantea ezker-eskuin biratzen hasi zen, sigi-sagaka, txorakerietan. Argiak alde guzietara dantzatzen, land-roverrak guk baino mozkorrago iduri zuen. Bat-batean, bide erdian argi tiki bat ateratu zen iluntasunetik eta Arraitz oihuka hasi zen, «Kasu! Kasu! Frenazak, frenazak! Geldi hadi! Geldi hadi!». Ez zen ipurtargia. Norbait ari zitzaigun gelditzeko keinua egiten. Aski ezagunak genituen uniforme berdeak eta uhal beltzak ikusi genituen orduan.

Linterna baten argiak begiak itsutzen bazizkigun ere, agudo ohartu ginen nor genuen txoferraren leihatilatik barrenera begira. Hugo zen, Berako kuarteleko guardia zibil ezaguna. Laguna aitzintxeago zuen, fusila gure aldera, hitzik erran beharrik ez guk entenditzeko. Hura ere ezaguna zen, Berako ekipoan gure kontra aritu zen mutiko baten aita. Eltzetzuak gure txoferra segituan ezagutu zuen, «¡Hostia, Turco! ¿Estás loco o qué? ¡Qué cojones andáis los de Alkasoro por aquí!».

Tomasek behatz puskatua kopetan paratu zuen, tente-tente, «¡A sus órdenes, mi comandante!». Hugoren beraren hatsak garbi salatzen zuen gizona ez zegoela gu baino hobeki. Neure burua kuarteleko kalabozean ikusten nuen. Zertarako joan ote ginen Bera-
ra! Zernahi pasatzen ahal zen han! Suerte handia izan genuen, ordea. Segitzeko eta bakea emateko, baina ezin zela manera hartan ibili eta hurrengoan ez zigutela barkatuko. Ederretik libratu ginen! Atsedean hartu genuen hura aditzean! «Adiooos!!!» erran, eta ziztu bizian abiatu ginen handik.

Onean harrapatu genituen, eta, gainera, oraindik ez zen politikaren su bizia Seierrietaraino ailegatu. Hala ere, bistan zen zerbait aldatzen ari zela. Muga hurbil baitzen, Berako eta Lesakako kuarteletara guardia zibil berriak etorriak ziren urte pare bat lehenago. Haien artean Hugo hori. Elementu gogorra! Kastigu modura ekarri omen zuten goiti aldera ez dakit nondik, han deskalabru handi samarren bat egin zuelako. Harekin batera gazte buruberoak ere ekarri zituzten. Arriskutsuak, muturra bustita ostatuetan urguilu handiarekin ibiltzen zirenak.

Hegaka bueltatu ginen Alkasorora, burua gibelera egin gabetanik. Pentsatu bezala, Tomasek Kasinoaren

ondoan aparkatu zuen automobila. Haur harrotuen gisara sartu ginen ostatura seiak. Inor gutti zegoen barranean, lauzpabortz lagun bertzerik ez. Ustekabea izan zen Malixa zerbitzatzen ikustea. Harritzekoa han Eugenio edo Ines ez izatea. Rinus ere ez zen ageri.

Egarririk ez genuen batere, baina pattarra ateratzeko galdetu genion etxeko alabari. Bertze kopa bana patxaran. Kazkabarra seguru genuen gero. Ez zen lehenbiziko aldia izanen, baina ez genuen eskarmentatzen. Lagunak burdinazko futbolarien mahaira joan ziren eta ni barran gelditu nintzen. Malixa basoak garbitzen ari zen, kopetabeltz, bururik altxatu gabe. Sukaldera joateko atea bulkatu zuen, eta istant batez haren ama ikusi nuen, Ines, begiak zapi batekin xukatzen, negarrez ari balitz bezala. Ondoan ahizpa zuen, harekin solasean.

Komunera bidean Inaziorengana hurbildu nintzen, lasai ederrean telebistako futbol partidari begira baitzegoen. Ohartua zen dibertsioa genuela, eta bromatan hasi zitzaidan: «Martin, bandido hori, amak ikusten bahau!». Hortik ez nuen segitu nahi, eta Inesi zer pasatzen zitzaion ote zekien galdetu nion. «Ez dakik o ze?», erran zidan isilka, bere begi ttikiak oraindik ere ttikiago, «Bi gizonak joan zaizkiok! Elkarrekin!». Ez

nion entenditzen erraten zidana. Hobeki esplikatu zidan, «Bazkalondun Eugenio eta Xiburu elkarrekin harrapatu ditik, bi-biak ohatze berean, eta jesukriston jaleoa armatu izan behar dik!». Ez nuen harrapatu kontesta emateko balio zuen hitzik. Lagunei deus kontatu gabe, denei adio erran eta etxera joan nintzen segituan.

Buruko min mundialarekin ernatu nintzen bihar-mun goizean. Tripak ere nahiko nahasiak. Kategoriako bestondoa. Sukaldera joan nintzen, baina ez nuen deus hartzeko gogorik. Ama dendan lanean ari zen, eta deitu nion aspirina bat emateko. Ordukoz notizia herri osora zabaldua zen eta amak ere ederki zekien Kasinoan izan zenaren berri. «Eugenio!...», erran zidan, «...zuen entrenadore horrekin!». Burua goiti eta beheiti mugitu zuen, ezin sinetsi, «Izorra hadi, Piarres!».

TXULAPAINDAR BAT IRUÑEAN

Alkasorotik Iruñera astelehen goiz batean, Bidaso-tarra zaharrean, trailerren ke zikina irentsita, Belaten barna! Donezteben *Hoja del Lunes* erosi nuen, futbol partiden kronika guziak ikusteko, baina ezin bi lerro segidan leitu. A ze beldurra!, goitika ez ote nintzen hasiko. Buruko min hura ere zer zen? Bezperako ardo kaxkarra ari zitzaidan lanean estomakako zirritu guzietan. Neure buruari erraten nion azkeneko aldia izanen zela, baina ez zidan sinesten. Astelehen hartan ere kostako zitzaidan gorputzaldi txarrari buelta ematea. Erdi herrestaka eraman nuen maleta Zaragozako etorbideko gure estudiante pisuraino.

Ni etxera sartu, eta istanterako ailegatu zen Xabi. Gure amak eginiko bizkotxoaren usaina segituan sumatu eta nire gelara etorri zen. Hark ere betikoa ekarria zuen: etxeko gasna eta arroltzeak. Harenetik edo guretik jaten genuen aldiro etxeko sukaldean bezala sentitzen ginen. Burua harat joaten zitzaigun hegaka. Usain eta gustu haiek! Egun hartan sekula ikusi gabe-

ko zerbait ekarri zuen, fruta berezi bat, sagarraren iduria. Erran zidan «membrillo» zuela izena, baina nik izen horrekin bertze zerbait ezagutzen nuen, lata handi batzuen barrenean etortzen zen gauza gozo bat, ezti gogortuaren itxura zuena. Xabik, ordea, ez zuen hura jateko ekarri. Usain egiteko zela erran zidan, eta aroma fin bat hartu nion. Bere armairuan sartu zuen, arropei ere urrin hura eranstekoa.

Txulapain ibarrekoa zen Xabi. Non arraio ote zegoen izen aldrebeseko paraje hura? «¿No conoces Markelain?». Hura aditua bai, amatxi Margaritak maiz kantatzen zuen haur kanta batean aipatzen baitzuen, «Xangolo-mangolo..., ona bada Markelaingo...», baina hortik aparte deus ere ez. «Pues, cerca de allí está nuestro pueblo...». Beharrik mapan bilatzen banekien. Nolanahi ere, harentzat ere arras arrotza zen gure Alkasoro. Mutil sanoa zen, eta ongi moldatzen ginen elkarrekin. Klase berean geunden Opusen, Biologia ikasten. Ez sobera gustura, egia erran. Aipatzen zidan ez zuela laketzen, ez Iruñean, ez unibertsitate triste hartan. Izanez ere, hark argi zuen artzain izan nahi zuela, eta herri ttiki batean bizi, bere herrian ahal izatera, eta mendia sentitu. Horretarako titulu beharrik

ez oraindik. Baina etxekoek nahiago zuten eskolan pixka bat gehixeago saiatzea.

Koldoren kuartoa itxia zegoen, oraindik lo segitzen zuela seinale. Norbaitekin egonen zen, ez baitzitzaien ohatzean bakarrik egotea gustatzen. «Beldurtzen» zela erraten zuen! Tolosarra zen, Ramontxoren lagun baten anaia, baina hagitz bakan joaten zen herrira. Huraxe genuen pisuan buru, bertan baitzegoen lehen-dik. Kazetaritza ikasten ari zen, nahiz ez zuten maiz ikusten eskolan. Politika kontuetan fuerte sarturik zebilen. Aitzin hartan, Txiki eta Otaegiren eta FRAPeko hiru militanteen kondena eta fusilamenduekin eroturik ibili zen. Suaren erdi-erdian ibili zen egunero. Obsesionaturik bizi zen mundu guzia txibatoa zela uste zuelako, eta koleratu egiten zen gurekin horregatik bere idurikoz sobera inozenteak ginelako.

Laugarren bizilaguna, berriz, geroago agertuko zen. Emilio, Larragakoa, futbolaria eta parrandazale terriblea. Osasunatik deitu zioten proba batzuk egiteko eta entrenatzera joaten zen astean hirutan. Sasoi izugarria zuen, eta baloika ere, dudarik gabe, ez zen txarra izanen. Fundamenturik ez zuen ordea. Etxeko lanetarako ere ez. Garbiketak egin behar zirela eta, harekin kasaila izaten zen beti. Haserretu ere bai,

behin baino gehiagotan. Beharrik tarteka hark ere gauza goxoak ekartzen zituen herritik: barazki potoak, esparragoak, piperrak... Haiekin agudo adiskidetzen ginen berriz.

Arratsaldean, Kimikako klasea genuen lauretan. Gizon motel bat zen irakaslea, talo aurpegi bat, jendea lokartzeko espeziala. Haren ondotik Zitologiako zitala etorri zitzaigun. Halakoak genituen gehienak, batzuk tristeak eta bertzeak gaiztoak. Fakultateak iduri zuen ferietan izaten diren beldurrezko etxola horietako bat, jende gaixoa ikaratzeko prestatzen dutena. Ez zen Xabi etxe hotz hartan laketzen ez zuen bakarra. Nik ere makina bat aldiz pentsatu nuen handik norabait eskapo egitea. Indarrik aski ez, ordea.

Klasetik ateratzean, eskailburuko pasabide zabaLEAN erausian ari ginela, bat-batean paper pila bat ikusi genuen airean, elur lumen modura. Goitieneko solairutik bota zituen norbaitek, eta haren azpiko guzietan zeuden balkoi modukoetan eta beheitiko sarre-rako plazan barna hedatu ziren. Mutil bizardun bat lasterka ikusi nuen eskailerak beheiti itoka, eta haren ondotik neska ile-motx bat, ezaguna iruditu zitzaidana.

Ez ote zen hura Irungo Axun? Iruñera etorria ote? Atezainak segituan hasi ziren paper guziak bildu nahian, eta ikasle batzuk ere haiei laguntzen. Ezin, ordea, hainbertze ziren! Guri ere eskuetara etorri zitzaizkigun eta bana hartu genuen. «*Huelga general*» paratzen zuen, *Joven Guardia Rojak* sinaturik. Orduan, gurekin zegoen mutil bat, beti zoriontsu iduri zuena, oihuka hasi zen, «¡Libertad de expresión! ¡Libertad de expresión!», eta nik, neure baitan, «Hau ez zegok ongi burutik edo zer?». Baina, harekin batera, Xabi ere nire ondoan igual, are fuerteago, ongi aditzeko moduan. Hori ikusirik, bertze batzuk ere hasi ginen, erdi beldurka. Neska-mutil batzuek alde egin zuten guregandik, zer gerta ere. Bertze solairuetan jende gehiago animatu zen. Irakasleak agertu ziren haien bulegoetatik aterata, euren bata zuriekin, begiak zorrotz-zorrotz nor ari ote ginen bazterrak nahasten. Harriturik zeuden, halakorik ez baitzuten egundaino ikusi beti bake santuan egoten zen kartzela ustel hartan. «Goazen-goazen hemendik ziztu bizian!», erran nien lagunei. Eskailerak salto batean jautsi genituen, eta berehala kanpoan ginen irrika lehertzen denak.

Ilunabarrean gau-eskolan genuen zita, Arturo Campionen. Ni alfabetatzeko talde batera joaten nintzen, Ramontxori kasu eginez. «Gonbesiua» *konbertsazioa* dela deskubritu berria nuen, eta «ainxtin» *arestian* eskribitzen zela. Harrigarria zen buruko zokotan ditugun hitzak paperean nola gelditzen ziren ikustea. Irakasle izateko ere erran zidaten, ez baitzen jenderik aski. Nik ez nuen horretarako prest ikusten neure burua.

Xabi lehenbiziko mailako talde batean sartu zen. Urte hartan erabakia zuen euskara ikasi behar zuela. Kontatu zidan bere aitak ttikitan ez zekiela gaztelaniaz, baina haiei ez ziela erakutsi. Aitaren herrian, Atetz ibarreko Zigandan, maisuak hurritz makilak mozteko agintzen zien eskolako haurrei, eta gero haiekin aztalak berotzen zizkien euskaraz ari zirela aditzen bazien! Txulapainera esposatu eta familiatu zenean, noski, nahiago izan zuen seme-alabek berak bezalako sufrikariorik ez pasatzea. Ez da batere harritzekoa.

Konpainia karrikara ailegatu ginelarik, ikasleak eta irakasleak atarian eta eskaileretan zeuden. Goiko eskailburutik Mikel ari zen solasean, nire irakaslea. Nonbait, aitzineko arratsean gau-eskolako bi irakasle

preso hartu zituzten, pareta batean pintada bat egiten ari ziren bitartean: «*Dictadura asesina. Gora ETA*». Atxilotu baten arrebak kontatu zuen nola gertatu zen. Ihes egitera saiatu omen ziren, baina kale estu bat zen, eta ezin. Lasterkari bizkorrak izanagatik, nola irabazi harraparien automobilei! Gainera, poliziek tiro ere egin omen zuten. Balaz zauritu ez bazituzten ere, orain kalabozoetan zeuden, eta zer ari ote zitzaizkien egiten pentsatze hutsarekin jende guzia ikaraturik zegoen. Zentroko zuzendariak hurrengo egunean Diputaziora joatea proposatu zuen, hango buru egiten zuen Amadeo Marcorekin solas egitera. Gure ondoan zegoen emakume batek transistore bat atera eta beharriaren kontra paratu zuen, Radio Parisen hamarretan ematen zituzten berriak aditzeko. «Terrorismoaren kontrako legea aplikatu omen diete!» erran zuen, eta marmar musika bat zabaldu zen han ginenon artean.

Hurrengo egunean eskutitza hartu nuen Bilbotik, Gabikarena. Harat joana zen estudiantzera, Ingeniari-tza karrera egitera. Hala uste zuten etxezoek behinik behin. «Kaixo, opustarra!» erraten zidan hasteko. Iruñeko giroaz galdetzen zidan, eta Potasasko meategiko grebaz, ea joaten nintzen obreroen aldeko manifesta-

zioetara, «Ibili izanen haiz lasterka grisen aitzinean, ez? Hemen giroa gori-gori zegok!». Herrira joaten ginenerako planak aipatzen zizkidan, begiak ireki behar genizkiola herriko jendeari, «Probetxuzko zerbait egin beharko genikek. Jendeak ikusi behar dik baditugula sentimendu batzuk, eta badirela problema aunitz, konpondu beharrak...». Lehenbiziko kuadrillan bertan hasiko ginen, gero bilatuko genuen lan egiteko prest zeuden neska-mutil gehiago, eta, dena prest edukitzean, Euskal Kultur Aste bat antolatuko genuen. Ikaragarria zen Gabika hura! Grazia egiten zidan, zeinen bizia eta eroa zen! Neskak kontuak ere ez zituen ahanzten, «Zer moduz habila asunto horietan? Idazten dik irundarrak? Hemen nahiko lan!». Azkenean, espero nuen bezala, parranda aipatzen zuen, «Besta koxkorren bat ere egin beharko diagu...».

Ez denak arrazoi beragatik, baina lagun kuadrilla-ko mordoxka bat herritik aparte ginen. Batzuk unibertsitatean eta bertze batzuk soldaduskan. Bilbon, Gabika eta Barrentxeko bat; Valladoliden, Antonio; Tenerifen, Tturko; Mallorkan, Beltxa; Madrilen, Arraitz; eta Donostian, Luixito. Gainerakoek Alkasoro inguruan segitzen zuten. Lanean gehienek, Bera edo Lesakako fabrikaren batean, edo mugako bentetan, edo ofizioen

bat ikasten bertzela. Asteburua noiz ailegatuko desio-
tan egoten ginen, nahiz eta urrunekoak ez ziren nor-
malean etortzen. Kristoren bestak egiten genituen la-
runbat arratsero: afari koxkor bat, kanta eta garrasi
mahaiaren bueltan, eta nola edo hala gaua luzatu
nonbait. Neska batzuk ere hurbildu zitzaizkigun, eta
haiekin zerbait zibilizatzen hasiak ginen. Denok elka-
rrekin kuadrilla handia egiten genuen. Diru sobranter-
rik ez genuen, baina exkaxean ere ez ginen izaten.
Hura sasoia! «Eta lanikan ez!», Arraitzek erraten zuen
bezala. Nor gu baino jaungoikoago?

Fakultatetik ateratzean, bertze zenbaitetan beza-
la, Ritxar, Xabi eta hirurok etxe aldera abiatu ginen.
Gure karrikatik hurbil bizi zen Ritxar, eta ordukoz elka-
rrekin konfiantza pixka bat hartua genuen, nahiz ez
bera ez gu sobera berritsuak ez izan. Baina laugarren
bat juntatu zitzaigun ustekabeen, gurekin joanen zela
inporta ez bazitzaigun. Bistaz ezagutzen bagenuen
ere, ez genekien nola zuen izena. Bere burua presen-
tatu zuen, «Me llamo Pedro María, ¿Y tú?». Galderak
egiten hasi zen, gurekin interes handia balu bezala,
Xabirekin eta nirekin gehienbat. Ea nongoak ginen,
asteburuetan zer egiten genuen, zer gustatzen zitzaigun... «Zer nahi ote du ergel honek?» nik neure bai-

tan. Halako batean, gonbita egin zigun, larunbat hartan bere lagunekin Pirinio aldera joateko. Bazutela han etxola bat eta espezial egoten zirela: mendian barna pixka bat ibili, arratsean suaren bueltan kontu kontari... Ordura arte bide osoan isilik etorri zen Ritxar aspertu zen, eta kolpean bota zigun Xabiri eta bioi, bertzea han ez balitz bezala, «¡Tened cuidado, que este es del Opus!». Gure adiskide sinpatikoari kolorea mudatu zitzaion bat-batean. «Me tengo que ir inmediatamente», erran zigun urruntzen zen bitartean. «¡Largo de aquí!» isuri zuen isilka gure salbatzaileak. «Utikan!», pentsatu nuen.

Tipo fina zen Ritxar hura. Eskerrak eman genizkion, zintzamari hura uxatu zigulako, eta Bar Amanecer-en sartu ginen zintzurra bustitzera. Xabik proposatu zuen ez ote genuen iluntzean berriz ere elkartu behar, «Bueltaxka bat...?». Etxera joan ginen lehenbiziko, eskolako gauzak utzi eta zerbait jatera.

Arratsean, Xabik bere etxeko arroltze bat hartu, kaxka-kaxka azalean bi zulo egin, eta ahora sartu zuen gordinik. Niri ere gauza bera egiteko erran zidan, baina nik ezin. Bigarrena ere halaxe irentsi zuen. Gasna mazela eder bat ogi tartean sartu nuen, eta harekin aire. Ttaka-ttaka San Nikolas aldera abiatu

ginen. Polizien begiak zelataka sumatu genituen haien automobilen kristal ilunduen gibeletik. Jendea ernarazi nahi zuten kartelek paretak estaltzen zituzten orbel bustiek lurra bezala, berriak zaharren gainean. Espalo gainean kola arrastoak ikusi genituen, ziudadean «gau-lanean» aritu zirenen salatari. Gizon ttiki bat trajez jauntzia bere buruarekin solasean ari zen Gazteluko Plazako eskaileretan. «¡Adiós, Marinerito!» burla egin zioten ondotik pasatu zitzaizkion bi zurrutero lotsagabek, eta gizona maldizioka hasi zitzaien ondotik segika. Mingainez bizkorragoa zen zangoz baino. Xabi ezin izan zen isilik gelditu, «¡Míralos, qué valientes!» oihu egin zien zirikatzaileei irria ezpainetan, beti bezala. Harritu ziren burlosoak, eta gelditu ere bai, kopeta goiti, ea nor atrebitzen zen haiekin sartzera. Zerbait erran zioten, desafioka, baina txulapaindarra ez zuten aisa kikilduko. «Tenblatzen beldurra nago!» bota zien. Ez zioten konprenitu, noski! «Beldurrez dardarka!» zuzendu nion. «Horixe!» gehitu zuen berak. Bakea gailendu zen, eta bakoitza bere aldera. Eurixka ari zuen, baina aterpea emateko borondate oneko nagusiak aurkitu genituen. Lehenbizikoa Gorritin izan zen, hango zerbitzariarekin euskaraz aritzen ahal ginelako. Gero, guk komeni baino gehiago bisitatu genituen.

Presarik ez genuen izan etxera erretiratzeko. Igan-dean oroituko nintzen, partida jokatu behar baikenuen Lesakan, Kristoenean, gure Etxandi hango Beti Gazte-ren kontra, eta orduan izanen ziren komeriak! Entrenatu gabe eta astelegun gorrietan egiten nituen ateraldi haiekin, gorputza arras moteltzen ari zitzaidan. Berriz ere erranen zidaten kuadrillako neskek lotsagarrria zela ni ezinean ikustea dozena bat urte zaharrago ziren beterano zorro-handi batzuen ondoan lasterka.

Biharamun goizean, buruko min pizar bat izanagatik, ni nerau joan nintzen ogia eroatera, boluntario. Mandatu horretarako batere perezarik ez nuen izaten behin ere. Zerbitzaria neska polit bat zen. Ogia eta esnea erosi nituen. Periodikoa ere behar nuen, eta horretarako bi aukera: *Diario de Navarra* eta *El Pensamiento Navarro*. Denbora hartan hagitzez ere informazio gehiago ekartzen zuen *Diario*-k. Irekiagoa edo modernoagoa zela ere iruditzen zitzaigun. Bi gaik betetzen zuten egun hartako azal osoa, egun haietan bertze konturik ez baitzegoen: «*Franco, muy grave. Nueva intervención quirúrgica de urgencia*» eta «*Crónica de El Aaiún. La marcha verde se encuentra acampada ante el primer tramo español de minas*». Maikaren begirada goxoa ere sartu nuen kapazoan. Hark

ahantzaraziko zizkidan Espainiak bide zituen problema guziak.

Fisikako problema batzuk nola edo hala egin behar genituen hurrengo egunerako, eta, ez Xabi ez ni ez izaki hartarako gauza, Ritxarri laguntza eskatu genion, bagenekielako gu baino hobeki moldatzen zela terreno hartan. Izanez ere, irakaslea beldurgarria zen. Sadiko samarra zela ere erranen nuke, gozatzen baitzuen jendeari sufriarazten. Eta guk ez nahi hari halako poxik eman!

Gure etxeko salan elkartu ginen hirurok bazkalondoan. Koldo ere bertan zen, liburu bat irakurtzen patxada ederrean zigarroa erretzen zuen bitartean. Ritxarrek gelako paretetako posterrei begia eman zien. Hantxe nahasten ziren Italiako aspaldiko proletarioen manifestazioa bide zena, Erreterian izandako kantaldi bat eta Osasunaren denboraldi hartako jokalaria. Tolosarraren mahaiaren ondoan, paper zuriaren gainean errotuladore gorri eskribituriko hitzak: «Apur dezagun katea, kanta dezagun batera! Hau da fandango! Biba Berango!»; hantxe berean, pegatina batzuk itsatsirik: «Opus EZ!», «Euskal Unibertsitatea».

Larragako laguna geroxeago agertu zen, siestatik altxatu ondotik. Entrenamendura joan behar zuen, baina aitzinetik kiniela egin nahi zuen, eta guregana etorri zen, opinio eske. Koldok musika paratu zuen magnetofonian. Hamaika tokitan grabaturiko kaseteak ziren. Mikel Laboaren sorgin boza aditu genuen lehenbiziko, eta Etxamendi eta Larralde gero, «Otsaga-biiiiiiia...». Ritxarrek galdetu zigun Patxi Muruzabal ezagutzen ote genuen, kantautorea. Aitzineko astean San Pedro auzoko elizan aditu omen zion, protesta egiteko bertan gaua pasatu behar zuten langileei kantatzen. Koldok zeharka begiratu zion gure lagunari, hitzik erran gabe. Troskoa edo anarkoa zen tipo bat ekarri genuela deduzitu zuen. Hirutatik lautan hanka sartzen zuen.

Telefonoa joka hasi zen eta neronek hartu nuen. Ama zen, zer moduz ote nengoen galdetu zidan, baina batez ere kontatu nahi zidan Agustin Iruñeko psikiatrikora ekarri zutela, Lizaso gaztearekin mutur joka aritu zelako. Eta eroetxera sartu! Hura ez zegoen ero inondik inora. Hark kasu pixka bat eginen zion norbait bertzerik ez zuen behar. Banekien aspaldi gaizki zegoela gizajoa, gurasoak hil zitzaizkionetik. Bakarrik bizi zen plaza ondoko bere etxean, anai-arrebek ez baitzuten

gormutua euren gain hartu nahi. Pena sentitu nuen. Amak erran zidan joan beharko nuela bisitaren bat egitera.

Arratsaldea joan zitzaigun problemak konpondu gabe. Ez zen Fisika aunitz estudiatu behar denbora iragan egiten zela ikasteko. Biharamunean kondena-tuen paretan egonen ginen. Irakasleak tiro egin nahi bazigun, ez genuen ihesbiderik izanen. Baina bitar-tean, gelditzen zitzaigun bizi pizarra aprobetxatu be-harko genuen. Xabik galdera bota zuen airera, eran-tzunik behar ez zuena, «Bueltaxka bat?». Nik falta zuen puska gehitu nion, «Eta tragoxka batzuk?». Etxe-tik atera baino lehen, hurrengo astean pilotan aritze-ko gelditu ginen, Emiliorekin batera, bi biren kontra. San Alberto egunean, Zientzietako Fakultatearen pa-troiaren egunean.

Igandean alkasoroarrei merezi genuen egurra eman ziguten lesakarrek. Bizpahiru urte lehenagoko sanfermin haietan gurekin txorakerietan ibiliriko nes-katxetako batzuk ikusi nituen bazterretik begira. Haie-tako zeinek bidali ote zidan karta anonimo hura, «zu-biazpikoa» sinatzen zuena? Egia baldin bazen orduan

nire gorputz liraina hain tentagarria iruditzen zitzaio-
la, ederki alegratuko zen amets hark biderik egin ez
zuelako. Penagarri aritu nintzela usteko duzue, eta ha-
laxe izan zen.

Baina Iruñean ginen berriz, herriko frakasoak
ahantzirik, Unibertsitatean besta eman ziguten egu-
nean. Santuak ospatu behar baitziren! Eta guk ere
geure patroia izaki! Azaroaren hamabortza zen, egun
seinalatua.

Ateri zegoen eta, hortaz, aitzakiarik ez Jito Alai
frontoian lau pilotari ospetsuren arteko apustu gogo-
rra jokatzeko. Larragako *tigrea* eta Iruñeko *odol-
hotza*, Txulapaingo *basaren* eta Seierrietako *kalami-
dadearen* kontra. «Partida erraxa», neure baitan. Bai
to! Ez nuen uste Iruñetik beheitiko herrietan pilotan
horrela zekitenik! Emiliok bakarrik irabazi zigun gaine-
rako hiruroi, ustez laguna zuena ere kontra aritu bai-
tzitzaion. Hari eskerrak egin genituen dozena erdi bat
tanto. Irri ere gogotik egin genuen, eta eskapadako pi-
lotakadarik ez genion elkarri eman. Kontent egoteko
motiborik ez genuen falta!

Futbolaria etxera joan zen, irabazlearen poza ga-
rraio, eta gainerako hirurak Parte Zaharrera jo ge-
nuen, kontsolamendu eske. Campana karrikan gustu-

ko txokoa harrapatu genuen. Etxekoandrea euskaldu-
na zen, baina iruditu zitzaidan beldurka aritzen zela
euskaraz. Izanen zuen hartarako arrazoiren bat, duda-
rik gabe. Ajoarriero kaxola bana garbitu genuen, eta
pintako ardo botila hustu ere bai. Kafea hartzeko teno-
rean mutil azkar bat sartu zen ostatuan geundenoi
itsuen zozketarako txartelak eskaintzera. Lehenbiziko
mostradorean bere xurrupe egin eta gero guregana
etorri zen. Antiojo lodi horietakoak zituen, eta gorrai-
zea dutenek hobeki aditzeko aparatu bat. Agustinez
oroitu nintzen. Nola ote zegoen kartzela berrian? Guk
deus erran gabe solasean fuerte hasi zitzaigun, eda-
nak emaniko indarrari esker, segur aski, «Franco se
está muriendo. ¡Que se joda!». Ritxar eta biok isilik,
baina Xabik segitzera animatu zuen. «¡Es mala perso-
na! Ha hecho mucho daño a la gente. ¡Al infierno se
ha de ir!». Etxeko nagusiak sukaldetik begiratzen
zigun kopeta beltz. Txartel bat eskatu nion, bortz pe-
zetakoa eskuan utzirik. «¡Mucha suerte!» erran zidan.
«¡Mucha suerte en el amor!» argitu zuen. Atera ze-
nean, Poliziaren autoen sirenak inguruetan garrasika
aditu genituen. Hala ere, hantxe segitu genuen ma-
haiko lana ongi akabatu arte.

Izanez ere, arrats hartan ere bagenuen dibertsioa, baina karrikan aditzen ziren dinbi eta danba haiek ez ziren etxafuegoenak. Fusilen tiroak ziren. San Nikolas aldean kezko potoak eta pilotak partitzen ari zirela ohartu ginen, eta toki lasaiagoren bat bilatzea erabaki genuen, Xabi lepotik harturik, hark nahiago baitzuen musika jotzen ari ziren tokira joan.

Erburura sartu ginen, etxeko patxarana emanen zigutelako esperantzarekin. Jende franko zegoen barranean. Gure fakultateko ikaskide batzuk ere hantxe, afaldu berriak eta umore ezin hobean. Haien ondoan jartzeko tokia egin ziguten. Kantuan hasi ginen, «Hay que quemar el Opus Dei...», eta «Biba San Alberto» irrintzika.

Handik guttira, ostatuko atea kolpean ireki, eta jende multzo handi bat sartu zen bata bertzeari bulkaka. Lokala bete egin zen bat-batean. Polizien tiroak eta manifestatzaileen oihuak aditu genituen. Segituan, neska-mutil batzuk etorri ziren ikara begietan, eta erran zuten kasu emateko grisak taberna guziak husten ari zirela eta hobe zela handik ospa egitea.

Kanpora atera ginen jende gehienarekin batera. Uniformedunek Kale Nagusitik begiratzen ziguten euren fusilen muturrak guri zuzendurik. Ritxarrek

erran zuen hobe genuela Jarauta aldera. Mugitzeko keinurik egin baino lehen, Xabik euskaraz hobekien ikasiriko hitza harrika bota zuen airean bere indar guziarekin, «As-ka-ta-su-na! As-ka-ta-su-na!». Nahikoa izan zen gainerakook ere gauza bera egiteko, isiltzen ez zen oihartzunaren modura. Poliziek gugana egin zuten amorru bizian, batzuek makila eta bertzeek zizpa eskuetan. Lasterka hasi ginen bakoitza bere aldetik, urrats beldurgarrien soinua eta gomazko piloten txistua aditzen genituela. Klaseko neska polit batek Xabi eskutik hartu zuela ohartu nintzelarik, zerbait erratea pentsatu nuen, baina ez zen brometarako tenorea eta aitzinera tiratu nuen heriosuhar itsu-itsuan.

Zapateria karrikan pausoa mantsotzen joan ginen iheslariak. Iduri zuen aspertu zirela segika genituenak, edo bertze bideren bat hartu zutela. Gure tropa karrিকা estuen labirintoan barreiatua zegoen, eta soldaduak bakarka edo binaka joaki ginen, norarik gabe, berriz ere zein plazatan elkartuko. Lagunik ez nuen ikusten inguruan eta etxera joan beharko nuela pentsatzen hasi nintzen. Inor preso hartu ote zuten? Ezin jakin.

Leiho batetik abisu eman ziguten Komediak aldetik heldu zirela zezen baldar haiek, eta hankei biziago

mugitzeko agindua eman genien. Bertze eraso gogor bat. Oihuak eta tiroak berriz, eta hatsa handiturik. Merkaderes beheiti abiatu ginen multzo eder bat, eta nire aitzinean joaki zen neska ile-motx batek zapata galdu zuela ohartu nintzen. Doi-doian hartu nuen lurretik, printzesa hari bueltatzeko ideian. Nabarrieriako atari batean sartzen ikusi nuen. Jendeak segitu zuen, baina nik ate huraxe bera bulkatu nuen. Barrenean, neska lehenbiziko eskailbururaino ailegatua zen. Burua bueltatu zuen nor nintzen ikusteko.

«Aibadios!» atera zitzaidan. Axun irundarra zen! Aho zabalik gelditu nintzen, oinetakoa eskuan. «Martin Irazoki!» erran zuen berak. «Ez amurri ta ez izoki!» nik. Etxe hartako bigarren pisuan bizi zen. Sartzera gonbidatu ninduen. Ez nion ezetz erran.

Ez zegoen bertze inor etxean. Sarrera gelako lanpara itzali zuen. Biok isilik parez pare ilunpetan. Balakoiko atearen kristaletik kanpoko farola baten argia sartzen zen eta distira ahul bat eragiten zuen Axunen begietako kristaletan. Pasabide luzearen erdian berratu ginen. Ausiki egin zidan azpiko ezpainean, musu luze batean mingainek elkar bilatzen hasi baino lehen. Laranja gustua zuen. Lepotik eraman ninduen bere

kuartoraino. Ohatzearen gainera erori ginen trabaturik, arropa kentzen genuen bitartean.

- Titiak handitu zaizkin.

- Badakik, piku-esnea...

Gela ttiki-ttiki bat zen, leihorik ere ez zuena. Kamainak ere haur batena iduri zuen. Batere ez inportaguri, ordea.

- Hau misto kaxa bat dun!

Su hartu genuen hantxe.

GABIKAREN IKURRINA

Garmo Negroren kaskoa hankapean hartua genuen bi egun lehenago, baina Gabikari ez aski iruditzen hiru milako eder hura. Han goitik erakutsi zigun Pico del Infiernoren pareta zut ikaragarria, harri beltza eta marmol zuria. Hari begira ginela, gain hartatik jende franko eroria zela kontatu zigun, puntatik hasi eta beheitaraino amilka. «Hor deskuidatuz gero, seko geldituko haiz! Salbaziorik ez. Pentsatzen hasita, ez duk hiltzeko manera txarra!». Parean genuen deabru guzien erresuma harexek kentzen zion sosegua. Hirurok tontor zorrotz hartara joan behar genuela preziso. Horixe sartu zitzaion kaskezur gogor hartan. Nik, ordea, lehenagotik ere informe txarrak nituen izen gaiztoko mendiari buruz, ibilera klase horretan eskarmentua zuen jendeak Iruñean kontaturik. Gabiak aitzin hartan lehenbiziko aldiz kontu hura atera zuenetik traza itsusia hartu nion, baina banuen esperantza pixar bat, haizea etorri bezala joan ere eginen zitzaio-la eta ahantziko zela abentura hartaz. «Ze nezesidadea horrela arriskutan ibiltzeko!», gure amak erranen

lukeen bezala. Ordea, ez nintzen ordura arte kontra egitera atrebitu.

Lo egiteko zakutik oraindik atera gabe ginela bota zigun eguneko plana.

- Aupa konpañeroak! Gaur «infernura»!

Uste dut Tturkok ez zuela ongi aditu, oraindik zurrun-gaka ari baitzen, baina ni aski erne nengoen. Mutu gelditu nintzen. Guk kontestarik ez, eta orduan Gabiak altuago oihu, inork dudarik ez izateko:

- Ala hil!!!

Usteko zuen horrekin animatuko ninduela. Ni ez nintzen heroi izateko jaio! Begiak zabaldu nituen. Hagoitz goiz izan behar zuen, kanpoan ez baitzuen oraindik eguna arras argitu. Zutitu eta lasterka atera nintzen dendatik, ezpel batzuen gibelean tripak husteko itxura egitera. Hamar bat minutu eman nituen, zer erran behar nien pentsatzen.

- Ze gaizki egin dudan lo! Zerbaitek kalte egin zidak, kristoren kakeria diat! Kauenlaputa! Eta gaur gogotik berotu behar duela erran ditek. Kauendiooo! Ni gabe joan beharko duzue mendira.

Tturkok ordukoz utzia zuen ametsen erresuma, eta ongi aditu zituen nik erranak. Ez zion sobera inporta, hala ere. Gabiak, berriz, usain txarra hartu zion

nire behehikoari. Gisa bereko bertze aldi batzuetan ere aitzakiak emanak nituen istorio zailetatik ihes egiteko. Txorakeriak uzteko, pasatuko zitzaidala eta haiekin joateko erran zidan serioxeago. Ezetz nik, sentitzen nuela baina ezin, eta berriz ere lasterka ezpel artera. Hondarreko, laguna aspertu egin zen nirekin.

- Infernuari beldurra? Beldur handiagoa ematen zidak niri zeruak! Baina, joan behar baldin bada, harat ere joanen gaituk! Ez da hala, Tturko?

Tturkok irri egin zuen, baina ni isilik gelditu nintzen.

- Irazoki, irazoki! «Ez-izoki» totala haiz hi! Orain ere, zerbait berezia egiteko ideia, eta hik... kaka!

Tturko, Gabika eta hirurok Pirinioetara joanak ginen, Panticosara. 1976ko irail hartan gure lagun igeltseroa Tenerifetik etorri berria zen, soldaduska akabaturik, lehen baino zezenago, eta bertze biok, estudiante zuriak, hilabetea eskas falta genuen unibertsitateko kurtsoa hasteko. Kanpineko denda bainuetxetik hurbil paratua genuen. Debekatua zegoela erran ziguten, baina gu ez bertze inor ez zebilen paraje haietan eta suerte pixka batekin ez ziren guardia zibilak agertuko.

Malda goiti abiatzeko tenorean, serio begiratu zidan espedizio-buruak, ni denda barrenean gelditzen nintzelako hark espres ekarririko *Berriak* aldizkaria eskuan, «Etzakela horko ikurrina ipurdia garbitzeko ibili!». Istant batez elkarri begiratu genion deus erran gabe, eta segituan bota zidan azkeneko puntua: «Hi... kapaz!». Urte hartan berean jaioa zen aldizkari hura, eta aste hartako numeroarekin batera poster modura partitu zuten bandera zuri-berde-gorriaz ari zen Gabika. Bertze lagunak umore onez ematen zuen, «Ilundu aitzinetik agertu ez bagara, ez apuratu batere, Sata-nasekin dantzan ari garela seinale!».

Neure buruarekin bakarrik gelditu nintzen hantxe, ez sobera gustura, egia erran, baina lagunekin joan izatera okerrago egonen nintzen. Bi aldeetara gaizki. Errebistari errepaso on bat eman nion. Denbora hartako politikako kontuak aipatzen zituen. Franco aitzineko urtean hila zen, bazter guzietan karridak sutan zeuden, eta jendeak sekulako gosea zuen zer pasatzen ari zen eta zer etorriko zen jakiteko.

«Una ikurriña para todos» paratzen zuen azalean, ale harekin egiten zuten erregalu bereziari errepararazteko. Harrigarria ere bazen, bandera hura oraindik galaraziazegoelako, eta legez kontrakoa baitzen era-

kustea. Baina horrelako misterioak izan ziren hilabete nahasi haietan.

Barreneko orrietan, herriz herri izan ziren azken manifestazioen eta greben kroniketan lotu zitzaizkidan begiak, egun haietako gerra parteetan: polizien eta guardia zibilen azioak, tiroz edo makilakadaz kolpatu eta ospitalera eraman behar izan zituztenen izenak, jendearen oihuak («Presoak kalera, amnistia osoa», «Pertur askatu», «Askatasuna»...). Argazkiak banaka-banaka ikusi nituen atentzio handiz, tokiak eta aurpegiak ezagutzen ote nituen. Segoviako kartzelatik ihes egin ondotik harrapatu zuten mutil bat bertze orrialde batean heldu zen, ospitale bateko ohatzetik kamerari begira, gangrenaturiko eskua agerian.

Irakurtzen aspertu nintzenean, nire aldetik joan nintzen pixka bat ibiltzera. Ttaka-ttaka goiti aldera, laku moduko batera ailegatu nintzen, eta hantxe joan zitzaidan denbora puska bat sumakabea, harri xabalei ur-azalean txingoak eginaraziz aitak ttikitari erakutsia zidan maneran. Eguzkiak fuerte jotzen hasi zuen eguerdi partean, eta gure etxolara bueltatu nintzen presarik gabe hiruzpalau harri-koxkor polit sakeletan harturik. Zerbait jan, lo-kuluxka bat egin eta esperoan gelditu nintzen.

Arratsaldeko sei eta erdiak pasa ziren, eta oraindik ere ez ageri lagunak. Berantesten hasi nintzen, ez-beharren bat ez ote zuten izan. Nola jakin? Agudo hasiko baitzuen iluntzen, laguntza eskatzera joatea pentsatu nuen. Bainuetxeko hotela eta haren ondoko bertze lokal batzuk itxiak zeuden, baina bazen haietatik aparte urte osoan zabalik egoten zen benta bat, eta han galdetuko nuen zer egiten ahal zen. Beharbada hain gutti maite genituenei deitu beharko genien, erreskatea antolatzeko.

Ostatuko atea ireki nuelarik, bi lagunak hantxe ikusi nituen mahai baten bueltan jarrita, zerbeza edaten trankil ederrean. «Onbre, Ezizoki! Ze? Pasatu zaik kakeria?» bota zidan Gabikak. Irriz lehertu ziren biak, eta etxeko nagusia ere kutsatu zuten, nahiz hark tutik ere ez entenditu. Hortzak estutu eta, deus erran gabe, ospa egin nuen handik gure kanpatokira berriz. Denda barrenera sartu nintzen maldizioei ausikika.

Ordu erdi bat geroago etorri ziren biak erdi kantari, Infierno mendean hartu bide zutelako espantukarik ongi aditzeko maneran. Soraio hartu nahi nituen, baina ez zidaten aukerarik eman. Bat-batean niregana

etorri ziren oihuka, eta, eskapatzera saiatu banintzen ere, ustekabeen harrapatu ninduten. Batek besoetatik lotu eta bertzeak hanketatik, ohartu ordukoz airean nengoen. Ni garrasika bakean uzteko eta ero haiek erreka idor batera ni botatzeko keinu egiten. Azkenean, hirurok plausta erori ginen gehienbat lohia bertzerik ez zegoen putzu txar batean. «Demonio belepi-toak!», erran nien koleratua. Hiruron arropak bustiak eta zikinduak ikusirik, elkarri begiratu eta irri-ajarika hasi ginen. Halaxe akabo gure arteko disputak.

Biharamunean berandu arte ez ginen mugitzen hasi. Lagunek nekea hanketan eta zerua goibel, eguna alferkerian pasatuko genuen segur aski. Gosaldu ondotik, halere, bainuetxearen ondoko frontoian pilotan zerbait aritu ginen. Gero presaren ondoko pinudian katakurtxintxa batzuk pertsegitzen ere ibili ginen, haiek aspertu eta gu hatsankatu ginen arte. Bazkalondoan eurixka hasi zuen eta bezperako ostatura joatea baino gogorazio hoberik ez genuen izan. Nagusi zaharrarekin eta etxeko seme-alabekin erausian aritu ginen gustura. Politika kontuetan ere bai. Francoren kontrakoak ziren haiek ere, Errepublika za-

harraren aldekoak, eta, nondik heldu ginen jakinik, sinpatia handiarekin hartu gintuzten, iduri zuelako Euskal Herrian ari zela jendea inon baino gehiago gurditik tiraka Espainian erdi koloka zegoen erregimena hankaz goiti botatzeko. Haiek ere erdi euskaldunak ez ote ziren erran genien, Belio baitzuten deitura. Ez zuten gaizki hartu, «Aquí hay muchos *beléas*, como dices tú, ibien listos que son!».

Udako denboraldia akabatua baitzen, gu ginen denda-ostatuko bezero hoberenak, harat sartzen ginen bakarrak. Oraindik ere bolada batean asteburu pasa etorriko zen jendea, elur sasoa ailegatu arte, baina astelegunez bakea zen nagusi mendiarte hartan. Etxeko semea gure ondoan jarri zen mahaian, eta kartatan eman genuen arratsalde osoa, kanpoan euria zar-zar ari zuela ohartu ere egin gabe. Hondarreko eguna genuen han, eta gustura aritu ginen hordagoka, oihalezko gure palaziora joateko presarik ez. Handik ateratzean ikatza baino ilunago zegoen, baina espero ez genituen lagun batzuek argitu ziguten bidea. Zeru aldean su besta hasia zen. Lasterka joan ginen geure aterperaino, segituan gainean izanen genituen tximista eta trumoiekin ikaraturik.

Erne egon ginen euri erasoak irauñ zuen bitartean. Ekaitzak gogotik jo zuen, dinbi-danba lehenbiziko, eta, argi kolpeekin batera kriski-kraska gero, rock talderik gogorrenaren markak hautsiz. Gabiakak porro bat pres-tatu zuen, lasaigarri. Ez nengoen usatua hura fuma-tzen, eta ez zidan graziarik egiten, baina hartan ez nion ezetz erran. Ezpainetara ekarri nuen txanda toka-tu zitzaidan aldiro. Ez nuen kea irensten, ez bainekien nola. Kea irentsi? Utikan! Zigarroa ahotik ahora joan zen pasatzen, eta gure arteko solasa ere aisago isuri zen. Halako batean neska kontuez hasi ginen. Erran nien Axunekin izan nuen istorioa fini zela, Bartzelona-ra joana zelako lan sozialeko konturen bat estudiatze-ra. Gabiakak animatu ninduen. Erran zuen ez zitzaiola gustatzen beti berberarekin ibiltzea, aunitz ezagutu nahi zituela, oraindik gazteak ginelako, eta gehiago zahartzen ginenez ere ez zuela ikusten bere burua inorekin katean. Tturkok Tenerifeko putak aipatu ziz-kigun, eta haien iduriak imajinatu genituen bakoitzak bere modura, kerik irentsi gabe ere burua arintzen jo-atearekin batera.

Noizbait ere isildu zen zeruko sinfonia harrigarri hura. Ur pixka bat sartu zitzaigun denda barrenera, baina moldatuko ginen lo egiteko. Gau hartan amets

egin nuen portu bateko karriketan barna joaki nintze-
la eta atari batetik emakume ezpain-gorri batek hare-
kin joateko erraten zidala. Ez nion kasurik egin eta ai-
tzintxeagoko bertze etxe batera sartu nintzen, eskai-
lerak goiti. Ezagutzen nuen bizitza hura, Iruñeko Alde
Zaharrean nintzen. Arestiko emakume bera hantxe
zegoen, baina gibeletik ikusten nuen. Gonak izterrak
tapatzen zizkion, eta begiak beheitiago irristatu zi-
tzaizkidan. Ederrak iruditu zitzaizkidan belaun-txoko-
en azpian ageri ziren aztal borobilak. Haietan ausiki
egiteko gogoia sentitu nuen. Aurpegia niregana jiratu
zuenean, Axun zela ohartu nintzen. Lepotik hartu nin-
duen eta besarka estuan lotu, bere aurpegia nirearen
kontra paraturik. Haren matelako mertxika-bixar sua-
bea! Musu eman genion elkarri, mingaina mingainare-
kin. Laranja eta tabako gustuak erantsi zizkidan ahoko
zuloan.

Kurtsoa hasi eta berriz ere Iruñera buelta. Lehenbi-
ziko astean Agustin ikustera joan nintzen, aspaldi pen-
tsatua nuen bezala. Amak hainbertze aldiz errana
zidan, baina beti gerokoz uzten nik. Ortzegun arratsal-

dea aprobetxatu nuen, huraxe genuen klaserik gabe-ko egun bakarra.

Psikiatrikoko sarrerako emakumeak bisitentzako gelara joateko erran zidan: «Al final del pasillo, a mano derecha». Abiatu nintzen, eta zer zen hura! Ez nintzen harritzen halako toki batean jendea burutik eri egotea. Ikaraturik gelditu nintzen pasabide izugarri handi hartan. Gorputz herbalduak nora gabe ibilki ziren, hankak arrastaka. Iduri zuen bertze mundu batean sartua nintzela. Pausoak ahalik eta arinen ematen hasi nintzen. Beldur nintzen ez ote ninduten begi erori haiek euren sarean harrapatuko. Moja xahar bat ikusi eta harengana joan nintzen zuzenean, hark salbatuko ninduen esperantzarekin. Gogo txarrez begiratu zidan, baina bilatzen ari nintzena non zegoen erakutsi zidan halere.

Jende gehiago bazen gela hotz hartan. Nire ondoran senar-emazte adindu batzuk semearekin solasean ari ziren. Mutilak hitz-debeku gogorra zuen. «¡Es-es-es-es-toy con-con-con-con ten-ten-ten-ten to!». Gizon lodi batek ekarri zuen Agustin, aulki bati bulkaka. Nonbait, ez zen zutik ibiltzeko gauza. Hagitz itxura txarra hartu nion. Begiak biztu zitzaizkion ni ikustean. «Martin!», erran zidan gorren mintzo zakarrarekin. Zer

moduz zegoen galdetu nion. «Gaizki, gaizki!». Malko-ak ikusi nizkion ateratzeko puntuari. Lasaitzeko erran nion eta engainatu nahi izan nuen, han inon baino hobeki zegoela sinetsaraziz.

Pedro Lizaso aipatu zidan gero, alkate frankista izana. Haren seme gazteari ukabila erakutsi ziolako ekarri baitzuten Iruñera. «Gaiztoa, gaiztoa!». Haren izena erratearekin gorritu egin zen, sutu, «Hijoputa!, hijoputa! Kauendio!». Behatza burura eraman zuen, zerbaitetaz edo norbaitetaz bat-batean oroiturik bezala, eta bertze keinu bat egin zuen nik entenditzeko: bi eskuak lepora. «Alfredo!», erran nion, «Lepaundia!». Buruarekin baietz egin zidan, hartaz ari zela. Ea oroitzen nintzen arrantzazainaz. Ederki, gainera! Nola ahantzi Urrabian hilik ikusi genuen egunaz! Ez zen sekula argitu nola erori zen ugalderra. Pedrok bota zuela erran zidan kokotsa aitzinera aterata, Kokotsa alkate zaharrak, borroka batean makilarekin jota, eta erakutsi zidan nola. Nola ikasi zuen galdetu nion, eta behatza ezpainen parean paratu zuen. Ezin zidan kontatu, sekretua zen. Hiltzeko motiboa eman zidan serio-serio, «Kontrabandoa!». Batek daki. Bere fantasia ez bazen!

Ondoko mutila jota kantari hasi zen, batere totelik egin gabe orduan, solasean bai eta kantari ez egiten, «Quisiera, quisiera, quisiera volverme hiedraaaaa!!!». Huntza izan nahi! Nola ez, bada, handik eskapatzeko! Ez zuen gaizki kantatzen, baina nire lagunak ezin zion aditu. Jatera ongi ematen ote zioten galdetu nion. «Kaka zaharra!», haren kontesta. Despeditzeko ordua ailegatu zenean, bihotza urratu zidan «Etxera, etxera...» erranda. «Zurekin!!!». Hori ezin nuela egin, baina berriz ere etorriko nintzela hitz eman nion, eta lasai egoteko, sendatzean aterako zela eta joanen gizona berriz elkarrekin arrantza egitera. Lehengo gizon bera etorri zen aulkia bulkatzera, «¿Qué dices tú?». Ez dakit ez ote zion euskaragatik erran. Niri begiratu eta begi keinua egin zidan, bromatan ari zela argitzeko eta ni konplize izateko. Segur aski konprenitu izanen zuen nire mutur beltzarekin adierazi niona. Sartu nintzen bide beretik atera nintzen, baina oraingoan deus ikusi gabe, kartzela hartan abandonaturik utzi behar nuen laguna burutik ezin kendu.

Handik aste pare batera, goiz hotz batean, ospitale triste hartako balkoi batetik zintzilik agertu zen Agustinen gorputz hila. Alkasorotik urrun eta Urrabiatik aparte, amuarraina uretik kanpora bezala ito zen.

Gizajoa! Sekulako pena sentitu nuen, eta kulpa puska bat ere bai ez niolako gehiago lagundu, ez nintzelako lehenago eta gehiagotan joan bisita egitera.

Azaroko azken astean aitaren lehengusu bat agertu zen Alkasoron, Uruguaitik etorrira. Jaioterrian egun batzuk pasatu behar zituen eta gero European barna turismo egiteko ideia zuen. Suitzara ere joan gogo zuen. Medikutara, nonbait, baina nork jakin, izanen zuen negozioren bat. «Hamalau urte ez zituen izanen hemendik Ameriketara joan zelarik! Aita eta ama hilak, senide guziak alde batera eta bertzera partituak! Miseria gorrian! Eta begirazaiok orain!» erran zidan aitak ortzirale iluntzean, Iruñetik asteburu pasa etortzean.

Larunbat goizean txofer nonbratu ninduten, etxe-ko Renaultean osaba Pantxo aitaren baserrira eramateko. Kuriositatea nuen lurralde urrun haietan nola bizi ote ziren jakiteko eta, familiako kontuez zerbait aritu ondotik, Uruguaiako egoeraz galdetzea gogoratu zitzaidan. «Orain ongi gaituk...» erran zidan, «...beharririk tupamaro guziak kartzelan sartu dituzten!». Ede-rra bota zidan! Ez genuen handik aitzinera konbertsa-

zio luzerik izan. Baserrian utzi nuen, pakete bat uzten den gisara, eta aitzakiaren bat atera nuen handik berehala alde egiteko. Lehengusuak ekarriko zuen berriz ere gurera. Nerbioso samar nengoen, kuadrillako lagunekin plan berezia genuelako arratsalde hartan.

«**Eta** hori erran dik aitona amerikano horrek? Barkatu, biño, urde zerria!». Gabikari ez zitzaion batere gustatu osabak tupamaroen gainean pentsatzen zuena. Aitzurra goiti egin eta bere indar guziarekin jo zuen lurra. Espantu handia, baina fundamentu gutti. «Ken hadi hortik!», erran zion Arraitzek haren partez aritzeko, «Estudiante ostia hok!». Guk ez bezala, hark bazekien erreminta nola ibili. Txandaka ari ginen: Gabika, Arraitz eta hirurok. Malixa ere hantxe gurekin, bazterretik begira, zigarroa erretzen eta gure kontura irriz.

Jo eta su ari ginen, zuloak egiten Arraitzen familiak Maldarruneko bidean zuen borda baten ondoan. Satorrek pentsatuko zuten «Zer da eskandalu hau? Bizitokia suntsitu behar zigutek!». Urte hartako apirilean inguru hartan ikurrina bat sartu genuen lur azpian, baina ez oroitzen ongi non. Nola edo hala harrapatu behar genuen! Gabikaren agindua zen, nahiz eta ber-

tzeok ez genuen sobera sufrituko agertzen ez bazen ere.

Istorioaldi berean tristea eta xelebrea hilabete batzuk lehenago pasatu zena. Aberri Egunean Doneztebeko Bordatxo dantzalekuaren ondoan euskaldunon bandera paratu nahi genuen. Gabikaren gogorazioak, nola ez! Bezperan mozkor afari ero bat egin genuen Arraitzen borda hartan berean. Kristoren besta! Eta goizaldean etxera joatean hantxe utzi genuen ikurri-na, maindire bat geronek txuri-gorri-berdez pintatua, hura toki segurua zelakoan, biharamunean hartu eta pentsatua genuen tokira eramateko.

Gau hartan, ordea, tiroak izan ziren handik ez urrun, Urruña eta Bera arteko mugan, Zalain auzotik goiti. Gu etxera erretiratu berriak ginen eta Alkasorotik ongi aditu genituen ta-ta-ta-ta haiek. Iparrak laguntzen zuen soinua hedatzera. Ikaragarria. Biharamunean ikasi genuen guardia zibilek tiroka hartu zutela muga pasatzen ari bide zen komandoa, akaso ikurri-nez hornitua heldu zena, eta mutil bat hil, ETAko gazte gipuzkoar bat. Ohatzetik jaiki ginenean, eltzetzuak Bidasoaren eta Urrabiaren bi aldeetan izkina guzietan barna ibilki zirela erran ziguten, uste baitzuten komandoko bertze norbait ere tiroz kolpatu zutela eta

ezin izan zela urrun joan. Hura ikareria Arraitzek land-rover berdeak etxe paretik pasatzen ikustean! Gurasoei deus erran gabe, aitzurra hartu eta lasterka joan zen bordaraino. Ikurrina gordetzeko manera hoberik ez zitzaion kaskora etorri: lur azpian sartu eta kito!

Horra zergatik ari ginen arrats hotz hartan gimnasia egiten. Hura zen orain planorik gabe bilatzen ari ginen tesoroa. Ederki kostatzen ari zitzaigun! Agudo ilunduko zuen, eta hotz zegoen paraje hartan. Norbaitek hartu ote zigun? «Aluren batek, igual!», Arraitzek nerbioso. Azkenean, «Hemen zegok!», erdi-oihuka gure laguna, «Put! Ez nian uste honenbertze...». Plastiko zikin bat atera zuen lurretik. Hantxe zegoen bilatzen ari ginena. Borda barrenean zabaldu genuen maindirea. Nahiko ongi zegoen. Beldurra sentitu nuen. Ez nekien nola demonio moldatuko ginen harekin egin gogo genuena egiteko. Berriz ere ideia bera baike-nuen: gau hartan Doneztebera joan eta Bordatxotik hurbil farola batetik zintzilik paratzea. «Benga, goazen hemendik!», agindu zuen Gabiakak.

Arraitzen automobilean, berarekin batera, Mateo, Malixa eta ni joan ginen. Gabikaren Morrisean eta

Tturkoren katxarroan sartu ziren gainerakoak. Hamar laguneko komando paregabea. Daldaraka egonen ziren Espainiako polizia klase guziak, handik hasi eta Iruñeraino bederen.

Egiazko beldurra, ordea, guk geronek genuen. Citroënaren bolantea eskuetan zuena dinamita baino arriskutsuagoa zen. Euria ari zuen, eta Sunbillako errebuelta gaiztora ailegatu ginenean errezatzen hasi ginen. Espero bezala, ezker-ezkerretik eraman zuen autoa Arraitzek, kontrako bidea oso-osorik okupatuz. «Putza zaharra! Beti toki berean pasatzen zaidak!», aurpegira begiratu zidan nik arrazoa emateko, bide puska hura gaizki paratua zegoela eta normala zela astakeria hura egitea. Orduan ere, a ze eskapada egin genuen! Soldaduskan zegoen denboran, kalabozotik karta luzeak eskribitu zizkigun Arraitzek. Hiru hilabete eman zituen hala. Ez genuen esplikazio sobera behar izan zergatik entenditzeko. Madrileran joan eta segituan koronel batentzat txofer paratu zuten. Bista ona izanen zuen, dudarik gabe, gure Fittipaldi partikularra lan hartarako bereizi zuena. Gasolindegia bateko surtidorearen kontra txikitu zuen Dodge zahar bat. Txiripaz atera ziren bizirik hango langileak, koronela eta Arraitz bera. Madrilgo bertze puntatik ikusten omen

ziren suaren garrak. Ez ginen nahi orduko ailegatu Donztebera!

Bordatxoko aparkalekuan juntatu ginen espedizio-ko lagun guziak. Gabiak orduantxe joan nahi zuen ikurrina nonbait zintzilikatzera, baina gainerakook nahiago genuen gerokoz utzi; batere presarik ez. Hartan amore eman behar izan zuen gure komandanteak. Malixa bakarrik haren alde. Hark ere ukabila goiti agudo. Ezagun zuen Lizarrako Sadaba zaharraren iloba zela! Ordu biak aldera paratuko genuela hautsi genuen, jendeak dantzatokitik ateratzean ikusteko maneran. Ez zuen atertzen eta Tturkok oihu egin zuen, «Goazen hemendik, barrenetik ere bustitzera!». Ostatueta barna buelta bat eman eta zerbait afaltzera joan ginen, motorrak hala berotzeko ideiarekin. Gero sartuko ginen bordaraazienda klase guziak, ba-koitza bere irrintziak botatzera.

Zerbitzaria kaferik hartu behar ote genuen galdeztzera etorri zitzaigunean, mahaiaren bueltan arrunt harrotuak geunden gehienak. Denak kantuan paratu gintuen Xaturrek, beti bezala, «Ziburutik Sararat bi neska faltatu...». Begok lotsarik gabe begiratzen zidan, bere begi txiolduekin. Tankek Matias xaharra- ren orro aldrebes hura bota zuen, «Astoaren zalda-

lea!», eta jende guziak «Arre mando!!!»; berea gero, «Zakurraren biolina!», eta denek «Beti bero!!!».

Gabika, ordea, serio zegoen. Ni bezalaxe, hark ere esku batean kopa eta bertzean purua. Bere plana esplikatzeko hasi zitzaidan. Ez edateko sobera, erne egon behar nuelako. Abisatuko zidala noiz atera dantzatokitik. Pentsatu zuela hobe zela hiru lagunen artean egitea: Tturko, bera eta ni. Inor ohartu orduko ikurrina zubi ondoko farolean zintzilik paratuko genuela. Malixa hurbildu zitzaigun. Lau izanen ginen. Ahora sartu berria nuen kea kanpora atera zitzaidan eztulka. Tri-pako min isil bat ere sentitu nuen. Nola eskapatu handik? Orduan bai kakagalea! Buruari inarrosaldi bat eman eta kopako patxaran hondarra zintzurretik beheiti sartu nuen. Klik! «Ostia puta, Martin!», neronek kargu hartu nion neure buruari haserre ostatuko komuneko ispiluari begira. Baietz erran nion Gabikari. Prest egonen nintzela.

Diskotekara sartu aitzinetik azkena hartu behar genuela eta, bertze ostatu bat bisitatu genuen eskandalagarri. Beratar batzuk zeuden barrenean. Gorria erraten zioten bat bere kuadrillarekin. Haiek ere xelege samarrak ziren, gure gisakoak. Tartean zegoen guardia zibil zahar baten semea, parrandero totala

baina futbolari ona, Padilla, alkasoroarroi aldiro gola sartzen ziguna. Gero, etxerakoan, ez zen harritzekoa izanen haren aitarekin topo egitea kontrolen batean. Huraxe ari zen zerbitzariarekin tratuan, «Atera metro bat patxaran!» erran zion lanean ari zenari. Langileak serio begiratu zion, eta beratarrak besoak zabaldu zituen mostradore gainean esplikazio modura, luzera horretako kopa sail bat nahi zuela.

Bordatxo betea zegoen. Zona hartako gazteak aste osoa pasatzen genuen larunbata noiz ailegatuko, herri bateko eta bertzeko neska eta mutil xarmantak ikusteko bederen. Hortik aitzinera deus egiteko abildadez ez geunden preseski sobera ongi hornituak. Suertea tokatzen ahal zen, baina esperantza handirik ez gehienetan guk. Egun hartan, halere, iduri zuen niretzat erregaluren bat izaten ahal zela, Begoren begirada haiek ongi entenditu baldin banituen behinik behin. Nik ez izaki umore ikaragarririk ordea! Ezin nuen ikurrinaren istorioa burutik kendu. Egun hartan egin behar nahitaez! Gabika ostia hura, temoso zikina! Gainera, azkeneko kopak kalte egin zidala sumatzen nuen estomakan.

Komunera joan nintzen berriz, nerbioak lasaitzera. Paretako katilu haietako baten parean bragetako kre-mailera beheiti egin nuen. Pixa egiten ari nintzela, norbaitek zerbait gogorra paratu zidan bizkarraren kontra, «¡Alto! ¡Manos arriba!». Segituan ezagutu nuen boza, «Txulapain, txulito, zer ari haiz hi hemen?». Xabik kontatu zidan Ultzamako lagun batzuekin etorria zela. «Kinto afaria egin dugu Belaten!». Kurtso hartan ez ginen elkarrekin bizi, haren familiak Iruñean eresia zuen pisu batera joana zelako, Txantreara, arrebeekin bizitzera, baina banekien Donztebe aldera jotzen zuela asteburu batzuetan herriko kuadrillarekin. «Non daude Alkasoroko neska potenteak?», galdetu zidan. Aparte egoteko erran nion, bromatan, ez nuela kontrario gehiago nahi gau hartako partidari. Ederki nekien lagunak zenbat ikasi zuen kapitalera joanez geroztik, nik ez bezala. «Zu ere ez zara kejutuko!», botatzen zidan maiz. Baina, egia errateko, terreno horretan aisa irabazten zidan. Ile leuna luze utzia zuen, sinpatikoa zen, eta bazuen berezko goxotasun bat neskatxarik gogorrena ere errendiarazteko balio ziona.

Diskoteka erdiko plazara joan ginen. Kuadrillako lagunek borobil bat egina zuten lepotik elkar harturik.

Ezagutzen genituen Donamariako neska batzuk ere sartuak ziren tartera. Nirekin batera lotu ziren Xabi eta bere lagun ultzamarrak ere. Bego saltoka izerditan ikusi nuen. Tturkok zerbait erran zion beharrira eta irrika hasi ziren biak ajari batean. Halako batean atorrako botoia laxatu eta titiak erdi agerian gelditu zitzaizkion sujetadorearen barrenean preso. Bera ez gainerako guziak ohartu ginen. Malixak abisatu zion, baina berdin segitu zuen. Inporta zitzaion hari!

Tankeri borobila lerro bihurtzea gogoratu zitzaion. Guzion buru jarri eta eskaileretara jo zuen. Gero, goitian, hango pasabideetan barna denak ilara batean gidatu gintuen. Ostatura hurbildu ginen hanka bat Paris aldera eta bertzea Londresera begira. Halako batean bi arrotz gure katea moztera sartu ziren zakar. Bego eskutik hartu eta handik ateratzera saiatu ziren tiraka. Neskak bakean uzteko erran, eta orduan eta gehiago tiratzen haiek. Zer uste zuten? Akabo gure dantza! Santi ultzamarra joan zen lehena Begori laguntzera, baina haietako batek bulkatu eta airean bota zuen. Ergel haiek ez zeuden ongi burutik! Orduan Xabi joan zen zuzenean tipo haiei kargu hartzera. Gabika ere segituan ondora. Baita Malixa ere. Bertzeok oihuka hasi ginen inguruan, baina sobera sartu gabe, zer gerta

ere. Gure lagunak eta okasiozale haiek elkarri desafio-ka hasi ziren. Padilla beratarra hurbildu eta kasu emateko abisu eman zigun, haietako bat Berako kuarteleko guardia zibila zela eta ohartu zela mozkor arraila zegoela. «Kristoren zepelina dik!», erran zuen. Sekulako iskanbila sortu baitzen, Bordatxoko langileak eta buru egiten zutenetako bat istantean etorri ziren. «Alde hemendik! Joka ari nahi baduzue, fuera kanpora!». Tturko ere tartean sartu zen bere gorputz handiarekin. Beharrik haiei, bertzela ez dakit zer pasatuko zen.

Kanpora ez, baina aparte joan ginen, bi muturbeltz haiek hantxe utzita. Bazter batean elkartu ginen denok. «Kalma eta lasai egon!», bota zuen Xaturerek, «Ahantzi jende hori eta goazen besta egitera!». Bego gaizkitu zen, goitika bota behar zuela erran zuen. Malixak lagundu zion komunera. Justu orduan itzali ziren argi gehienak, eta gitarra baten akordeak aditu ziren bozgorailuetatik. Lourdesek «Santana!» erran zuen kontent. Dantza lotuan hasteko abisua zen. Gabika eta biok bakarrik utzi gintuzten. Hura zigarro erretzen ari zen, lurrean jarrita. «Non hintzen arestian, Ezizoki, jaleoa hasi denean?» bota zidan begi keinu eginda. Ultzamarrei laguntzera zergatik ez nintzen hurbildu, ale-

gia. «Hi, bat guardia zibila zuan, e! Padillak erran dik horiekin bromarik ez izateko!». Kea bota zidan aurpegira eta begiak alde batera egin zituen. Hitzik gabe «Hago isilik!» entenditu nion. «Goazen zerbait hartzera!», erran zuen gero. Gibeletik segitu nion. Betiko ile kizkurra luzatzera utzia zuen eta buru gaina ikusgarri zuen. «Jimmy Hendrix iduri duk», erran nion, eta hura gitarra imajinatu bat jotzen hasi zen.

Mostradorea bilatu genuen berriz, baina lehenagoko zalaparta tokitik aparte. Gorputzak ez edateko eskatzen bazidan ere, patxaran gehiago nahi nuela erran nion zerbitzariari. Gabiak kubalibre bat. Tturkoz galdetu zidan, non ote zegoen, agudo joan behariko baikenuen kanpora pentsatua genuena egitera. Zubiko pareta bustia eta irrista egonen zela erran nion. Ez kezkatzeko hark niri. Eskalatzen ikasten ari baitzen Bilbo aldean, farola goiti aisa joanen zela pixka bat laguntzen bagenion, «Panticosako katakurtxintxak bezalaxe». Halako batean, lehengo toki berean berriz ere kasaila zela ohartu ginen. Lauzpabortz lagunuen arteko beso eta ukabil zurrunbilo baten erdian, Santi eta Xabi ezagutu nituen lehengo tipo berberekin borrokan. Zer ostia ari ziren hor orain?

Gabika kolpean zutitu zen aulkitik gatazka zegoen lekura joateko. Justu orduantxe jendea oihuka eta lasterka hasi zen mostradoreko txoko hartatik urruntzen. Ikara aurpegiak ikusi genituen. Guardia zibila bide zenak pistola bat zuen eskuan, Santi ultzamarrari apuntatzen. Padilla oihuka hurbildu zen dantza-plazatik, «iiiPara, para!!! ¿Estás loco, o qué?». Berandu, pistoleroak tiro egin baitzuen. Santi lurrera erori zen eta Xabik salto egin zuen eroturik hiltzailearen gainera. Bertze tiro batek gure laguna bete-betean jo zuen estomaka aldean. Edo bi izan ote ziren? Diskotekako musika itzali zuten eta kanpora atera nahi zuen jendearen orroa bertzerik ez zen aditzen. Santik hilik ematen zuen, baina iruditu zitzaidan Xabi zerbait mugitzen zela. Eltzetzuak arma ezker-eskuin erakutsi zuen bera nagusi zen terrenoa markatzeko, inor ez hurbiltzeko. Denok gibelera egin genuen, bat kenduta. Gabika karaz kara plantatu zitzaion, «Egizak berriz tiro!» erranez bezala, eta erreakzionatzeko astirik eman gabe ostikoa bota zion arma zuen eskura. Orduan laugarren tiroa atera zen pistola madarikatu hartatik, azkena, nahiz eta tipoak behin eta berriz katua zanpatu, trabatu egin zelako. Ez dakit zerk jo ninduen beharri ondoan. Nahigabe handi bat sumatu nuen

neure baitan, sekulako ahulezia hanketan. Garrasi bat aditu nuen, «Martin!!!», bertze norbaitek «Irazoki!» erran zuen, edo «Ezizoki!, ez nago seguru. Ez naiz bertze deusetaz oroitzen.

Biharamun goizean, goizeko mezara joan ziren al-kasoroarrek ikurrina bat ikusi zuten ustekabean eliza-ren kanpandorre gaineko haize-orratzean loturik. Zinta beltz bat josia zuen gurutze zuri-berdeen erdian. Kanpandorre gaineko zeruan! Ez zen erraza izanen haraino eskalatzea. «Baina, bertze erremediorik ez bada, joan behar baldin bada, harat ere joanen gaituk!».

ITSASTXORIAK LAINOPEAN

Bi mahairen gainean pausatu zuten nire hilkutxa. Haien kontra aritzen ziren gauero musean gurera etortzen ziren zurruteroak. Gaina formikazkoa zuten, zikin-estali gorri-beltza. Nerau ere makina bat aldiz egona nintzen inguruan, Martin Tranparen ondoan! Mostradorearen kontra, hainbertze ipurdi klaseren karga jasana zuten aulki luzeak garbi-garbi zeuden, argizaria eman berri. Haiek aski ez, izebaren etxetik silla multzo bat ekarri eta bueltan-bueltan paratu zituzten, bisitan etorriko zirenak haietan jartzeko.

Berez denda eta aldi berean ostatua zena orain hileri eta familiari lagun egiteko sala bihurtua zen. Horretarako norbait lana gogotik egina zen. Bezperan klase guzietako jeneroz beterik zegoen tokiari inarrosaldi polita eman eta garbi bezain apain utzia zuten. Nora eraman ote zituzten sardina zaharren kaxa boro-bila, fruta eskaintzeko burdinazko saskiak, kristalezko botilentzat prestaturiko kabiak, sabaitik zintzilik egoten ziren ardi gasnak, aizkora giderrak, Van Berkel pisu elegantea, txorizoa xerratzeko makina? Olio boti-

lak betetzeko makina ere falta zen, baina lehendik kendua zelako; ez aspaldi, ordea.

Nolanahi ere, traba egiten ez zuten gauzek euren tokian segitzen zuten, isil-isilik. Ostatuko mostradorearen gibelean apal guziak likore botilaz beterik zeuden, eta bazen hiru litroko handi bat iltze batetik zintzilik, Kristo gurutzean balitz bezala, *Coñac Terry* paratzen zuena. Pareko bertze aldeko apaletan, berriz, gehienbat jateko gauzak zeuden: piper eta tomate po-toak, azukrea kiloko zakutoetan, zopa egiteko pasta eta makarroiak, arroza, maionesa, txokolatea, kafea, txikoria, gatza; baina baita bertzelakoak ere: xaboi puskak, estropajuak, kolonia, botoiak eta josteko hariak, iltzeak, espartinak, aspirinak.

Diz-diz egiten zuen prestatu zidaten kutxaren azal-lak. Tapakia kenduz leiho moduko bat bistaratzen zen, eta handik nire gorputzaren erdia agerian. Oihal zuri batean bildua nuen burua, tiroaren arrastoa ez ikusteko, baina bertze gainerakoan iduri zuen lo nengoela lasai ederrean. Emakumeak denbora gehiago gelditzen ziren niri begira. Burua alde batera eta bertzera mugitu eta painelua ateratzen zuten malko bat biltzeko eta segidan zintz egiteko. Gero amari besarka leuna egiten zioten, «Horren mutiko ederra!», «Hain

gaztea!», eta solasean hasten ziren amarekin berarekin edo izeba Elenekin. Gizon batzuk kapelua besapean harturik sukaldera joaten ziren zuzenean, aitari «osasuna enkomendatzera» eta bidenabar ardo trago bat hartzera. Baina gure etxeko nagusia desegina zegoen, eta ez zen inorekin egoteko gauza. Ez zuen halako nahigaberik sentitu itsasoan arrantzan ibili zen aldi bakarrean Kanarietako partean eritu zenez geroztik. Ordea, orduan ez bezala, orain salbazioko porturik inon ez harrapatzen. Hitz bat egiten hasten zelarik, aurpegi osoa gorritu eta zimurtu egiten zitzaion, eta negarrez hasten zen deus erran ezinik. Gibeledko atetik alde egiten zuen inork ez ikusteko. Anaia Ramontxo ere haren ondoan zegoen, baina gehienbat osaba Anjelek hartu zuen bere gain jendeari kasu egiteko lana. Aunitz balio zuen osabak. Sukaldeko mahaiaren gainean, ardo eta moskatel botilak, eta haietan bustitzeko pastelak. Izeba hasi zen ontziak garbitzen, kafea egin eta emakumeei eramaten, baina ezin bakarrik eta Tturkoren amak lagundu zion, Xolek, bere betiko umorearekin. Emakume hark gorriak ikusiak zituen bere bizian, baina ez nion behin ere iluntasunik ikusi aurpegian, «Zertarako triste egon? Ez du deusetarako balio!». Nola mugitzen zen! Hari eskerrak animatu zen

zerbait ni ikustera bildu zen kofradia. «Edan ardo goxoa eta akabo penak!» erraten zuen, «Kafe pixko bat? Ttanttarekin?». Hondarreko, amari ere irri xorta bat isuri zitzaion begi erori haietatik. Joxantoniori mandatu batzuk egiteko agindu zioten. Eguneroko otorduetarako preziso zirenak. Eta hainbertze jende heldu baitzen, haientzat ere etxea hornitu beharko zen nolabait ere! Arreba gaztea, Elen, lehenbiziko solairuko salara joan zen lehengusinekin. Diskoak aditzeko aparatua entxufatu eta gure singleak eta LPak aditzen aritu ziren: Miguel Rios, Rolling Stones, Benito Lertxundi, Victor Manuel, Creedence, John Lennon, Facundo Cabral... Xari gure xakur maitagarria, berriz, nirekin kutxa barrenean ezin, mahaiaren azpian mugitu gabe geldirik egon zen denbora guzian, ile pilota bat iduri zuela, muturra atzeko hankaren azpian sarturik. Ez zen nire ondotik mugitu arratsean etxeakoak bakarrik gelditu ginen arte. Orduan, kanpora atera zen Urrabia bazterrean barna bueltaxka bat ematera. Hura ere auriaka nola aritu zen aditu nuen nire deslektik.

Herri osoa pasatu zen gure etxetik, Kasinoko Ines bere ahizparekin, Joakin, Agarakoak, Paco medikua, Maripaz, Patziku, Rusoa, Jaxinto, Estaziokoak, oilarte-

gitarrak, perrexildarrak, Maddalen, Urbano, Gabikaren ama, Txapas, Inazio, Maritxu jostuna, Xankailo, Pas-kualita, madame Sophie, Martin Tranpa, Pedro Kokotsa eta bere andrea, Etxandienekoak, harakina. Felipe Errandonea, alkate berria, osabarekin mintzatu zen, «Ez dago deretxorik! Gobernadorearekin solasteko edo zernahitarako behar baduzue, Aiuntamentua zuekin joanen da!». Bertzelako haizea genuen Herriko Etxean! Feliziano ere etorri zen, baina ez zuen broma egiteko gogorik erakutsi. Maite ninduen, nik uste, eta nik bera ere bai. Hark ere leihotik begiratu eta bere «Martin zikin, hiru erregeren sorgin!» erran zidan isilka. Amarengana joan zen zuzenean. Serio-serio, pixka bat makurtu eta beharrira, «Karmen, badakizu nik badutala podorea hilekin solas egiteko...». Amak burua mugituz baietz, bazekiela, baina ez zuela txorakeriarik aditzeko gogorik. Xole segituan ohartu eta oihu egin zion, «Feliziano! Etorri sukaldera xurrua bat hartzera!». Aspaldi ikusi gabeko Fermin ere sartu zen bere sentimendua adieraztera. Haur denborako gure arteko ezinikusia ahantzia genuen. Orain itsasoan ibiltzen zen arrantzan, Pasaiako barku batean. Ternuatik bueltan etortzen zenean beti ekartzen zuen zerbait gure etxera. Azken aldian txangurru eder bat ekarri zigun.

Aski gustura aritu zen gure aita haren hexur guziak txupatzen!

Lagunak ere agertu ziren azkenean, baina berandu. Ederki kosta zitzaien! Hainbertze kezka! Uste nuen ez zirela etorriko! Elkarrekin denak: Anttonio, Beltxa, Luixito, Lourdes, Mentxu, Mateo, Tanke, Xatur. Malixak doi-doia kontu zien bere baitako sentimenduei eta begietako malkoei. Zerbait erran zidan, baina ez nion entenditu. Gabika arras soraiotua, joana bezala, oraindik ez zuen sinesten gertatu zena. Tturko hortzak estuturik, nik uste maldizioen bat eskapatu zitzaion. Arraitz denetan hobekiena, «Suerte txarra!», erraten zuen. Bego hagitx gaizki zegoen. Hobe zuen etorri ez balitz. Amarengana hurbildu ziren banakabanaka musu ematera, eta orduan ikusi nuen gure ama okerren. Istant batean zuri-zuri jarri zen, zorabioren bat noski. Baina agudo eman zion buelta, «Ze ergela naizen, emozionatu egin naiz!», aitortu zien. Indar handia zuen, ikaragarria. Bego hartu zuen beso artean bertzeak baino beroago. Gero, burua altxarazi eta begietara begiratu zion, «Etorriko zara bertze egun batean nirekin egotera?». Nola ote zekien hark gure artean bazela zerbait berezia? Bera gaztea zen denboraz oroitzen zen, orduan maitatu eta heriotzak

eraman zionaz, sekula ahantziko ez zuen mutil segailaz. Bere buruari galdetzen zion nola ote zen posible hainbertze urteren ondotik Bordatxo izena berriz ere bere bizitzara gisa hartan sartzea.

Telefonoa ere poliki berotu zen egun hartan. Kanpoko jendaki guziak deika, Irungoak, Iruñekoak, Orotz Betelukoak, Urruñako Oletakoak. Hurrengo egunean etorriko ziren etxekeekin egotera, elizako funtzioaren aitzinetik.

EZ zuten egundaino hainbertze jende batera ikusi Ultzamako Gerendiainen. Hangoa zen Santi, Xabiren laguna. Automobilek elkarri traba egiten zioten kamio estuetan, baina inork oihu zakarrik ez; gero, herrian ezin inon kabitu, nolana utzi zituzten karrobide eta soroetan. Herritarrak izaturik zeuden kanpotar jendeketa harekin. Eliza eskas, halako sei aldiz handiagoa beharko zuten. Eguraldia hotz baina ateri, apezak meza kanpoan ematea erabaki zuen, plazan, aire zabalean, «Jaunak hobeki ikusteko jende xehe honek eskatzen diona». Guardia zibilak euren furgonetekin bazterretik begira, lotsa gabe. Ibarreko herri guzieta-ko jende arrunta, aitzineko larunbatean Bordatxora

Joan ziren gazte haiek ongi ezagutzen zituen, eta zui-tatetik etorririko esku zuriko mutil bizardunak, neska ile-luzeak, antiojodun aunitz; heriotza haiengatik lanik egin gabe protesta egin zuten fabriketako obreroak; eta azaroaren hogeita bitik mugarik gabeko greban zeuden konstruzioko langileetatik ere franko. Hantxe zeuden gure Fakultateko lagunak, hantxe zegoen Maika dendari begi-ederra ere. Denak serio, denak erne, zelatari uniformedunei desafioka, «Hemen gaude gu, eta ez dugu barkatuko!».

Kanposantura bidean familia ezin kontsolatu. Aitak berak eraman nahi zuen bizkarrean bere semearen gorputza, «Santi hil digute!». Nola egiten ahal zen halako gauza bat? Ezin sinetsi gorputz gazte hark bizirik ez zuela, ez zela loaldi hartatik sekula ernatuko. Hilobira sartzeko orduan aitak berak negarrez kutxa berriz irekitzeko eskatu zuen, azkeneko aldiz ikusi nahi zuen semea. Ezin denbora gibelera egin gertatu zena geldiarazteko, inoiz ez izateko. Nola biziko ziren halako huts harekin? Zer egin zuen guardia zibil zital hark! Ohartzen ote zen? Deus sentitzen ote zuen? Zer pentsatzen ote zuen haren familiak?

Bitartean Xabi ospitalean zegoen, oraindik hari mehe batek bizirik kontzen ziola. Amore eman nahi

ez. Tiro bat ez aski iruditu pistoleroari, bi disparatu zizkion gerrialdean. Gogorra zen gure txulapaindarra. Pentsan eman zuten haren egoeraren berri. Orduan ikasi zuten nire gisako ezjakin guziek non zegoen Txulapain, non zegoen Usi herri ttipia, halako mutil handia eman zuena. Guardia zibil ustela ere erietxean zegoen, *«En cuanto al autor de los disparos, el guardia civil José R. D., del puesto de Vera de Bidasoa, está ingresado en la unidad de vigilancia intensiva del Hospital de Navarra»*, pistola trabatu zitzaionean lurrean kolpeka zanpatu bide zuten.

Santiren eta Xabiren lagunak elkarrekin zeuden Gerendiango hiletan, bata bertzearen arrimuan, elkarren ondoan babesa bilatzen duten animalien gisara. Hitzik egiteko gauza ez. Ez ote zen hura dena amets gaizto bat? Noiz bueltatuko ziren errealitatera, berriz ere mahaiaren bueltan denak juntatzera, elkarrekin mozkortzera? Gero automobilak hartu eta Iruñera, Lekunberrira, Doneztebera joateko, irri eta dantza egitera.

Alkasoro ere zanpeteraino bete zen automobileraz eta jendez. Alkateak albienteei behar ziren aginduak

eman zizkien. Kandido eta Eleuterio bide bazterrean jarri eta kanpotar guziei non aparkatu erakutsi zieten. Izkina guziak ongi aprobetxatu zituzten. Haiekin batera, Felizianok ere zer tokitara joan seinalatzen zuen bere bastoiarekin. Seierrietako eta Malerreka-Baztan aldeko jende pila bat etorri zen. Hantxe zeuden urte batzuk lehenagoko sanferminetan ustez konkistatu genituen neskatxa lesakarrak, hantxe Donezteben gurekin suertatu ziren beratarrak, haien artean Padilla ere txoil sumindua, sutua eta mindua. Koldo, Ritxar, Emilio eta Arturo Campiongoak, Iruñetik etorriak. Irun, Hondarribia, Oiartzun eta urrunagoko gizon-emakumeak. Iparraldekoak ere ez gutti.

Elizan ezin zen inor gehiago sartu, eta kanpoaldean barrenean adina lagun, eskaileretan eta Plaza Nagusian. Rusoaren ostatuan herriko bestetako larunbatean baino negozio handiagoa. Jendeak bazuen beldur pixka bat, meza ondotik Aiuntamentuak manifestazioa egiteko deia egin baitzuen. Denak nerbioso, ezker-eskuin begira, eltzetzuak nondik agertuko ote ziren.

Amaren lehengusuak eman zuen meza, herriko don Jonas apezka laguntzaile zuela. Guretzat *tio* Rufino zen bertzeentzat Padre Rufino zena. Aitari ez zion gra-

ziarik egin, amari berari ere ez sobera, baina familia-ko kontuak ziren, eta ez zen inorekin errietan hasteko tenorerik hoberena. Gure osaba hark fama zuen eskuindarra zela, frankista. Irakasle ari zen jesuitek Xabierren zuten kolegioan, eta eskandalizaturik zegoen urte haietan denean barna hedatzen ari zen aldaketa haizearekin. Harekek zuzendu behar nire aldeko funtzioa, eta nik ez nahi haren zerura joan! Beharriak tapatu baintuen, ez dakit meza zer hizkuntzatan eman zuen, baina latin zaharrea ere tarteren bat egin zuen, «Dominus vobiscum» garbi samar aditu bainuen, nire loaldi berezi hartako ametsa izan ez bazen bederen.

Meza hondarreko «Zoazte jaunaren pakean» hitzen ondotik, Gabika eta Malixa aldare aldera abiatu ziren, apezai baimenik galdetu gabe, eta han paper bat irakurtzen hasi. Osaba Rufinori aurpegiko kolorea mudatu zitzaion bat-batean. Nola atrebitzen ziren mukizu zoldazu haiek Jaunaren tenplu sakratuan halako sakrilegioa egitera! Gabikak bere sermoia bota zuen. Meza denboran batzuek erretolika klase bat jasan behar izan bazuten, orain bertze aldeko zenbaiten marmarra sumatu zen. Azkenean, «Gero, kanposantu-ko lanak akabatzean, handik denak bueltan etorriko

gara Plaza Nagusiraino Aiantamentuak konbokatu duen manifestazioan» erran zuen, eta Malixak bere indar guziarekin «Martin, gogoan zaitugu!!!». Eliztarrren erdiak esku-joka hasi ziren, eta Gabikak berriz «Gora Martin!!!» bota zuenean oihartzunak izugarritzko burrunba egin zuen elizaren barrenean, «Gora!!!».

Denak oinez abiatu ziren kanposanturaino. Lau lehengusuk bizkarka hartu zuten hilkutxa eta ezagutzen ez nuen mutil bibotedun batek ikurrin bat paratu zidan gainean. Hura Hendaian edo erosia izanen zen. Gure maindire pintatuak bertze xarma bat zuen. Osaba apezak bandera hartu eta su emateko gogoia sentitu zuen, baina ez zen atrebitu. Prozesioko buru Oilartegi-ko Jabier jarri zen, eskuetan gurutze bat eramaki zuela, huraxe baitzen gure etxetik elizara bidean zegoen lehenbiziko etxekoa. Haren ondotik apezak eta haiei laguntzen zieten bi mutiko joaki ziren, gero nire hilkutxa, eta gero familiakoak eta gainerako guziak. Hainbertze jende isil-isilik, pausoen soinua bertzerik aditzen ez zela! Bazterretako belategietako berdeak min egiten zuen begietan. Haietan bazkatzen ari ziren ardiak harri, behin ere halakorik ikusi gaberik.

Familiakoekin batera, hilerrira jende mordoxka sartu zen. Herriko nire kuadrillakoak eta Iruñetik eto-

rri ziren lagunak, Ramontxoren ezagun multzo bat, bertako eta inguruko aiuntamentuetako kargudunak, sindikalistak, itxuraz politikan ibilki zirenak, eta nola edo hala toki guzietan euren muturra sartzea gustatzen zitzaion bat edo bertze ere bai. Kanpotar itxura zuten hiru neska ere lehenbiziko lerroan jarri ziren. Katalanez ari ziren euren artean. Haietako batek gerezi xardangoak iduri zuten beharritako luzeak zituen, ile motxari esker agerian. Gabiak ere horregatik eza-gutu zuen. Harengana hurbildu, eta bi lagunak besarkada estuan lotu ziren.

Hilobiaren ondoan osaba Rufino harro-harro plantatu zen azkeneko hitzak errateko prest. Ustekabean, Arraitz ziplo erori zen lurrera. Lagunak harriturik hurbildu zitzaizkion. Ez zekiten eritu egiten zela kanposantua ikusi orduko. Oroitze txar bat, bertzerik ez. Tturkok ongi zekien arrazoia, mutiko koxkorrak zirela Arraitzek eta biek han berean gaiztakeria egin baitzuten. Almibarretan jarritako udare poto handi bat ebatzi eskolako sukaldetik eta inguru hartan jan zuten elkarrekin. Zanpa-zanpa jan, zorroa lehertu hurran izan arte, bezperan hil zen herritar batentzat zuloa prestatzen ari zen langileari begira. Ase ziren ederki, alajainkoa, ase ote ziren! Baina aste osoko tripako mina gero

Arraitzek. Harrezkeroztik sekulako gorrotoa hartu zien udare gozo «nardagarri» horiei eta gaizkitu egiten zen zelai sakratu hartara hurbildu hutsarekin. Tturkok berak bizkarrean hartu eta kanpoko iturrira eramanezuen laguna, ur freskoaren azpian berriz ere bizteko esperantzarekin. Bitartean, apeza hasia zen bere teatroa egiten. Espantu handiarekin otoitz egin eta isipuko ur bedeinkatutik tanta batzuk bota zituen kutxaren gainean. Burua tente-tente, adios erran gabetanik alde egin zuen, nire lagunei bere mutur beltza erakutsirik. Gainerakoak hantxe gelditu ziren, panteoiaren barrenera nola jausten nintzen ikusten. Kandidok eta Eleuteriok kontu handiz utzi ninduten zoko ilun hartako zolan osaba Anjelek lagundurik. Oilartegira esposatu zen Ixabel-Veroniquek erramu adaxka bat bota zidan gainera, hala egiten baitzen beti, eta haren segidan lore koroa usain onekoek kutxaren kontra jotzean atera zuten soinua aditu nuen.

Familiakoak erretiratzen hasi zirelarik, Gabiak ezker eskuko ukabila goiti egin eta *Internazionale* kantatzen hasi zen. Kanpotarrek segitu zioten, herriko gehienek ez baitzekizkiten hitzak. Osaba Rufinok urrundik burua bueltatu zuen, eta ezpainenatik eskapatu zitzaizkion loreengatik barkamena eskatu behar-

ko zion bere jaungoikoari. Gero *Eusko Gudariak* etorri zen, eta orduan bai denek batera. Erremate gisara, trumoiaren moduko oihua egin zuen nire lagun finak: «Gora Irazoki!!!».

Pankarta handi bat zabaldu zuten, «Martin gogoan zaitugu» letra handitan idatzirik. Aiuntamentukoek hartu zuten erditik, mutur batean Joxan eta Ramontxo eta haien lagunak jarri ziren, eta bertzean Gabika, Malixa, Axun, Tturko eta Andres Tanke, eta haien gibelean bi neska katalanak eta kuadrillako gainerakoak. Alkateari baimena emana zioten Berako kuartelean, oihurik ez egiteko kondizioarekin. Jendeak bazekien hori, eta iduri zuen denek errespetatuko zutela agindua. Trenbide zaharretik poliki-poliki abiatu ziren Alkatoro goiti. Eguzkia agudo sartuko zen Maldarrune gibelean eta nahiko hotz zegoen.

Elizatik kanposanturaino arestian etorri zirenen erditsuak gelditu izanen ziren orain manifestaziorako. Aunitz joanak ziren, beldurka edo badaezpada ere. Landa-zelaietan ez zen aziendarik ageri, beheitirakotan han barna bazkatzen ari ziren ardiak gordelekura sartuak, dudarik gabe. Etxeetako leiho-balkoietan ere

inor ez. Nahitaez mantso egin zuten bidearen lehenbiziko partea, herri osoa gurutzatzen duen karrika nagusia malda zut samarra baita. Manifestazioko burua eskolaren parera ailegatu zenean, hantxe agertu ziren inork ikusi nahi ez zituenak. Eskolaren aitzinaldean eta frontoian ez dakit zenbat land-rover aparkaturik, hamabortz bat guttienez, eta haien ondoan zutik marmorroak lanean hasteko prest, aurpegia tapaturik, buru gainean kaskoa eta eskuetan fusila.

Pankartari kontzen ziotenak gelditu egin ziren instant batez, eta denek Feliperi begiratu zioten. «Segi aitzinera!» erran zuen alkateak serio, eta orain hankak bizixeago mugiarazi zituzten. Guardia zibilek ez zuten bertzelako keinu itsusirik egin, baina gibeletik heldu zen jendearen artean ziztu bizian zabaldu zen berria, «Eltzetzuak!». Hitz hori aski batzuentzat, lasterka hasi ziren beheiti aldera, eta haiekin batera ondotik heldu zirenak ere bai. Beldurra kutsatu erraza baita, manifestazioaren erditik atzera zegoen jende gehiena eskapo joan zen itoka. Lehenbiziko lerroetan joaki zirenez aparte, gogorrenek bertzerik ez zuten segitu. Haietako batzuk uniformedunen ondotik pasatzean, ezin izan zuten barreneko errabia lotu eta oihuka hasi ziren. Lehenbiziko bat edo bi, «Martin, gogoan

zaitugu!»), baina gero eta multzo handiagoa, «Herriak ez du barkatuko!», eta hondarreko denek, «Policía asesina!». Horrexen esperoan zeuden.

Gabika eta Malixa elkarri eskua emanda karrobide batetik sartu ziren bertze zenbait jenderekin batera. Burua tarteka gibelera jiratzen zuten, baina tiroak, oi-hu-garrasiak eta lasterkarien pauso biziak aditzen ziren bitartean aitzinera segitu zuten heriosuhar. Bi kanpotar juntatu zitzaizkien, azkaindar gazte batzuk, haiek galduak baitzeuden nora jo edo zer egin jakin gabe. Harat eta honat ibili ondotik, Urrabia bazterreko txopotegi batean gelditu ziren azkenean laurak hatsanka. «Hemen seguru gaudezi!». Handik land-roverren sirenak eta fusilen tiroak aparte samar aditzen ziren. Hantxe esperatuko zuten egoera lasaitu zela iruditzen zitzaien arte. «Putakumeak!», barren-barre-netik atera zitzaion Malixari. Ordukoz ilun zen. Zapatak lohiz oraturik zituzten eta arropak ere nonbait hor. Nahiko hotz egiten baitzuen, Malixak Gabika besarkatzeko keinua egin zuen. Mutilak ez zion trabarik paratu. Igantziko sanmigeletan egin genuen parrandaz oroitu zen. Pirinioetatik bueltan etorriak ginen eta, estudianteak bakoitza geure destinora joan aitzinetik, despedida ospatu nahi genuen. Haize hegoa zebilen,

«Haizego xuria» Arraitzek. Besta pollita bota genuen geure estiloan. Plazako musika isildu eta gero, Alkasorora berriz erretira egiteko tenorean, Gabika eta Malixa falta genituela ohartu ginen. Halako batean estrata batetik agertu zitzaizkigun biak begiak lore. «Begerazaiok honeri!», erran zidan Arraitzek isilka, «Berriz ere harrapatu dik alu honek!». Gero, automobilean, Gabika gurean etorri baitzen eta Malixa bertze batean, «Zer, gaur ere goxatu?», erran nion nik. Kaka egitera bidali ninduen irri murrirxa aurpegian. Eta «Gainka ibili?» Arraitzek, berea nahitaez. «Gainka ez, azpika! Hago ixilik, demonio astapittoa!». Arraitz irrika hasi zen bolantea eskuetan, eta orduan ere ez dakit nola ailegatu ginen herrira bazterrik jo gabe.

- Zer duk burutan? -ernarazi zuen Malixak-. Zer egin ote dute Axunek eta bere bi lagunek? Ez ditek herria ongi ezagutzen.

- Plaza aldera joan direla iduritu zaidan, Tturkorekin eta. Horiek Lourdesen etxera sartu ditun, seguru. Nolanahi ere, Axun ez dun galduko!

- Ez diagu berri txar gehiagorik behar.

Denbora puska bat eman zuten txopo artean bi bikoteek, kontu kontari. Ordu baten buruan edo, ematen baitzuen herria lasai zegoela, kontu handiz buelta-

tu ziren, batzuk automobila hartzera eta bertzeak euren etxeetara.

Tiro egin zuen guardia zibilar San Frantzisko Xabierkoaren egunean alta eman bazioten ere, Xabik ospitalean segitu zuen hil ala bizi. Han ere sumatzen zen Iruñerriko txoko guzietara hedatua zen giro nahasia. Jendeak solas egiten zuen, baziren kartelak paretetan, Poliziaren furgonetak noiznahi aditzen ziren sirena joka. Izanez ere, sektore bateko eta bertzeko langileak greban zeuden, behar eta merezi bezalako jornalak eta lan-kondizioak eskatzeko, egunero baziren amnistiaren aldeko manifestazioak edo itxialdiak, eta Suarez presidenteak abenduaren 15erako deitu zuen erreferendumaren alde edo kontra egiteko pintadak eta panfletoak nonahi ikusten ziren.

Egun baten ondotik bertzea, familiak eta lagunak ez zuten sekula esperantza galdu, baina, medikuek eta erizainek eginahalak eginagatik, Xabi joan egin zen abenduaren 17an. Bi operazio eginak zizkioten, makina bat odol transfusio ere bai. Ez zuten haren bitza salbatzeko balio izan. Xabi kaskagorrorak azken hatsa eman zuen ospitaleko ohatzean.

Biharamunean izan zen lagun kuttunaren aldeko hileta, Iruñeko Txantrea auzoan, familiaren bizileku berritik hurbil. Han ere, a zer jende pila! Pena handia eta mina handiagoa. Funtzioa akabatzean, elizako atean, jendeak berriz ere justizia eta «egiazko askatasun demokratikoak» eskatu zituen, bai eta kulpadunendako kastigua ere. Ondotik, manifestazioa egin zen auzoan barna, eta uniforme grisez jauntziriko polizia abaila aritu ziren egurra partitzen. Ordu berean handik hurbil, Gaiarre antzokian, arras bertzelako bilera izan zen, Eguberriko kanten X. Sariketaren finala. Lehenbiziko saria Amancio Prada izeneko kantari ezezagun batek irabazi zuen, galegoz eta itxuraz tradiziozkoak ziren hitzak kantatuz. Bigarren sariarekin konformatu behar izan zuen Maria Ostiz izeneko neska nafar batek, jende gehienak hark irabaziko zuela uste bazuen ere. Ordukoz fama handi samarra zuen, eta ez bakarrik Real Madrیدهko Zoko futbolari erronkariarrarekin esposaturik zegoelako. Eta hirugarren saria Fermin Valenciari eman zioten, nahiz eta saioa zuzenean aditzen ari zirenek botoa eman izate-ra segur aski hari paratuko zioten txapela; Victor Manuel Arbeloak eskribituriko hitzak kantatu zituen. Bermeoko Lupek ere parte hartu zuen lehiaketa hartan,

baina, sariren bat hartzeko adina merezimendu izanagatik, kantatu ondotik epaileek ez zuten harentzat punturik eman, kantariak galarazia zutena egin zuelako. Debekatua zuten kantatzen hasi baino lehen jendeari hitzik egitea, eta neskatxa gazte hura euskaraz hasi omen zen erraten Euskal Herrian Eguberriak ez zirela zoriontsuak izanen preso guziak etxera itzultzen ziren arte.

Presoek kartzeletan segitu behar izan zuten, eta Xabiri Iruñeko kanposantuan eman zioten lurra. Hurrengo asteburuan meza gehiago egin zizkioten, lagunak hartaz ezin ahantzi: Txulapain-Ultzamako gazteek Markalainen eta Malerrekakoek Donamarian.

Alkasoroko Kasinoko mostradorean Malixa ari zen zerbitzatze lanean, ama Ines sukaldetik sartu-atera zebilen bitartean. Ardoa edaten zuten mutilek; Arraitzek seltzarekin, «Hau mozkor fina duk» toreatu zuen Tankek. Begok Coca-Cola bat hartu zuen Malixarekin erdi bana. Nire aldeko meza izan eta gero, lagun batzuek zerbait gehiago egin nahi zidaten. Euren estiloko despedida bat. Horretarako, Bego gure amarekin mintzatu zen lehengo aldi batean. Erran zion emanen

zizkiola altxatuak zituen erretratu batzuk, bazuela mordoxka bat ttiki-ttikitatik niri eginak. Fotografia haiekin diapositibak prestatu eta pantaila handi batean erakutsiko zituzten, nire gustuko musika aditu bidenabar. Horretaz gainera, kantaldi bat ere antolatu gogo zuten. Gabika Bilbon ibilia zen batekin eta bertzearekin, eta berri potentea ekarri zuen egun hartan, «Imanolek baietz erran dit, etorriko dela Alkasorora!». Mateo nerbiostu zen, «Imanol? Ostia! Eta zer tokitan egin behar dugu hori dena? Jende aunitz etorriko da!». Malixak ez kezkatzeko erran zion, bere kontu uzteko hori. Eskolako zuzendariarekin moldatuko zen, hantxe hartzen baitzuen kafea arratsaldero. Begok bertze ideia bat ere bazuen, «Pentsatu dugu arbola bat sartzea mendian, Maldarruneko kaskoaren azpiko lepoan dagoen pagadi haren bazterrean». Haren ondoan plaka bat paratu nahi zuen Tturkok. Gabikak ezetz erran zion, «Aski duk guk jakitea ze arbola den. Zer inporta zaiok jendeari!». Denak ez zeuden konforme, ordea. Arraitzek muturra okertu eta bekainak goiti egin zituen gogorazio horiek guziak aditzean: «Pitoke-riak!».

Malixa lagunekin zegoela ikusirik, Ines mostradorera atera zen jendeari kasu egitera. Gurean bezalaxe,

ostatu hartan ere beti izaten zen mugimendua. Txokoka egoten zen jendea, bakoitzaren gustuaren arabera. Musean ari zirenen musika aditzen zen tarteka, «Hiru enbido ttikira!», «Eduki!». Joxe Perrexil bakarrik zegoen, telebistari begira. Adolfo Suarez Espainiako presidentea ari zen solasean. Ines hurbildu zitzaion, baso hustuak bildu eta haiek utziriko arrastoa trapu batekin garbitzera.

- Zer, Joxe, zertan ari da hori?

- Hori? Badakizu, horrek bere arkanbele kanta!

- Hala iduritzen zaizu?

- Horixe baietz! Kauendio! Horiek denak igualak dira. Bakoitxak berea! Ez diot batere kasurik egiten...

Eta halaxe izanen zen seguru. Joxe igeltsero aritzen zen, baina izatez artzaina zen. Bere aita bezalaxe. Irudituko zitzaizun begiratzen zizula, baina ez zintuen ikusiko. Hark burutan beti etxeko artaldea eramaki zuen, harekin joaten zen toki guzietara.

Txapasek izkina batetik txistu egin zion etxekoandreari. Xankailorekin erausian ari zen, eta egarri zeudela egin zion keinu. Felizianok lo iduri zuen, silla batean jarrita, baina ustekabean zutitu eta hura ere Ines joan zen toki berera hurbildu zen erdi ziraldoka. Txapasek zeharka begiratu zion.

- Hemen hintzen hi ere? Arestian Zubiko Bentan hintzen? Hau duk, hau, tipoa!

Inesek basoak marra gorriraino bete ondotik, Felizianok berea altxatu zuen, «Txin-txin!». Trago egin eta gero, ukabilarekin kolpe batzuk eman zituen bere petxuan. Horrekin ardoari pasatzera laguntzen ziola erran zuen, baina aldi berean haize bat eskapatu zitzaion zintzurretik haur jaioberriei bezala.

- Urde zerria! -erran zion Xankailok.

Deus aditu ez balu bezala, basoa oraindak ere airean zuela, bertze hirurei begiratu zien:

- Zuek uste duzue bertze munduan ikusiko ditugula hemendik joanak?

Futbolin dotorean lau mutiko ari ziren munduko txapelketa jokatzen. Ttikiak ziren, justu-justuan ailegatzen ziren jokalarien barrak hartzeko eskutokietara. Bosgarrena bazterretik begira, txanda zain, asperturik. Arratsalde motelari bixigarria ematea gogoratu zitzaion. Ostatuko bertze muturrean zeuden hiru gizoni begiratu eta ongi aditzeko moduko oihua egin zuen, «Feliziano!». Herriko xelebreak bere izena erran zuena begiz bilatu zuen. «Gora Euzkadi!», gehitu zuen zoldazu lotsagabeak. Gizonari aurpegia biztu egin zitzaion. Ukabila goiti egin zuen kontent. Hirugarren

oihua egin zion orduan, lasterka hasi baino lehen: «Eta izorra hadi!». Felizianok bastoia ezpataren modura airean hartu eta mekauenka hasi zen mutikoen kontra. Jotzeko keinua eginez mukizu haiengana abiatu zen, ahal zuen bezala, bere ibilera aldrebes hartan.

- Demonio! Harrapatzen bahaut, bixente eginen diat! Pitito hori moztuko diat!

Mutikoek futbolina utzi eta kanpora atera ziren presaka. Zirikatzaileak «Abudo, abudo, bixente eginen digula!» erran zien bere lagunei irri ajarika, lasterka eta esku batekin hankartea tapatzen zuela. Euria ari zuen oraindik, arratsalde osoan atertu gabe, jautsi ahala. Feliziano ostatuko atean gelditu zen, bere baitan kontent, bortz aluxka haiek nola izutu zituen begira. Etxera orduko txipatu eta pelatuko ziren seguru. Merezki zuten, ze arraio!

Euria gogotik ari zuen Seierrietan. Iduri zuen zerua ere azkenean negarrez hasi zela, tristuraren karga ezin jasan. Eguna joan eguna etorri, eta ez kontsola-tzen. Herritarrak ez ziren nolanahi ikaratzen halako erasoekin, gisa hartako euriketak ez baitziren misterio gure paraheetan. Hala ere, egun haietan bakarren bat

ponentsen hasia zen ez ote zuen soberaxko ari. Bide bazterretako pendoitzetan nonahi izan ziren lerrakurak. Pala mekanikoak eta eskukoak ibili behar izan zituzten kamio guziak garbitzeko. Etxeetan ere lana berretu zen, kanpoko lohia eta zikina barrenera ekartzen zelako.

Mendietatik ibai-erreketara inoiz baino ur kantitate handiagoa irristatu zen. Etxalarko Azkuatik, Arantzako Ekaitza aldetik, Igantziko Fraindik, Lesakako Agiñatik, Berako Larundik eta Labiagatik, Alkasoroko Maldarrunetik. Bete-beteak heldu ziren Tximista, Latsa, Onin, Zia eta Urrabia, lurraren kolorez, uher- uher. Urak harrapatzen zuen guzia bere baitan erama- ki baitzuen, jendeak bertara zernahi botatzeko aprobetxatu zuen, baita bakoitzaren baitako pozoiz eta sentimendurik mingarrienak ere. Gero haiek denak Bida- soak irentsi eta itsasoraino garraiatuko zituen.

Amak urik ez pasatzeko oinetako onak jauntzi, ga- bardina eta guardasola hartu eta etxetik atera zen ba- karrik. Xarik atetik begiratu zion, baina nahiago izan zuen idorrean gelditu. Zubiko Bentatik kanposantu al- dera abiatu zen trenbide zaharrean barna, egunero bezala lurperatu ninduten egunetik. Mendi aldetik ur- xirripa sortu berriak heldu ziren nonahitik. Karrika na-

gusia erreka bihurtua zen. Erne ibiltzen ez bazen, urak amilka eramanen zuen berarekin Urrabiaraino. Lasai segitu zuen hala ere aitzinera. Hilerrira sartu eta bisita egin zidan. Nire ondoan egon zen puska batean, zerruan trumoa lehertu eta euriak guardasolaren koloretako oihalean atabala jotzen zuen bitartean. Gero bueltaxka bat eman zuen jende gehiagorekin ere egon nahi zuelako. Kanpora atera zelarrik, Urrabia ondora joan zen. Hori ere egunero egiten hasia zen berriaz, ezkonberritan egiten zuen maneran. Ur bazterreko akazia biluzi batean mihura ageri zen, ttattar gisara. Ibaia harro-harro heldu zen, metro bat eskas falta kanposantua azpian hartu eta trenbideraino ailegatzeke. Ez zen estutu horregatik. Hilabete pare bat lehena-go itsasotik sartu bide ziren izokinez oroitu zen. Nola moldatzen ote ziren ur zakarraren kontrako bidean. Eta erreketako harrien azpiko zuloetan gordetzen ziren amuarrain ttikiek aguantatuko ote zuten urak herrestan eraman gabe?

Egun hartan berean atertu zuen, azkenean, eguerdi aldera. Baina ordukoz Urrabia ateratzeko puntuan zegoen. Handik ordu pare batera marea goiti hasi zen

eta Txingudin itsasoa Bidasoari bulkaka, egunero bezala jostetan. Bidasoak, aitzinera segi ezin, ezker-eskuin hedatu behar izan zuen nahitaez. Gauza bera gertatu zitzaion goitixeago Urrabiari. Aspaldi ez zen halakorik ikusi Alkasoron. Kanposanturaino ailegatu eta inork uste baino ur gehiago sartu zen barrenera. Hurbildu zirenek hilobi gehienak tapaturik zeudela ikusi zuten, haien gurutzeak bertzerik ez ageri. Don Jonasek sakelan arrosario baten pikorrak bilatu zituen nerbioso, zer egin ez zekiela. Jendeak galdetu zion zer pasatuko zen gorputz haiekin, zer gertatuko zen haien arimekin. Ama etxeko terrazara atera zen. Itsasontzi batean bezalatsu zegoen, aitzin-gibel izkina guzietan ura. Bentaren ateraino ez zen sekula ailegatzen, pareko aldean ateratzen zelako, hango arto landa azpian harturik. «Oraingoan ere, nora joan ote dira horko satorrak?» pentsatu zuen. Nitaz oroitu zen gero, «Urak akaso itsasoraino eramane du!». Ez zen nire gorputzhezurrez ari. «Bertze mundu batzuk ezagutuko ditu».

Zubi zaharra tente zegoen, hura ez zuten nolanahi suntsituko. Urrabia orroka heldu zen, espantuka. «Zer uste duk? Iñauteriak direla?», atera zitzaion isilka, «Nor ikaratu nahi duk hik?». Eta ibaiak orduan zubia-
ren erdiko hanka tinkoaren kontra indarka jo zuen. Ez

bazuen euria berriz ere hasten, mareak beheiti egitea-
rekin ugaldeak ere euren bideetara bueltatuko ziren,
baina hori gauaz izanen zen.

Iparra sartu zuen gero, eta egur gehiago bota
behar izan zioten suari gure etxeko sukaldean. Ilundu
zuenean, jendea ostatura etortzen hasi zen. Denek
euritearen ondorioak aipatu zituzten. «Zinkuentaikua-
trokoa baino handiagoa izan duk hau», erran zion
Klaudiok Urbano Altzuriri. Trenbide zaharrea barna
etorri zen Joxe Perrexil bere Ossa erosi berria, xalan-
ta gainean bezala, urari ebaki eginez. Gure etxera sar-
tzean, hotz handiagoa heldu zela erran zuen. Izanez
ere, inguruko belategietan hegabereren mintzurua aditu
zuen. Tropa handiren bat gaua pasatzeko ideiarekin
hantxe pausatu zena, dudarik gabe. «Eskandalu ede-
rra dute. Badakizue nola egiten duten itsastxori ho-
riek: ttuuiiii!, ttuuiii!»». Tturkoren aita, Konde zaharra, or-
dura arte isilik egona zen, «Demonio zakila! Horiek ez
dituk itsastxoriek eginak, horiek kanposantuko arime-
nak dituk! Ura sartzen ari zela ohartu eta ziztu bizian
atera dituk lur azpitik. Orain esperoan zeudek, ura
noiz errendituko bere betiko lekura». Behar baino txi-
kito gehiago edanak zituen, egun hartan ere aitak la-
gundu beharko zion etxera, bertzela ez dakit ailegatu-

ko ote zen. Kondearen erranak adituagatik, Inaziok gero ohatzera sartu baino lehen eskopeta prestatuko zuen.

Hegabera gaixoek, euren gandor elegante haiekin, gau osoa pasatu zuten garrasika, hotzak, «Goazen bizi-bizi hegoaldera» elkarri erraten ari balira bezala. Bitartean, pixkanaka-pixkanaka Urrabia bere betiko neurrira itzuli zen. Egunaz trenbide zaharrearantz jentea problemarik gabe ibiltzen ahalko zen. Kanposantuan ere ez zen ur putzu batzuk bertzerik gelditu. Ordea, urak berarekin ekarri zituenak bi bazterretan ageri ziren, erialdi ero batean han-hemenka ebatsi eta gero balio ez ziotelako abandonaturik: arbolen enbor-adarrak, ardi eta behi hilak, zerrakuretako ohol eta alanbre herdoilduak... Arrain batzuk ustekabean harrapatu zituen ugaldearen erretira espero baino biziagoak, eta urik gabe gelditu ziren bat-batean. Belar gainean, buztana altxa eta euren indar guziarekin kolpea emanagatik, ezin ibairaino ailegatzeko saltorik egin. Itoko ziren inork laguntzen ez bazien. Hurbilen zeudenak segituan ohartu ziren haien desesperazioaz. Dantzarako musika gure zelaietan gaua eman zuten hegaztientzat. Ez zuten halako bestarik espero.

Argitzen hastean lainoak bere menean zituen Urrabiaren bi aldeak, ibaitik hasi eta Alkasoroko elizaren kanpandorreraino. Hegaberek esperatu beharko zuten hura altxatu arte. Galarazia zegoen horrelakoe-tan ehizan ibiltzea, baina gizon gupidagabeari oihal zuri hark are bentaja handiagoa ematen zion. Arma eskuetan zuenaren eta armarik ez zutenen arteko di-ferentzia izugarria zen hala.

Danba! danba! danba! danba! Lau tiro aditu zi-tuen gure ama Karmenek Zubiko Bentako bere oha-tzetik. Bihotza estutu zitzaion eta gelako kristalek kraska! egin zuten. Hiru hegaberaren odol ttantta go-riak belar ezin berdeagoaren gainean irristatu ziren. Haietako bi istantean hil ziren, amuarraintiki bana mokoan, baina hirugarrenaren agonia luzeagoa izan zen. Hil hurren, azkeneko hatsa eman arte saiatu zen bere hegala puskatuak mugitzera heriotzatik ihes egi-teko.